



Pertsona bat Ulma Architectural Solutions lantegiaren aurrealdean, Oñatin, asteon. XABIER URZELAI

## Mondragonetik irten edo ez, bazkideen esku

Ulma Taldeko 9 kooperatibetako 2.789 bazkide daude deituta gaurko, Korporaziotik atera eta beste harreman eredu bat izan edo ez erabakitzeko / 4



SANTAMASAK 2022 / 21

### SINADURAK



2. Mo 229€  
erreflexuen aurkako  
betaurreko  
progresiboak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



Otalora Lizentziaduna, 18  
Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE

Ibargarai, 16  
Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

www.multiópticas.com

**MULTIÓPTICAS**  
kalitatea - konfiantza - diseinua



Parte hartzaileak, Garaia Parte Teknologikoan. ITZIAR LARRAÑAGA

# Debagoieneko aukera energetikoak aztergai

Debagoiena 2030 ekimenak bultzatuta, Tecnaliak burututako Debagoieneko egoera energetikoaren inguruko diagnostia partekatu zuten eguenean herritarrekin Garaia Parke Teknologikoan eginitako jardunaldian. 50 bat lagun elkartu ziren bertan

**Miren Arregi Amasorrain** ARRASATE Debagoieneko Aukera Energetikoak izeneko ikerketaren lehen emaitzak eroan zituzten egueneko saiora. Ikerketak Debagoieneko eremu hiritarrekotik – etxebizitzak, zerbitzuak eta hondakinak – egoera energetikoaren diagnostia egin du, garrarioaren eta industriaren datuak salbuesita. Debagoiena 2030 ekimeneko proiektu zuzendari Aritz Ameztegik azaldutakoaren arabera, ikerketatik eratorritako lehen emaitzek "argi utzi dute trantsizio energetikoa ta-

maina handiko erronka dela, eta gizartea kontziente izan dadin ere lortu gura izan dugu gaurko saioarekin". 50 bat lagun elkartu ziren batzarrean, bertan partekaturiko datuen gainean hausnartu eta trantsizio energetikoak suposatzen duen erronkaren nolakotasunaz aritu ziren.

## Tamaina handiko erronka

Eskualde osoko energia kontsumoa kontuan hartzen bada –garrarioa eta industria izan ezik–, kontsumo osoaren %10 bakarrik da argindarra. Bada, Debagoie-

nean berriztagarrietatik sortzen den elektrizitatea aipaturiko %10 horren %14 baino ez da.

Tecnaliak egindako azterketa bigarren fase baten sartuko da orain eta bertan ikusiko da berriztagarrietan zein ahalmen eta aukera energetiko dauden Debagoienean; betiere, hiri-eremuan eta eraikinetan oinarrituta. "Horretarako, eraikinen teilatuen azalera neurtu da, batez besteko eguzki erradiazioa, potentzial fotovoltaikoa eta sorkuntza potentziala. Landa eremuan egon daitezkeen aukerak

ere aztertuko ditugu eta egia da eremu horretan azalera handia dagoela", azaldu du Tecnaliako proiektuen kudeatzaile Eduardo Mierak.

Saioaren bigarren zatian, Debagoienean martxan dauden sei proiekturen berri eman zuten. Horetatik lau sorkuntza proiektuak eta bi murrizketakoak.

## Debagoieneko ekimen batzuk

Aipaturiko sorkuntza proiektuetatik hiru dira fotovoltaikoak: Leintz Bailarako Ekiola, Bergarako Berener eta Antzuolako Autokontsumo Partekatua. Leintz Bailarako Ekiola 600 familia ingururi argindarra emateko sortuko den planta fotovoltaiko kooperatiboa da, energia bertan sortu eta bertan kontsumitzea ahalbidetuko duena. Bergarako Berenerrek energia berriztagarrien ekoizpena, autokontsumo partekatua eta energia kontsumoaren aurrezpena sustatuko ditu. Eta Antzuolako Autokontsumo Partekatua Antzuolan energia berriztagarriak eta kontsumo partekatua bultzatzea sustatzen duen proiektu bat da. Sorkuntzari lotutako azken proiektua Oñatiko Argindarra da. Argindarraren liberalizazioa gertatu zenean, zerbitzua sektore pribatuen esku utzi ordez, udal enpresen bidez kudeatzen jarraitu zen argindarraren sorkuntza, banaketa eta merkaturatzea. Azkenik, murrizketarekin lotutako bi proiekturen berri ere eman zuten protagonistek: Santa Teresa auzoan irisgarritasunaren eta energiaren ikuspegitik egingo den eraberritzea, batetik; eta Ikastetxe-Klik proiektua, bestetik: Debagoieneko ikastetxeetan energia eraginkortasuna bultzatzeko proiektua da.

## Gonzalo Nardiz sarietako bat, Agustin Markaiderendako

Lehen sektorean egindako ibilbide eredugarria aitortzea helburu duen Gonzalo Nardiz saria jasoko du Agustin Markaidek (Arrasate, 1957). 2003an jarri zuen abian Eusko Jaurlaritzak sari-keta eta Markaidek elikaduraren sektoreari dagokiona eskuratu du. Eroski taldean elikagaien banaketa-sektorean egindako "lan garrantzitsuagatik" eman diote saria: "EAEko elikaduraren sektoreko balio-katea berritzen eta garatzen eta bertako produktuak babesten inplikazio handia izan du". Arrasatearraren aurretik, Tomas Larrañaga antzuolarrak ere jaso zuen saria, 2014an, nekazaritza ekologikoan aitzindari izateagatik.

## Bixente Atxak jarraituko du MUko errektore izaten

Zazpi urte daramatza oñatiarrak Mondragon Unibertsitateko errektore karguan eta beste lau urtez jarraituko du bertan. Eguenean egin zuten errektorea hautatzeko bilera eta aho batez onartu zen berriz ere Bixente Atxa izendatzea. Fakultate guztietako zuzendaritza batzordeetako lehendakari eta ordezkariak eta unibertsitatearekin lanean diharduten enpresa eta erakundeetako ordezkariak parte hartu zuten bileran. Hain zuzen, Atxak hirugarren agintaldiari emango dio hasiera. 2015eko urtarrilean hartu zuen lehenengo kargua eta, ondo bidean, hamaika urte beteko ditu errektore.

bertako  
igogailuak | ascensores

# -REKIN BAI!

OROTARIKO ZERBITZUA  
**100€-tik/hileko**

- Baietz mantentze-lan profesionalori
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



**GIPUZKOA**  
943 903 450

**BIZKAIA**  
946 523 935

**ARABA**  
945 712 822

**NAFARROA**  
848 870 917

[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)

# "Artzaintza agintariekin birpentsatu behar da"

**BATIS OTAEGI** GOMIZTEGI ARTZAIN ESKOLAKO KOORDINATZAILEA

Bihar, zapatua, Gomiztegiko eskolaren 25. urtemuga ospatuko dute Arantzazun. Eusko Jaurlaritzako goi-karguak joango dira, tartean, Iñigo Urkullu lehendakaria



Batis Otaegi, Gomiztegiko instalazioetan. GOMIZTEGI ARTZAIN ESKOLA

**Hasier Larrea** OÑATI

Arantzazura bidean dagoen Gomiztegi baserria artzain eskola bihurtu zenetik aurten mende laurden bete denez, ekitaldi berezia egingo dute bihar goizean, 11:30ean hasita, Gandiaga Topagunean. Aitzakia proposa urte guztiotan proiektua kudeatu duen Batis Otaegi (Legazpi, 1959) elkarrizketatzeko.

**Lehendakariak gain, Oñatiko alkattea eta, besteak beste, Markel Olano, Arantza Tapia eta Bittor Oroz daude gonbidatuta, euskal instituzioetako goi kargudunak. Zer esan nahi du horrek?**

Eskolan uste dugu artzaintzak iraultza eta errekonozimendua behar duela. Horretan gabilta, negozioa esnekien dibertsifikaziora bideratzen eta zentro teknologikoak garatzen, esaterako. Baina sektore hau krisian dago gaur egun, materialen, elikagaien eta erregaien gastuak ikaragarri hazi baitira. Beraz, birpentsatu egin behar da dena, eta Eusko Jaurlaritzak mahai horietan egotea beharrezkoa da. Orain arte jaso dugu sostengua, baina hemendik aurrera sektorea birmoldatzea komeni da, industria-rekin gertatu izan den bezala.

**Prozesu horretan, Gomiztegik izango du erreferentzia, ezta?**

Neuk erretiroa hartuko dut las-ter, baina proiektua esku onetan geratuko da, kooperatiba Ekain Muruak eta artzain eskola Ane Gartziandiak kudeatuko baitute. Produkzio, eraldaketa eta dibertsifikazio arloan ere langile kualifikatuak ditugu. Denen artean azken bost urteotan garatutako berrikuntza pedagogikoan sakonduko dute; hau da, lan eginez ikastearen kontzeptuan, lan munduko esperientziak ikusiz eta abar. Eskolak erronka berri bat baitauka esku artean, datozen 10 urteetarako ibilbide bat markatzea.

**Eskolak artzain gazteen bidelagun izaten jarraituko du, beraz.**

Urteotan 300 ikasletik gora jaso ditugu, ia denak euskal herritarrak, eta erdiak baino gehiago dabilta sektorean lanean. Bereaiek dira artzaintzaren etorkizuna, eta horiei dedikatu behar diegu gure ahalmen guztia. Ingurumen eta gizarte ikuspegitik, lan hau ondo ikusita dago, jakina baita ekosistema, belardiak eta arraza lokala mantentzen dituela, eta inportanteena, mendiak eta herri txikiak bizirik egotea ahalbidetzen dituela. Toki hauetan, gainera, euskara da hizkuntza nagusia.

**Zailtasunak zailtasun, artzaintzak badu etorkizuna?**

Esperientziak diosku duela 40 urte artzainak arkumeak eta artilea saltzetik bizi zirela; gaur egun, oster, gazta, esnea eta esnekiak saltzetik bizi dira. Nabarmena izan da bilakaera. Sektoreak bere bidea egingo du aurrerantzean ere, eta ziur nago egongo direla horretarako baliabideak.

**Biharko ekitaldirako gogotsu?**

Berezia da eskolarentzat, lehen aldia delako halako ordezkari-ta instituzionala jasoko duguna. Normalean, komunikabideetan oihartzuna ikasturteak bukatzerakoan izan ohi dugu, baina honek badu kutsu handiagoa. Horrez gain, niretzat garrantzitsua da artzainen iritziak entzun eta hurbiltasuna sentitzea, eta horretarako tartea ere izango dugu.

**Eta zuzeneko musikak girotuta.**

Neomak taldeak abesti batzuk joko ditu ekitaldian. Tradizioa modernizatzen dute euren kantuekin, guk artzaintzarekin egingen dugun bezala.

**"ANDONI MUJIKARI ZOR ZAIO ESKOLAREN EGUNGO PEDAGOGIA EREDUA, LAN EGINEZ IKASTEAN DATZANA"**

**Urrutira heltzeko modu bakarra dago. Hurbil egotea.**

Gero eta gehiago bizi gara eta nola zahartu erabaki nahi dugu. Gipuzkoako Foru Aldundia zainketa etorkizuna lantzen ari da. Etorkizuna Eraikiz ekimenaren bidez.

Gero eta zaintza pertsonalizatuagoak, komunitateari lotuagoak daudenak eta berritzaileak. Datozen 8 urtetan 39 jarduketa garatuko dira zaintzen duen eta nola zaindua izan nahi duen erabakitzen duen lurraldea izateko. Gure etorkizunaren alde lantzen ari diren gizarte-politikak, orain.

**Etorkizuna Orain.**  
etorkizunaeraikiz.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Eneko Azkarate Laspiur** ARRASATE  
Ulma Taldeko eta Oronako bazkideek gaur erabakiko dute Mondragon Korporaziotik irten eta beste harreman mota bat izan edo ez. Oñatiko kooperatiba taldearen kasuan, 2.789 bazkidek izango dute botoa emateko aukera. Ezohiko batzar nagusia Illunben, Donostian, egingo dute taldea osatzen duten bederatzi kooperatibek, 10:00etan lehen deialdian eta 10:30ean bigarren. Kooperatibek autobus bereziak antolatu dituzte, goizeko lehen ordutik, lantegietatik aterata, Donostiarako joan-etorria egiteko.

#### Harreman eredu berria

Ezohiko batzar bereziak sei puntu ditu. Mamia bi puntutan dago: 2. eta 3. puntuetan, hain justu ere. Bigarren puntuan honako hau jasotzen da: "Hala badagokio, Mondragon Kooperatiba Korporazioarekin harreman eredu berria onartzea berrestea. Honetan datzana: batetik, Ulma Taldeko bazkide diren kooperatibek Mondragonen baja ematea adostea eta horren ondoriozko akordioak egitea. Bestetik, Ulma Taldea kooperatiba elkarteko Kontseilu Errektoreari jarraibideak ematea etorkizunean Mondragonekin lankidetzak bultzatzen saiatzeko kooperatiba-mugimendua garatzeko eta orain arte Mondragon Fundazioak kudeatzen dituen funtsei egiten diren ekarpenak kooperatiben mugimendua garatzeko erabilzen jarraitu ahal izan daitezkeen arauen garapena bultzatzeko".

Hirugarren puntuan, osterat: "Hala badagokio, Sistema industrialak-Ulma Taldea Kooperatiba elkartea dibisioaren baja onartzea Mondragonen!".

Bozketa Ulma Taldea osatzen duten bederatzi kooperatibak -hauen organoak eta hauen bazkideak- areto berean direla egingo da. Modu telematikoa. Modu horretan jakingo da taldeko kooperatiba bakoitzak zer bozkatu duen eta bederatzi kooperatibetako boto guztien baturak emango du azken emaitza.

Ezohiko batzar honen bidez, Ulma Taldeak Korporazioarekiko beste harreman modu bat bilatzen du: Korporazioari atxikitako kooperatiba talde izateari laga eta hitzarmen bidezko harremana sortzea; modu horretan, kooperatiba bako-



Pertsona bat, bizikleta gainean, Ulma Taldeak Oñatin duen egoitza nagusitik ateratzen, asteon. XABIER URZELAI

# Norabide berria hartu edo ez

Heldu da eguna. Gaur erabakiko du Ulma Taldeak Mondragoneko kide izaten jarraitu gura duen edo ez. Bakarkako bideari ekin eta, ondorioz, Mondragon ahulago egingo duen edo ez. 9 kooperatibetako 2.789 bazkidek dure hitza

tzaren betebeharrei uko egin barik eta izaera kooperatiboari eutsiz, kooperatiba bakoitzari ahalbidetuz Korporazioarekin harreman iraunkorrak izatea.

#### "Aniztasunari lekua"

Ulma Taldeak Korporazioa uzteko asmoa zuela, eta hori erabakitzeko, bazkideak ezohiko batzar nagusi batera deituko zituela jakin zenetik, urriaren 28tik, informazioa behin bakarrik zabaldu du, kanpora, modu ofizialean Ulmak; besteak beste, Ulmako bazkideen autonomian injerentziak egitea lepo-

## KORPORAZIOAREKIKO HARREMAN EREDU BERRIA ONARTU BEHARKO DUTE ULMAKO BAZKIDEEK

ratu zuen. Ugariak izan dira informazio eskariak eta elkarriketa eskariak, Goienaren partetik eta, oro har, hedabide guztien partetik. Baina Ulmak ez du ezer esan, ofizialki. Informazioa, barruan, bazkideekin partekatatu du eta horri esker jakin du Goienak, eta herritarrek, Ulma Taldearen asmoen berri. Esaterako, Ulma Taldeak esaten duela Mondragon Korporazioaren Kongresuari aurtengo udaberrian egin zitzaion proposamena ez zela "berria", baizik eta "alternatiboa". Era berean, ez zela eskakizun bat, baizik eta "epe eta modu egokian egindako ekarpena", Batzorde Iraunkorrak berak ezarritako arauen barruan egindakoa, Ulmaren esanetan. Proposamen "alternatibo" horrek Mondragonek Laboral Kutxaren beharrei irtenbidea emateko plan-

teatutakoa "osatzen" zuela dio Ulma Taldeak eta, aldi berean, "harreman-esparru unibertsala" eskaintzen zuela, Mondragonen dagoen aniztasunari lekua egiteko.

Mondragon Korporazioak bai eman du informazioa. Haren ikuspuntua. Mondragon Kongresuko eta Batzorde Iraunkorreko presidente Leire Mugarzak eta Korporazioko presidente Iñigo Uzinek hedabideen galderei erantzun diete. Baita Korporazioa osatzen duten beste kooperatibetako lan-bazkide eta buruek ere. Eta baita Kor-

## GOGOETAK PARTEKATU DITU ULMAK BARRUAN; MONDRAGONEK, HEDABIDEETAN

porazioko buru ohiek ere; Agustín Markaide Eroski Taldeko presidente ohiak, esaterako.

#### "Izaerarekiko aldaketa"

Leire Mugerzak Goienan esandakoaren arabera, Ulmaren proposamenak Mondragoneko "izaerarekiko aldaketa dakar". Horren arabera, Mondragoneko Kongresuko kide izateari uzten diote; bigarren, Kongresuaren arauditik kanpo geratzen dira; eta, hirugarren, Kongresuaren tresnak aldatu egiten dira itunpeko agiri baten bidez haiek, hau da, Ulma Taldeak eta Oronak, erabakiz, urtero, zenbateko ekarpena egin Korporazioari edo taldeko gainerako kooperatibei. "Ez zeukan zerikusirik gu lantzen ari ginen ezerekin. Esaterako, Laboral Kutxak jarraitzen du Kongresuko kide izaten, araudia betetzen du eta ekarpenak egiten segitzen du", adierazi zuen Leire Mugerzak hedabide honetan abenduaren 2an.

Adrian Zelaia, gaur egun Ekai Centerreko presidentea eta bere garaian Mondragon idazkari izandakoa, Goiena telebistan izan da asteon. Haren ustez, "kooperatiba bakoitzarekin hitzarmena sinatzea ezinezkoa eta kontraesankorra" izango litzateke, "talde izaerarekin bat ez datorrena".

#### Elkartasun mekanismoak

Bestetik, Ulma Taldeko Kontseilu Orokorrak eta Zuzendaritza Batzordeak bazkideen artean partekatatu ditu, oraingo asteen, Mondragon Korporazioko organoek "Ulma taldeko kooperatiben erabaki prozesuan izan duten esku-hartzearen gainean egiten dituzten gogoetak".

Gogoeta horien bidez, Ulma Taldeak berretsi du kooperatiba direla eta "beti izango direla", eta elkartasun mekanismoetan parte hartzen dutela eta hartuko dutela. "Lagun Aro, Laboral Kutxa, Mondragon Unibertsitatea eta beste hainbat kooperatiba erakunderen parte gara, eta parte izaten jarraituko dugu", adierazi du barruko informazio horretan. Eta gogorarazi nahi du, gainera, Korporazioko gainerako kooperatibek besteko ekarpena egiten duela. Hain justu ere, %7, Hedapen Korporatiboko Funtsei; %4, Kohesio eta Ga-

rapen Funtsari, IPDKren %20z gain; eta %1, Proiektu Traktoeren Funtsari.

### 'Zergatik Mondragon?'

Mondragon Korporazioak, bes-tetik, ikus-entzunezko bat zabaldu du, asteen, haren agerkari ofizialaren bidez, *Tu lankide*-ren bidez. Horretan, Ulmakoak eta Oronakoak ez diren beste hainbat bazkide eta bururen gogoetak partekatu ditu herri-tarrek.

*Zergatik Mondragon?* galde-rari erantzunez Mondragonen egoteak duen onuren berri eman dute, besteak beste, Mondragon Assembly, Laboral Kutxa, Lagun Aro, Orkli, Lana eta Fagor Taldeko ordezkariak.

Testigantzetan balioa eman diote kooperatiben arteko lankidetzari, jasotako laguntzari eta enpresa kooperatiboagoak eta lehiakorragoak izateko bul-tzadari, besteak beste. Laboral Kutxako zuzendari nagusi Xabier Egibarrek ekosistema aipatu du: "Eredu kooperatiboa hedatzea den gure xedea lortzeko, fun-tsezkoa da gure balioak eta kultura partekatze, gobernan-tza hobetzeko eta erronka be-rrietara egokitzeko aukera emango digun ekosistema bat izatea, baita kooperatiba indar-tsuagoak eta lehiakorragoak izateko sistemak sortzea ere".

Batzeko Xabier Ozerinjaregik jasotako laguntzari eman dio balioa: "Batz sortu zela datorren urtean 60 urte beteko dira. Ibi-laldi horretan urte onak hainbat izan ditugu, baina azken urteak latzak izan dira guretzat. Baz-kideen ahaleginarekin eta Mon-dragonen laguntzarekin, zorio-nez, aurrera egin dugu".

Fagor Taldeko Aritz Otxan-dianok, ostera, batasunari eman

dio garrantzia: "Mondragon jaio zen parte garen komunitatearen beharrei erantzuteko, eta, zen-tzu horretan, gizartearen erron-kak gureak ere badira. Erronka horiei erantzuna bilatzen lagun-tzeko elkarrekin gehiago gara".

### Informazioa, "partziala"

Agustin Markaide Eroski Taldeko zuzendari eta presidente izandakoak, eta 2016an *Etor-kizuneko Mondragon* ponentzian parte-hartze zuzena izan zuenak, hainbat gogoeta partekatu ditu sare sozialetan. Besteak beste, informazioaren gainean jardun du, Ulma Taldeak bere bazki-deekin partekatu duenaz. Mar-

kaideren iritziz, Mondragon Korporazioak ezin izan die beren ikuskera azaldu, modu zuzenean, Korporazioko kide diren Ulma Taldeko bazkideei. Hartara, ezin izan dira kontrastatu Ulma Taldeko zuzendaritzaren argumen-tuak Korporaziokoekin. "Infor-mazioaren kalitatea ez da nahi-koa ona izan; partziala izan da", adierazi du.

Eta zera gehitu du: "Barne-pro-zesuan *Mondragonen esku-sar-tzeari* buruzko oharrak ez dira justifikatzen, eta monopoliza-tzeko nahia ekar dezakete. Eta irakurri ditudan dokumentue-tan, neurri egindako egia baten eraikuntzaren sintomak aurkitu ditut. Horrek eragin handia izango luke kalitatezko erabakiaren oinarrian. Jasota-ko informazioaren aurrean bazkideek duten jarrera baldintzatuta egon daiteke neurri-ri egindako egia horretan oi-narritutako istorio bat eraiki-tzearen ondorioz. Historia horren bidez, bazkideak kan-poko edozein ekintza berrin-terpretaturen aurka jarri nahi dira. Horrek, zuzendaritzak eta organoek izan behar duten kon-fiantza-kapitalarekin batera, eta kapital hori nola erabiltzen den, erabakiaren kalitatean eta erabaki horren zentzuan ere eragina izan dezake".

### Mondragon, "funtsezkoa"

Markel Olano Gipuzkoako di-putatu nagusia *Harira* saioan izan da, eta Ulmaren eta Mon-dragon Korporazioaren arteko aferaz ere hitz egin du. "Batetik, Mondragon, talde bezala, fun-tsezkoa da gure lurralde honen-tzako, eta, bestetik, kooperati-bismoak eta kooperatibek di-tuzten balioak dira etorkizune-ko balioak Gipuzkoan ere".

## Ulma Taldeari buruzko hainbat datu

- **Kooperatibak:** 9 (Ulma Agrícola, Ulma Architectural Solutions, Ulma Construction, Ulma Conveyor Components, Ulma Embedded Solutions, Ulma Forged Solutions, Ulma Handling Systems, Ulma Packaging, Ulma Manutentzio Zerbitzuak).
- **Langileak:** 5.500, Mondragon Taldeko kooperatiba guztien %6.
- **Lan bazkideak:** 2.789.
- **Salmentak 2021ean:** 900 milioi euro (600, nazioartean). Mondragon Taldeko kooperatiba guztien %8.
- **Inbertsioak 2021ean:** 86 milioi euro.

## "Ulma Taldearen planteamendua ez dator bat talde izaerarekin"

ADRIAN ZELAIA EKAI CENTER-EKO PRESIDENTEA

Adrian Zelaia, ekonomian aditu eta legelaria, gaur egun Ekai Centerreko presidente eta Mondragon Korporazioko idazkari orokorra izandakoa, Goiena telebistan izan da bart, *Hemen Debagoiena* saioan, eta egoeraren gaineko ikuspuntua eman du. Haren ustez, kooperatibismoaren irudia mundu mailan oso lotua dago Arrasate Korporazioarekin eta halakoek "badute eragina esparru akademikoan eta enpresa esparruan".

Haren ustez, Ulma Taldearekin eta Oronarekin gertatutakoa ez da guztiz ezohikoa. Haren esanetan, sakoneko arazoa da, kooperatibak "autonomoak" direla eta korporaziotik irtetea kooperatibei dagokiela. Dena den, dio kooperatiba bakoitzarekin hitzarmena sinatzea –Ulma Taldeak proposatzen duena– ezinezkoa eta kontraesankorra izango litzatekeela, "talde izaerarekin bat ez datorrena".



LARRAITZ ZEBERIO

### Sozietate anonimoak edo kapital sozietateak

Ulmak eta Oronak Korporaziotik ateratzeak sor ditzakeen arriskuez ere ohartarazi du: "Arrasateko kooperatiben mugimenduak sortu du kultura bat, talde izanda, bata eta beste babestua sentitzea ahalbidetzen duena. Baina, etorkizunera begira, kooperatiba bat bakarrik egotea merkatuan arriskutsua izan daiteke ikuspegi instituzionaletik. Esaterako, tentazioak izan daitezke sozietate anonimoak edo kapital sozietateak sortzeko".

### Korporazioaren funtsetan eragina

Une honetan Arrasateko kooperatiba taldearen baitan gertatutakoa saihesteko, dio, aukera bat da "mugatzea kooperatiben irteteko eskubidea". Beste aukera bat da "integrazio maila ezberdinak izatea kooperatiba batzuetan eta beste batzuetan. Oso teorikoa da".

Oñatiko eta Hernaniko kooperatiben mugimendu honek Korporazioari ze ekarriko liokeen galdetuta, zera erantzun du: "Etekinen parte inportantea dira Ulma Taldearenak eta Oronarenak. Eta Korporazioaren funtsetan igarri daiteke, epe laburrera. Kooperatibetik egiten diren ekarpenetan. Irudiaren ikuspegitik ere igarri daiteke galera".

Labon zorientsuak  
eta  
urte berri on  
denoi!!

Eskerrik asko 2022 honetan  
gurera etorri zareten guztioi.



Garibai etorbidea 6 behea  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 25 80 86

begia\_optika



ZABALIK

XABIER BERSATEGI

## Energia guztiontzat

Hizkuntza askok badaukate amankomunean hitz bat: *energia*. Unibertsa, esanahi zabalekoa eta eraginkorra. Indarra, mugimendua, beroa eta hotza sortzeko behar-beharrezko dugu energia. Historian zehar energia-iturri desberdinak erabili izan ditugu: errotak, haize-errotak, burdinolak... Iturri horiek ez dira askorik aldatu, baina XVIII. mendeko industrializazioaren eraginez beharrak handituz joan ziren mundu mailan, James Watt-ek lurrin-makina asmatu zuenean, alajaina.

Beharrak handituz joan diren heinean, energia fosilen erabilera handiagotu egin da azken urteotan. Ikatza eta, bereziki, aski ezagunak diren petrolio eta gasa bihurtu dira munduaren jabe. Hauen erabileraren eragina benetan kezkarria da: CO2 isuriak aldaketa klimatikoak dakar eta, horren ondorioz, planetaren suntsipena.

### HAUXE DA BIDEA: DESKARBONIZAZIOA, AUTOKONTSUMOA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Gaur egun, trantsizio energetikoan murgilduta gaude eta argi daukagu nondik jo behar dugun: deskarbonizazioa, autokontsumoa eta energia berriztagarriak.

Deskarbonizazioa beste biak behar den bezala lantzearen emaitza izango da; beraz, jarraitu dezagun autokontsumoa eta energia berriztagarriak lantzen. Espainiako Estatuan, adibidez, haize-errotek, eguzki energiak eta jauzi hidraulikoek duten ekarpena oso handia da: sortzen den energia osotik, erdia da egun jakin askotan. Hauxe da bidea. Euskadi mailan beste lurralde batzuetan sortzen den energiaren menpe gaude eta energia sortzeko gaitasuna oso txikia da. Dena den, eraginkorrak izan daitezkeen akzioak gure esku daude, nahiz eta inbertsio handiak behar izan. Lehenik eta behin, aurreztera bideratutako ekintzak abian jarri; bitartean, autokontsumoa uztartu –ur-jauziak, eguzki-plakak teilatuetan, geotermia, haize-errotak mendietan–; eta, azkenik, hidrogenoaren erabilera berriak ikertu. Guztion erantzukizuna da energia eredu jasagarria sortzea.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



GUTUNAK

### Mari Domingiri

**LURDES LLODIO LARRINAGA, JASONE GORROÑO ALDAI, ORREAGA ZUBIZARRETA GARAI, OIHANA JAUSORO AGIRRE, LARRAITZ ARANDO ILARDUIA ETA JONE OJEA UGARTE**

ERDU ATXABALTAKO TALDE FEMINISTA  
ARETXABALETA

Mari Domingi maitea: Desesperaturik gaude, Olentzerok ez gaitu-eta ulertzen. Urteak daramatzagu gauza bera eskatzen: Aretxabaletan emakumeok\* batzeko, elkar babesteko, entzuteko, antolatzeke, ahalduzkeko, espazio bat eskatzen. Baina Olentzerok ez gaitu ulertzen eta guk ez dugu edabe magikorik horretarako.

2015etik orain gutxi arte, lokal txiki bat izan dugu Zainduz-en, baina aurtengo ekainean kaleratu egin gintuzten bertatik eta jubilatua sartu dituzte bertan. Arrapaladan irtenarazi gintuzten eta gure trasteak herriko hainbat lokaletan ditugu banaturik: kuleroak gurea zen lokal horretan utzi genituen, erratzak UDAko lokalean ditugu eta amantalk Loramendiko gela sozialeko armairuan.

Udalak beste lokal-aukera batzuk aipatu izan dizkigu, baina guztiak beste elkarte batzuekin konpartituak, guztiak

Aretxabaletako emakumeon\* bilgune bezala balio ez digutenak.

Horrela ezin gara ibili. Gure kulero, erratz eta amantalk nahi ditugun moduan gordetzeko gure espazioa izan nahi dugu. Bertan nahi ditugun sorginkeriak egiteko eta edabeak egiteko.

Baina Olentzerok ez gaitu ulertzen, Mari Domingi. Agian, ulertzen gaitu eta ez du sorginkeria feministarik nahi herrian. Horregatik idazten dizugu zuri, Mari Domingi.

Ulertuko gaituzun esperantzarekin eta datorren urtean gure desira egia bihurtuko duzun itxaropenarekin, agur.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzardea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 18.500 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## BERBAGAI

# "Politika egiteko modua eraldatu egin dugu"

MARKEL OLANO GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

**L. Zeberio/G. Arana** ARRASATE Hiru agintalditan izan da Gipuzkoako diputatu nagusi -2007tik 2011ra eta 2015etik 2023ra-, baina ez da berriz aurkeztuko.

**Hautagaitza ez errepikatzea erabaki pertsonala izan da ala taldean hartutakoa?**

Ez da erabaki oso zaila izan, baina egia da ez dela pertsonala izan. Hastea talde-erabakia izan zen, eta saiatu naiz politikagintza horrela enfokatzeko. Ardura batean zaudenean zuk hartzen duzu, neurri handi batean, ardura eta zama, baina uste dut politikagintzan egoak edo pertsonaren ikuspegiak zama gehiegi badauka horrek kalte egiten diola jardun politikoari. Saiatu naiz taldearen ikuspegia lantzen. **2007a ezker etenik gabe izan zara batzarkidea. Zeintzuk izan dira urteotako mugarr nagusiak?** Esango nuke 2007tik 2011ra arteko mugarr nagusia martxan jartzekoak ziren hondakinen inguruko azpiegiturak izan zirela, eta alderdi bezala izan genuen egoera gorabeheratsua. Konturatu ginen, baita ere, politikagintza klasikoak hondoa jota zuela eta gizartea gero eta gehiago ari zela urruntzen erakundeetatik eta politikagintzatik.



Markel Olano, martitzenean, Goienan. XABIER URZELAI

Ondorioztatu genuen kultura politiko berria behar zela, eta, nahiz eta batzuek barre egiten ziguten, uste dut gaur egun hitzetik hortzera dabilen lankidetzazko gobernantza eta arlo politikoaren eraldaketa delakoa garai hartan bagenuela. Gero, 2015etik aurrera Etorkizuna Eraikiz jarri genuen martxan, eta hori izan da azken bi legealdiotan bidea markatu diguna. Alde horretatik, uste dut politika egiteko modua eraldatu egin dugula.

**Politikagintzan jarraituko duzu aurrerantzean?**

Ez daukagu oraindik definituta, eta nik neuk ere ez daukat landuta. Sei hilabete ditugu oraindik aurretik. Maitz edo ekain tarte horretan osatuko da Gobernu berria, eta garai horretan argituko dut aurrerantzean zer. Bitartean, diputatu nagusi karguan jarraituko dut buru-belarri. **Eider Mendoza izango da EAJren diputatugaia. Zer esango zenuke hari buruz?**

Lurraldearen gaineko ezagutza handia du eta sentsibilitate sozial handiko emakumea da. Uste dut ezaugarri ezinbestekoak direla Gipuzkoan.

**Gobernantza eraldaketa eredu kokatzen da ArantzazuLab. Nola baloratzen duzu ia bi urteko ibilbidea?**

Berriki izan gara Arantzazun Iñigo Urkullu lehendakariarekin. Nire ustez, ArantzazuLabek ekarri duena da politika egiteko modu berrietan urratsak egiteko espazio bat, lantalde bat eta sare bat. Garrantzitsua izango da bai Euskal Herri mailan bai nazioartean aurreratuenak diren proiektuekin bat egiteko. Erreminta bat izango da arlo horretan geure burua hobetzeko. Gipuzkoa berez da elkarlanerako eta lankidetzarako gunea. Debagoiena ere horrela dela esatea ia sobran dago, eta ArantzazuLab hemen egoteak zentzu hori dauka. Ez da kasualitatea.

**Egungo zerga sistemak bermatu egiten du erakundeen nahikotasun finantzarioa gipuzkoarrek dituzten beharrei aurre egiteko?**

2008an hasi zen finantza krisia, eta urtebete lehenago eraikuntza krisia. Ondoren etorri ziren urte oso gogorak, baina, geroztik, hazkunde ekonomikoa izan dugu, eta egindako aurreikuspen ekonomikoak handitu egiten ditu horrek. Lasaitasun handia da aurrekontuetarako eta baita ere eskuduntzen betetzearen ikuspegitik. Horregatik uste dut azken 9-10

urteotan egonkortasun handia izan dugula eta gure eskema fiskalak lagundu digula eta ekarri dizkigula baliabideak genituen beharrei aurre egiteko. Eskema fiskalek, dena den, malguak izan behar dute eta egokitu egin behar dute unean uneko egoerara. Lau bat urte dira azken erreforma egin genuenetik, eta orain, ebaluazio bat behar du. Baina ebaluazioa egiteko patxada behar da, eta azken urte hauek ez dira patxadatsuak izan. Gaiak sortu ditu debateak, baina azalekoak izan direla esango nuke nik.

**Ulma-Mondragon auzian zein izango litzateke erabaki onena gipuzkoarrendako?**

Ikusten dut debate hori luze joan dela eta ez dut nik gehiago berotu nahi. Uste dut diputatu nagusi moduan ezin naizela arlo horretan sartu. Bi gauza azpimarratuko nituzke: Mondragon Taldea guretzat funtsezkoa dela eta kooperatibismoak dituen balioak direla etorkizunekoak.

**"FISKALITATEAREN GAIK SORTU DITU DEBATEAK, BAINA AZALEKOAK, NIRE USTEZ"**

**"USTE DUT KOOPERATIBISMOAREN BALIOAK DIRELA ETORKIZUNEOAK GIPUZKOAN"**

## HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





Irati Topagunearen ondoko bi partzelei, Arotz plazakoei, eraikigarritasuna kenduko die plan berriak; ezingo da ezer eraiki. E.A.B.

## Arrasatek alde zaharreko plan berezi berria dauka

Udal Gobernuak atzo eguerdian jakinarazi zituen Arrasateko Hirigune Historikoaren Birgaitze Integraturako Plan Berezi berriaren inguruko xehetasunak; ezustekorik ezean, atzoko osoko bilkuran onartuko zuten puntua, eta 2019an hasitako bidea bukatu

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Behin herritarren proposamenak landu eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren iradokizunak uztartu ostean, Hirigune Historikoaren Birgaitze Integraturako Plan Berezi berria du Arrasatek, eta hainbat aldaketa eragingo ditu horrek. Esaterako, erakusleihen zabaleraren gaineke araua "asko" malgutuko da, eta karratuak izan ahalko dira. Hau da, erakusleihok altuera bezalako zabale- ra izan ahalko dute aurrerantzean. Bestalde, kontuan izanik alde zaharra *almen-dra*-k eta errebalak osatzen dutela, errebalen babes maila malgutu egingo da, 26/1997 dekretuaren "zorroztasunetik"

askatzen baita. "Adibidez, tras-telekuak egiteko sotoak eraiki ahal izango dira, fatxadetan begiratoki berriak jarri ahal izango dira eta Biteri plazara ematen duten fatxadetan toloak jarri ahal izango dira", dio Ibon Arrupek, Hirigintza Saileko batzordeburuak.

Era berean, aisialdirako gune irekiak eta berdeguneak egonkortu dituzte eta Arrasate hotelaren atzealdeko partzelari (Maalako errebala) eta Ferrerías kaleko Irati Topagunearen ondoko bi partzelei, Arotz plazakoei, eraikigarritasuna kendu zaie, eta espazio publiko bihurtu. Hala, hiru partzela horietan ezingo da ezer eraiki.

Gainera, abandonatutako eraikinak berreraikitzean ordaindu beharreko karga urbanistikoei aurre egiteko hobariak ezarri dituzte.

### Udal zerbitzuak alde zaharrean

Horrez gain, "udal zerbitzu publikoak alde zaharraren muinean mantendu eta etorkizun batean eremu honetatik kanpo daudenak ere bertara ekartzeko", Erdiko kalea 11 eta Zeharkale Estalia 1 eraikinei kalifikazioa aldatu zaie, eta etxebizitza erabilera izatetik zerbitzu publiko erabilerara pasatu dira. "Zeharkale Estalia 1 zenbakiaren %50 baino gehiagoan dagoeneko udal zerbitzuak dau- de ezarrita", dio Arrupek.

Halaber, Iturriotz 13 zenbakian, lehenengo Alai zineman, etxebizitza egin ahal izango dira; betiere, beheko solairuan udal zerbitzu publikoak eskaintzeko aukera bermatzen bada.

### "Erakargarritasuna" helburu

Arrupek nabarmendu du hirigune historikoan indarrean zegoen hirigintza araudi "murriztaileak", Erdi Aroko *almen-dra*-ren monumentu izaera batesteko 2000. urtean ezarritakoak, "arazo ugari" eragin izan dituela herritarren eta merkatarien beharrezanekin uztartzeko. "Begiratokiak edo toloak ezartzeko, erakusleihok handitzeko, zuntz optikoa instalatzeko edo lurpeko garajeak eta sotoak eraikitzeak, arazoak sortzen zituen". Hori dela eta, araudi berriak alde zaharra "erakargarriago" egitea du helburu, "bizitzeko eta lan egiteko hirigune bilakatzuz, baina haren monumentu izaeraren kontserbazioaren arteko oreka mantenduz", azaldu du Arrupek. "Alde zaharra biziberritu nahi dugu bi ideia nagusiren bueltan: Alde zahar bizi eta eraberritu bat".

### 2019an hasitako prozesua

2000n osatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak Arrasateko Alde Zaharraren Birgaitzerako Plan Berezia, eta, monumentu multzoaz gain, Maalako errebala, Olarte eta Gazteluondo kaleak babestu zituen. 2019an, Arrasateko hainbat eragileren adostasunarekin, garai berrietara egokitzeko plan berezia berrikusteko prozesua ireki zuen Udalak. Hogei proposamen jaso ondoren, 2020an eta 2021ean, aholku kontseiluarekin batera, proposamenak landu zituzten, eta onartu berri duten hori da emaitza.



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

### Irulegiko antena

Denboratxo bat igaro den arren, ez nuke aukera hau galdu nahi Arrasate Zientzia Elkarteari nire babesa helarazteko, Hirigintza Sailak hartutako erabakiaren harira. Izan ere, Arrasaten aurreikusitako indusketa arkeologikoak egiteko, obra handietarako udal tasa ezartzeak bideraezin bihurtuko ditu horrelako ekimenak, inolako irabazi asmorik ez dutenak eta ezinbestekoak direnak gure iragana hobeto ezagutzeko eta dibulgatzeko.

Arrasate eta bere herentzia historikoa ondo zaindu duen herria. Adibideak asko dira: ehunka urteko baserriak eraistea, Gerra jauregia botatzea, alde zaharrean edozein astakeria arkitektoniko onartzea, edo herriko azken harrizko zubiak botatzea, ahal bada, oporren gerizpean. Irulegiko eskua Muruko herrixkan egon balitz, 60 tonako antena bat izango luke gainean.

Agintariarik azkar husten dute poltsiko publikoa hamaikagarren autobidea eraikitzeak, edo AHTari beste kilometro bat eransteak, baina, Gabonetan gaudenez ia, ondare historiko-arkeologikoarekin duten xuhurkeriak Mr. Scrooge dakarkit burura, egia esan.

Oparitu  
elkartasuna!



harremandenda

Arrasateko Hiper Eroskin gaude 943 77 00 78



Oparitu  
elkartasuna!

### Zergatik aukeratu Bidezko Merkataritza?

Produktu bakoitzaren atzean pertsonak daudelako

Soldata justua  
Lan eskubideak  
Haur esklabotzarik ez  
Bizi baldintza duinak

Kimikorik gabeko  
kafea, azukrea, kakaoa...  
Kosmetiko naturalak, artisautza eta  
Gabonetako saskiak

Mundu hobeko baten alde, oparitu elkartasuna!





# Baserritarren Eguna egingo dute Musakolan

Musakola Bizirik egitasmoaren baitan, Baserritarren Eguna egingo dute lehenengo aldiz bihar, zapatua. Egun hori baliatuz, besteak beste, zaharberitutako San Isidro ermitaren berreraikitzea egingo dute goizean, eta egun osoko festa izango dute gero

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Goizean goiz ekingo diote auzoa girotzeari, kanpai errepikak eginez, eta 11:30ean, baserritar eta auzokide guztien omenez, meza nagusia egingo dute San Isidro ermitan. Kontuan hartu behar da ermitaren teilatua erabat konpondu berri dutela eta, era berean, barruko egurrari tratamendu berezi bat eman diotela. Hori dela eta, biharko eguna baliatuko dute eraberritutako ermitaren nolabaiteko aurkezpena egiteko. Gainera, organoaren laguntzarekin, hainbat abesti joko dituzte, baita gaiteroen laguntzarekin ere.

Meza bukatu ondoren, Musakolako Jai Batzordeak eta Musakolako erretiratuen elkarte-ko batzordeak luntxa emango dute erretiratuen etxean, 12:30ean. Ordu berean hasiko dute triki-poteoa, trikitalariek eta gaiteroek alaituta, erretiratuen etxetik, eta Musakolako tabernetan barrena ibiliko dira, bazkalordura arte. Txikiteo horretan, halaber, taberne txistorra edo beste jatekoren bat eskainiko diete elkartzen diren guztiei.

Auzoko jatetxe eta elkarteetan egingo dute bazkaria, "bakoitzak bere kontura", Jai Batzordetik adierazi dutenez. "Denboraz



Musakolako Jai Batzordeko hainbat kide, eguaztenean. MUSAKOLAKO JAI BATZORDEA

ibili erreserbak egiteko", diote. Bazkalostean, berriz ere triki-poteoa abiatuko dute, trikitalariek, auzoko kaleak alaitzeko, "iluntzera arte edo nork daki zein ordu arte!".

Bestalde, auzotarrei nahiz elkartzen diren guztiei baserritar txapela eta zapia janzteko eskaera egin die Jai Batzordeak, "baita kamiseta berriak ere!".

## Jai osagarria, ez zapaltzailea

Bukatzeke, argi utzi nahi izan dute Baserritar Egunarekin ez dutela beste inoren jai edo ekin-

tzarik zapaltzeko asmorik. "Egun hau gehigarri bezala planteatzen dugu, bereziki ondoren datozen santamasak edota Gabonak berotzeko asmotan", azpimarratu dute.

## San Silvestrean, berrikuntza

Biharko jaiaz gain, abenduaren 31n San Silvestre lasterketa egingo dute, aspaldiko ohitura jarraituz. Aurten, gainera, berrikuntza gisa, haurren lasterketa ere egingo dute, 10:00etan hasita. Hori bukatzean egingo dute nagusien lasterketa.

## 32 establezimendu ariko dira erakusleihonena izateko lehian

Iaz baino lau gehiago izango dira Gabonetako Erakusleihon Lehaketan parte hartuko duten establezimenduak, eta herritarrek domekara arte izango dute bozkatzeko aukera, *Arrasate.eus* webgunean. Halaber, erakusleihonetan LED poltsatxo bat jarri dute eta hortik ere eman ahalko da botoa, QR kode baten bitartez. Proiektu hori Mondra-

gon Unibertsitateko LEINN graduko ikasle batzuekin elkarlanean egin du Udalak. Greenflash enpresak (MU) jarri ditu poltsatxoak. Webgunean mapa bat dago erakusleihoen kokapena ikusteko eta ibilbidea antolatzen. Bestalde, diseinuan aditua den Ibai-arteko kide batetik eta udal ordezkariak osatuko dute epaimahaia. Sari bana-keta abenduaren 21ean izango da, 17:00etan, komertzioz komertzio. Informazio gehiago, *Goiena.eus* webgunean.

## Motibazio saioak berreskuratu ditu Ttak gazte taldeak

Pandemiako etenaren ostean, eguaztenean egin zuten lehen saioa, Idoia Tapia eta Irati Velezekin. Gaur, berriz, herriko hiru musikarirekin egingo dute saioa, gaztetxean, 12:00etan: Unax Iñarra, Leire Etxezarreta eta Peru Altube. Saioen helburua da gazteei ikusaraztea euskaraz bizi diren erreferenteak badaudela, eta horien berri ematea.

## OHARRAK

### Artgazkiren lehiaketa

Miquel Planells izan da irabazlea, Angel Maria Cerezo bigarren sailkatua eta Francisco Javier Dominguez hirugarrena (Ikus *Goiena.eus*).

### Familia meza etzi

Hileko azken domekako meza aurreratu egin dute: San Juan Bataiatzailea parrokiaren izango da, etzi, 11:00etan.



# Auzotar gehienak, berrurbanizatzearen alde

Udalak parte-hartze prozesu bat egin du Santa Marina, Santa Teresa, Doneztebe Portuko, Agerre eta Galizia kaleetako bizilagunen artean, auzune horretan egingo duen esku-hartzea zehazteko, eta galdetutakoen %90 berrurbanizazioaren alde daude

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Auzotarren artean ia erabateko adostasuna dago. Arrasateko Udalak partaidetzazko azterlan bat du martxan, eta, lehen fasean egindako telefono bidezko inkestetarik jasotako emaitzen arabera, galdetegia egin duten bizilagunen %90k lehentasunezkoztat jotzen dituzte lanak. Halaber, uste dute igogailuek auzoko irisgarritasuna hobetuko dutela. Horrekin lotuta, %2,8k eskailera mekanikoak eskatu dituzte eta %7k, berriz, arrapalak, "alderdi hori indartzeko".

Halaber, lehentasuna emateko orduan bi gai nabarmentzen dira gainerakoek gainetik: hiri-altzarien segurtasuna eta bidezotasuna eta berrikuntza; %70ek baino gehiagok uste dute bi alderdi horiek oso garrantzitsuak direla auzoa hobetzeko.

Horrez gain, inkestatuen %59k "oso garrantzitsutzat" jo dute hondakinen garbiketaren gaia,



Igogailu sistema jartzeko lanak. E.A.B.

eta, %25en ustez, ekipamendu berriak ere oso garrantzitsuak dira. Hala ere, adierazi dute zaila izango dela, leku faltagatik.

Hiri-hobekuntzen esparruan, eskaera nagusiak oinezkoekin lotutako ekipamenduei dagozkien

gai guztien ingurukoak dira, hala nola zintarriak, espaloien hobekuntza, barandak eta bankuak. Gainera, auzotarrek "kezka handia" erakutsi dute bideak garbitzeari, berdeguneak mantentzeari eta parasitoekin eta karraskariekin sortutako arazoei dagokienez.

Azpimarratzekoa da inkestan agertzen ez ziren bi gai ere irten direla galdeketa; hain zuzen ere, aparkaleku faltaren arazoa eta etxebizitzaren atzealdean filtrazioekin eta hormaren mantentzearekin sortutako arazoak.

## Elkarrizketa "sakonak"

Azterlanaren lehen fasea osatzeko, Udal Gobernuak azaldu duenez, elkarrizketa sakonak egingo dizkiete auzoko gizarte-eragileei; hau da, auzo batzarriari, auzo elkarteari, erretiratuen elkarteari, merkatariari, ostalariei eta abarri. Azterketa 2023 hasierarako amaituta izatea aurreikusten du Gobernuak.

## GORA ETA BEHERA



## "Aste osoa daramagu dirua atera ezinik"

"Musakolan Kutxabanken kutxazain automatikoan ezin da dirurik atera. Ez da lehen aldia, eta, deituta ere, ez digute soluziorik ematen. Lotsagarria da", diote hainbat bizilagunek.



EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

**Josle**  
LINTSIA & BERTSIA

Zatoz zure jantziaren bila!

Ondora pasau santamasak!

Otalora  
Lizentziaduna 21  
Tel.: 943 79 71 30

**GALLAS**  
Leiho eta pertsiana konponketak

Aurten bai! Gora santamasak!

PVC eta aluminioa  
Ardatz aldagarriko leihoak  
Pertsiana motorizatuak

617 81 38 02  
gallasleiho@gmail.com

Kids&Us  
school of english

Ingelera urte letik aurrera

Gora Santamasak!

Born to be Me!

Matrikula Zahalrik 2022-2023

Kids&Us Arrasate - Euskal Herria plaza 13 - T. 943051544 / 656740578 / 619500414

Ab 80

**TANATORIOA**

Gora santamasak!

Guztion zerbitzura 24 orduz

ARRASATE HILETA BERRIA

Deitu eta informa zaitez!!  
943 79 22 19

Araba etorbidea 3, 20500 ARRASATE. [www.funerariaarrasate.com](http://www.funerariaarrasate.com)

# N Line 30. Urteurrena gama.

Nabarmendu zaitez



i20 N Line 30. Urteurrena

**100 €-tik**  
aurrera hilean

- 100 €-ko 47 kuota
- Sarrera: 6.330,50 €
- Azken kuota: 8.426,63 €
- **UTB: %9,89\***
- **TIN: %8,25**

Oharkabea pasatzea gustatzen ez zaien horietakoa bazara, zorteko zaude. Hyundai N Line 30. Urteurrena Edizio Berezia heldu da. Horrekin, gozatu ahal izango duzu i20 N Line-ren emozio guztiaz, i30 N Line-ren kiroltasunaz, KONA N Line-ren prestazio harrigarriez eta TUCSON N Line-ren diseinuaz eta dotoreziaz, aparteko ekipamenduarekin, sekulako prezioan.

Nabarmendu zaitez N Line 30. Urteurrena gamarekin.



**Oarso Car Arrasate - Mugarri**

San Andres auzoa 6 (Mugarri eraikina). 943 67 40 29 [www.oarsocar.com](http://www.oarsocar.com)

**5 URTE** Km-en mugarik gabeko  
**Bermea**

Hyundai i20 N Line 30. Urteurrena. CO2 emisioak (gr/km): 115-120. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,9-5,3.

Hyundai i30 N Line 30. Urteurrena. CO2 emisioak (gr/km): 120-142. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-6,3.

Hyundai KONA N Line 30. Urteurrena. CO2 emisioak (gr/km): 137. Kontsumo mistoa (l/100km): 6,1.

Hyundai Tucson N Line 30. Urteurrena berria. CO2 emisioak (gr/km): 155. Kontsumo mistoa (l/100km): 6,8.

WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo eta emisioen balioak.

Hyundai Nuevo i20 5 ATE MPI 1.2 85 ZP N LINE 30. Urteurrena autoarentzako finantzaketaren adibidea. **PSP: 20.700 euro. Finantzatutako prezioa: 16.400 euro. Borne hartzen ditu BEZa, garraioa, matrikulazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantentze-lanen eskaintza eta Hyundai-ren Renove Plana, Hyundai ibilgailu bat erosi aurreko 6 hilabeteetan gutxienez eroslearen titulartasunpean erabilirik ibilgailu bat entregatzeagatik aplikatzekoa. Sarrera: 6.330,50 euro. Formalizazio-komisioa, eskura ordainduta (%3,75): 377,61 euro. Finantzatutako zenbatekoa: 10.069,50 euro. 100 euroko 47 kuota eta 8.426,63 euroko azken kuota. Interesak, guztira: 3.057,13 euro. Kredituaren kostua, guztira: 3.434,74 euro. Zor den zenbatekoa, guztira: 13.504,24 euro. Epeko prezioa, guztira: 19.834,74 euro. TIN: %8,25. UTB: %9,89. Frantziako amortizazio-sistema. Hyundai Finance-rekin finantzatua Cetelem Bankuaren bitartez 2022/11/30era arte. Iragarri honetan agertzen diren modeloak: i20 N Line 30. Urteurrena, i30 N Line 30. Urteurrena, KONA N Line 30. Urteurrena eta TUCSON N Line 30. Urteurrena. Hyundai Motor España SLU enpresak bere azken bezeroei eskaintzen dien 5 urteko kilometraje-mugarik gabeko merkataritza-bermea Hyundai sare ofizialak hasiera batean salduzako Hyundai ibilgailuei soilik aplikatu dakieke, zerbitzuko pasaportearen baldintzen arabera. Informazio gehiago, Hyundai kontzesionarioen sarean edo [www.hyundai.es](http://www.hyundai.es) webgunean.**



Arrasate Musikaleko ikasle batzuk, entsegu batean, artxiboko irudi batean. GOIENA

## Gabonen atarian, musika izango da protagonista

Kontzertuak emango dituzte Arrasate Musikaleko ikasleek eta musikariek datozen egunetan. Bihar, berriz, Txorbela Otxoteak Gabonetako kontzertua egingo du eta Gabon zaharrea kaleak alaituko dituzte. Kantu-jira ere izango da, martitzenean

### Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ARRASATE

Gabonak gainean dira, eta, horrekin batera, baita hainbat kultura eskaintza ere. Datozen egunetan, ordea, musika izango da protagonistetako bat.

Gaur hasi eta abenduaren 31ra arte, bost kontzertu egingo dituzte Arrasate Musikaleko kideek. Ikasleen Gabonetako kontzertua izango da lehen ekintza. Gaur egingo dute, 18:00etan, Kulturateko areto nagusian. Ostean, berriz, 20:00etan, hari-orkestrak emanaldia egingo du San Frantzisko elizan. Alabaina, bi saio horiez gainera, musikaz gozatzeko aukera gehiago ere izango dira.

Bihar, esate baterako, Arrasate Musikaleko kontzertuekin jarraituz, folk taldearen txanda

izango da. Bertan emango dute kontzertua, eguerdiko hamabietan, eta martitzenean biolin ikasleen txanda izango da. Arrasateko parrokiaren emango dute kontzertua, 20:00etan. Eta amaitzeko, Gabon zahar egunean, Arrasate Musikaleko Bandaren txanda izango da, 13:00etan, Amaia antzokian.

### Bihar, Txorbela Otxotea

Arrasate Musikaleko ikuskizunez gain, ordea, badira beste batzuk ere. Gabonetako kon-

### IKASLEEN, HARI-ORKESTRAKO KIDEEN ETA FOLK TALDEAREN KONTZERTUAK IZANGO DIRA ASTEBURUAN

tzertua egingo du Txorbela Otxoteak bihar, San Frantzisko elizan, 12:30ean. Gabon giroko abestiak abestuko dituztela azaldu dute taldekideek, eta Aita Madinaren urteurrena dela-eta, haren abesti batzuk ere kantatuko dituzte saioak iraun artean.

Gabon zahar arratsaldean ere herriko kaletan arituko dira kantuan, 18:30ean hasita.

### Baita kantu-jira ere

Baina herriko kaleak musikaz are gehiago alaitzeko asmoz, kantu-jira ere egingo dute martitzenean, hilaren 20an. Portaloi elkarteak antolatutako ekintza bat da, eta hain justu, Portaloiaren bertan hasiko dira kantuan bertaratuak; herriko kaleak zeharkatuko dituzte.

## Ofizioak eta umorea, hilaren 21eko bertso saioaren oinarriak

Lau bertsolari arituko dira bertsoan, eta Imanol Artola izango da gai jartzailea; hainbat gai ditu eskuartean

### A.R.K. ARRASATE

Oihane Perea, Andoni Egaña, Alaia Martin eta Amets Arzallus bertsolariak arituko dira bertsoan santamasetako bezperan Amaia antzokian. AED elkarteak antolatuta, hilaren 21ean egingo dute bertso-saioa, 19:30ean, eta Imanol Artola gai-jartzaileak aurreratu du ofizioak eta umorea izango direla nagusi.

Hori baita haren estiloa. "Horrelakoetan, ohikoenean, jendea une atsegin bat pasatzera joaten da, eta, orduan, saioaren oinarria, batez ere, ofizioek eta umoreak osatuko dute". Jakinarazi duenez, gai "pila bat" ditu esku artean, eta ez daki zehatz oraindik zer eramango duen saiora, baina argi ditu horietako batzuk: "AEDk antolatuta, hizkuntzaren eta kulturaren inguruko gairen bat izango da, baita sozialak ere". Are gehiago, nabarmendu du



Oihane Perea bertsolaria. GOIENA

herriari eta bailarari ere keinu bat egingo dietela.

Martin eta Arzallus, gainera, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean izango dira domekan, eta Artolak gaineratu du horrek ere "jokoa" eman dezakeela saioan.

## Antzerkia, disko festa eta otzarak, Ibai-arte elkartearen ekintzak

Ekintza ugari izango dira asteburuan, eta gaur egingo diete batzuei, Ibai-arte merkatarien elkarteak antolatuta.

Tiritantes antzerki-zirkuko kideek *Ulterior el viaje* ikuskizuna eskainiko dute 18:00etan, Biteri plazan. Kalejira bat egingo dute, eta emanaldian zehar protagonistek lagun izango dituzte fantasiatzko izakiak.

Horrez gain, disko festa antolatu dute *Dantzarako prest* lelopean, 19:00etatik 21:00etara, Herriko Plazan. Jakinarazi dute kantu guztiak euskaraz izango direla eta abesti sexistarik gabeko ekintza izango dela.

### Otarren banaketa

Areago, 20:00etan merkatarien elkarteak 50 otzara banatuko ditu leku berean. Sustrai fruta-dendak eginiko otarrak dira eta astelehenera arte izan zen parte hartzeko aukera.

**CENTRO ECUESTRE ZABOLAIN ZALDITEGIA**

Gora santamasak!

Gesalibar auzoa 36 • Arrasate • 627 83 15 55

**J. Ramón Otamendi HARATEGIA**

Ondo ospatu santamasak!

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

# Kontsumitzeko moduaz gogoeta egiteko unea

Aramaixo Bizirik taldeak antolatuta, energia berriztagarriak aplikatzeko alternatibak aztertu zituzten eguaztenean. Josebe Blanco, Alvaro Campos eta Iñigo Leza izan ziren hizlariak. Kultura etxea bete egin zen hitzaldia entzuteko

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Trantsizio energetikoari buruzko hitzaldiak interes handia piztu du herrian. Horren erakusle da eguaztenerako Aramaixo Bizirik taldeak antolatutako hitzaldia entzuteko bete egin zela kultura etxeko aretoa. Aramaixo Bizirik taldeko kide Beñat Arregik azaldu zuen badirela hilabete batzuk gaia lantzen dabilzala, eta, bide horretan, Itsaraz eta halako proiektuen aurrean beste alternatiba batzuk ikusarazi nahi dituztela. "Statkraft enpresak euren proiektua saldu zuen eta guk uste dugu errealitatea beste bat dela, eta mezu hori helarazi nahi diogu herriari", azaldu zuen, eta gehitu: "Guk ez dugu gure herrian proiektu hori egitea gura; hortaz, hainbat ekintza egingo ditugu... Asmoa da herri mailako asanblada bat egitea eta herritarren iritzia zein den jakitea". Beste urrats batzuk ere egin nahi dituzte euren zirkulua "herrira zabaltzeko".

Nabarmendu zuen eguaztene-ko hitzaldiak izan zuen harrera ikusita nabarmena dela jendea arduratzen duen gaia dela.

## "Muga gainditu egin da"

Alvaro Campos, EHUko Energiaren Departamentuko irakasle eta



Kultura etxeko aretoa beteta, eguaztenean. A.E.G.

ikerlaria; Josebe Blanco, base-rritarra; eta Iñigo Leza Arabako Mendiak Askeko partaidea izan ziren hizlariak. Camposek hartu zuen hitza lehenengo. Orain arteko sistema erregai fosiletan oinarritu izan dela azaldu zuen eta horrek sistema zentralizatua eta kontsumitzaile individualak eta pasiboak ekarri dituela gehitu zuen. "Baina sistema muga batzuetara iritsi da. 70eko hamarkadan gainditu genuen planetak duen berritze gaitasuna", zioen. "Erregimena aldatzeko garaia iritsi da; fluxu berrizta-

garrietan oinarritu behar dugu; horrek ekarriko du sistema deszentralizatzea, eta, gainera, kontsumitzaileak ekoitzi ere egingo du", nabarmendu zuen.

Camposen esanetan, hiriaren ardura izan beharko litzateke berriztagarriak integratzea; modu horretan parke egokituen alde eginez, megaparkeen aurrean.


## Landa eremuaren funtzioa

Josebe Blancok landa eremuaren alde egin zuen: "Dirua egiteko eta ustiatzeko tokiak dira landa eremuak gaur egun; eta non

geratzen da berezko funtzioa? Non geratu da elikadura?", eta nabarmendu zuen: "Nire iritziz, janaria sortzeko lurrak, abeltzaintza, zerealak, baratzeak... mimatu eta zaindu egin beharko genituzke. Geure buruari ezarri beharko genioke ezin dugula industrializatu, ezin dugula porlanez estali hektarea bakar bat ere gehiago. Kontsumitzaile moduan kontsumo eredu gainean hausnartu beharko genuke. Oinarria oso ahaztuta dugu, baina, hasiko bagina platerean zer daukagun ikusten eta jaki bakoitzaren bidean arakatzen, ikusiko genuke, agian, gure bizitzarako nahiko ez genituzkeen gauza asko".

## Eoliken ondorioak

Iñigo Lezak horrelako parke eoliko bat jartzeak ekarriko litzuzkeen ondorioak azaldu zituen: "Saltzen digite inpakturik gabeko proiektu bezala, baina inpaktu handia dute; milaka hegazti hiltzen dira, inpaktu paisajistikoa oso handia da. Aramaioaren kasuan, hegoaldean egongo denez, neguan eguzkia tratatuta egongo litzateke, eta efektu estroboskopikoa deitzen dena sortu, gauze argia izango lukete errotek, zarata handia sortuko lukete, batez ere gauze asko entzungo litzatekeena... eta beste hainbat inpaktu". Sistema bera aldatzea da Lezak proposatzen duena: "Guri eskatzen dizkigute alternatibak, eta alternatiba guztion artean sortu behar dugu. Baina ez dago alternatibarik ez badugu sistema aldatzen. Jaitsi egin behar dugu gure kontsumoa eta aldatu egin behar dugu gure bizimodua; baina horrek ez du esan nahi txarragoa izango denik. Hobe e izan daiteke".



A.E.G.

## "Behar dugu sistemaren aldaketa"

**ALVARO CAMPOS** EHUko IRAKASLE ETA IKERLARIA

Eguazteneko hitzaldian parte hartu zuen ikerlariak. **Orain arteko sistemarekin jarraitzea da parke eoliken proposamena?**

Kontuan hartu behar dugu erregai fosilak uztea ez dela teknologia aldatzea bakarrik; sistema moldatu behar dugu energia berriztagarrien ezaugarrietara. Egiten ari direna da ordezkapen bat, baina horren atzean dagoena modu berean mantentzen da; alegia, sistemaren aldaketa behar dugu.

**Zenbat energia sortuko litzateke?**

Haize-errota bakoitzak 6 megawatt sortuko ditu; energia asko da hori. Zortzi eraiki nahi dituzte, baina ideia ez da bertako beharrak betetzea, baizik eta sare handi batean sartzea merkaturatzea.

## 'Araba Market' txekeekin deskontuarekin erosteko aukera

Landa-guneetako negozioei bultzada emateko ekimena da Arabako Foru Aldundiak martxan jarri duena

**A.E.G.** ARAMAIO

Foru Aldundiak +8 Araba Market txeke ekimena jarri du martxan. Arabako landa-guneetako negozioei bultzada emateko ekimena da. Aukera ematen du erosketak %40ko deskon-

tuarekin egiteko; hau da, 12 euro ordainduta 20 euroko balioa duen txekea eskura daiteke, horiek, ondoren, landa-guneetako negozioetan gastatzeko. Dagoeneko salgai daude; online erosi behar dira. Horiek eros-

teko azken eguna abenduaren 30a izango da; erabiltzeko azken eguna, aldiz, 2023ko urtarrilaren 15a.

18 urtetik gorakoek izango dute txekeak erosteko aukera; pertsona bakoitzak, gehienez, hamar erosi ditzake. Nortasun agiri zenbakia sartu beharko da erosketari egiterakoan. Aramaion leku hauetan gastatu daitezke: Kintelena, Arbel kooperatiba, Iturrieta sagardotegia, Errez kooperatiba, Atxeta Gazta eta Hontza Extrem.

## 'anSelma & Luisa' antzezlanaren egingo dute bihar, 19:00etan

Itur Zuri emakume elkarteak antolatuta, *anSelma & Luisa* antzezlanaren egingo dute zapatuan kultura etxean. Telon Negro antzerki konpainiaren lana da eta Laura Carvajal da zuzendaria. Bi emakumeren istorioa kontatzen du lanak; bizi dituzten gorabeherak eta emozioak izango dira lanaren ardatza. 90 minutu iraungo du antzezlanak.

## Alex Mendikutek 2021ean egindako argazkien proiektua

Alex Mendikutek dagoeneko urteroko hitzordu bilakatu den argazki proiektua egingo du kultura etxean. Gaur izango da, barikua, 18:30ean. 2021ean egindako argazkiak izango dira proiektutako dituenak; aramaioarrek agertuko dira argazkietan, herrian antolatutako hainbat ekitaldi eta jardueratan parte hartzen.

# Gabonetan ere tokikoa bultzatzea helburu

Dagoeneko abian den Gabonetako kanpainaren berri eman dute udal ordezkariak, merkatariek eta herriko artisauek, ekoizle eta eragileek; nabarmentzekoen artean daude asteburuko neguko azoka eta Aretxartek banatuko dituen opariak

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Neguko azokak, merkatariek bezeroei egindako eskaintzek, Udalak antolatutako ekitaldiek eta sasoiko beste hainbat kontuk bat egingo dute datozen egunetan. Gabonetako kanpainaren berri emateko elkartutakoek tokikoari eman gura izan zioten balioa joan den martitzenean. Unai Elkoro alkateak, esaterako, herritarrek bertako produktuak eta zerbitzuak kontsumitzera animatu zituen, tokiko merkataritza eta ostalaritza ekonomia-  
ren "eragile garrantzitsuak" direla iritzita: "Herri baten bizitzan baliabide baliotsua da; azken urteetan bereziki gaizki pasatu du, eta, hortaz, lagundu egin behar diogu".

Hain zuzen ere, aurtengo iragarkiak herrian kontsumitzera animatzen ditu, *Txikiaren alde herria dantzan jarriko dugu* leloarekin. Aretxarte merkatarien elkartearen enkarguz AZ Visual Media ekoiztetxeak egin du, Udalaren laguntza ekonomikoarekin, eta Kepa Errasti aktore aretxabaletarra protagonista izan da herritarrekin batera. "Jamie Cullum musikariaren abesti bati *Herrian dantzan jarriko dugu* leloa ondo zetorkiola iruditzen zitzaidan, baina horrek funtzionatuko zuen herria dan-



Udal ordezkariak, merkatariek, artisauak, ekoizleak eta hainbat eragile. M. ALTUBE

tzan agertuz gero bideoklipean. Astebete lehenago dei egin genuen eta oso eskertuta gaude plazara etorritako herritar guztiei, asko-asko izan zirelako", azaldu zuen Errastik.

## Neguko azoka aste bukaeran

Urtetik urtera errotzen joan da neguko azoka eta aurten zor-tzigarrenez dator. Bihar, zapatua, eta domekan egingo da, goizez 11:00etatik 15:00etara, Durana eta Mitarte kaleetan. Herriko merkatariek, artisauak eta ekoizleak egingo dute bat

han eta guztira 28 postu izango dira. Era askotako produktuak eta elikagaiak izango dituzte; besteak beste, larrua, zilarra, pintura, ilerako osagarriak, arropa, gaztak, eztiak, hestebe-teak, gozogintza... UDA, Gu Haziak Gara elkarteak eta Hiruatx gobernuz kanpoko erakundea ere han izango dira. Azken horrek bidezko merkataritzako produktuak, bigarren eskuko liburu-sorta bat eta Ghanako oiha koloretsuekin egindako Khabom belarritako ederrak izango ditu. Horiez gain, hiru

idazle aretxabaletarrek ere izango dute liburuak erakusteko txokoa.

## Erakuslehoi lehiaketa abian da

Eguaztenaz geroztik abian da erakuslehoi lehiaketa. Lehen sariaren irabazlea aditu batek erabakiko du -300 euroko bonua- eta bigarrena -150 euroko bonua- herritarrek hautatuko dute. Botoa emateko kutxa Arkupen jarriko dute eta online ere eman ahal izango da; baita saltokieta-ko erakuslehoetan ipinitako QR bidez ere. Boto-emaleen artean 50 euroko bonu bat zozkatuko da. Irabazleen berri hilaren 28an emango dute.

## Opariak Aretxarteren eskutik

Aretxartek ere gogoan izango ditu bezeroak Gabon egunetan eta opari asko iragarri ditu, beste behin. Zigiluen kanpainarekin dihardu, batetik. "Herriko komertzioetako sei zigilu ezberdin batu behar dira eta horiek betetakoan hainbat sariaren zozketan parte hartzeko aukera izango dute", azaldu zuen Kristina Hernandezek, Aretxarteko presidentek. Gainera, poltsak eta 2023ko egutegiak oparitutako dituzte, datorren astetik.

## Gabonetako ekitaldiak

Gabon sasoiko ekitaldiak ere iragarri zituzten. Gaur, egubakoitza, buzkantz dastaketa izango da Herriko Plazan, UDAREN eskutik (18:30). Martitzenean, osterak, Leizarra musika eskolaren Gabonetako kontzertua, Arkupen (18:00).

Ohiko ekitaldiak ere itzuliko dira, mugarik gabe: Olentzero eta Mari Domingi abenduaren 24an, Bizarzurri eta San Silvestre lasterketa hilaren 31n; eta Errege Magoak urtarrilean.

## Neguko azokan 28 postu

### Artisauak

- Mari Luz Osorio.
- Maria Zubillaga.
- Izaro Sanchez.
- Lara Gonzalez.
- Lara Garcia.
- Iban Urreta.
- Itsaso Aldai.
- Anne Roessel.
- Iker Gabilondo.
- Amaia Otadui.

### Ekoizleak

- Gorka Lete
- Ariane Unanue.
- Lur Pagoaga.
- Ainara Abasolo.

### Merkatariek

- Belar Meta.
- Kiloka.
- Tak zapata-denda.
- Hankabeltz.
- Almila Shop.
- Amaia Ume Denda.
- Haurrak.
- Titare.

### Elkarteak

- Gu Haziak Gara.
- Hiruatx.
- UDA.

### Idazleak

- David Agirre.
- Gemma Iñiguez.
- Judit Ruiz de Munain.

Durana eta Mitarte kaleetan izango dira postuak, zapatuan eta domekan -11:00-15:00-.

## Erregularizazioaren aldeko kanpainari bukaera domekan

Pertsona Migratzailearen Nazioarteko Eguna da abenduaren 18an eta azken sinadurak batuko dituzte

**M.A.** ARETXABALETA

Egoera irregularrean bizi diren migratzaileen aldeko kanpainari bukaera emango diote domekan; hain zuzen ere, Pertsona Migratzailearen Nazioarteko Egunean. Debagoieneko Perto-

na Migratuen Elkartek deitu du ekitaldia Aretxabaletan, Durana kalean, 12:00etan. Jai giroan amaitzeko, Cristian Vergara abeslari perutarra izango da, eta poesia errezitaldia ere egongo da. "Mikro irekiaren tartean

edonork bota ahal izango du hausnarketa edo iritzia; betiere, migrazioa gai hartuta", adierazi du Paloma Martinezek.

Sinadurak batuta egin gura den eskaera, hau da, 500.000 pertsonaren ezohiko erregularizazioa, Espainiako Kongresuan aurkeztuko da: "Pertsonen mugimendu askea giza eskubide bat dela aldarrikatu gura da, eta ez dela betetzen". Egunean bertan ere jasoko dituzte sinadurak: "Aretxabaletan babes handia izan dugu eta hori hunkigarria da".

Jou Díaz  
Karakina  
Durana 15  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

Mobiliario  
ARENZA  
ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA  
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



Eguaztenean egindako elkarretaratzean hainbat lagun lokalaren aurrean. M. ALTUBE

# Gazteentzako espazio baten eskaera, kalean

"Gaztetxe baten beharra" agerian utzi gura izan dute Atxabaltako Gazte Mugimenduaren baitako gazteek eta hori lortzeko saiakera egin zuten aste bukaeran, Eroski zaharreko lokalean sartuta; horrek, baina, ez du aurrera egin, haren ateak hormatu egin zituztelako

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Gaztetxe erabilera emateko asmotan sartu ziren hainbat gazte Mitarte kalean dagoen Eroski zaharraren lokalean zapatuan, baina hiru egun geroago hormatu egin zituzten hango bi ate, eta gazteen asmoak zapuztu. Hori salatzeke eta "gaztetxe baten beharra" aldarrikatzeko, elkarretaratzea egin zuten eguaztenean.

**Aspaldiko eskaera**

Gaztetxe eskaera ez da izan egun batetik bestera agertu den kontua, Atxabalta Gazte Mugimenduko kideek onartu dutenez: "Azken bi hamarkadetan hainbat gazte-belaunaldi saiatu dira Aretxabaletan gaztetxe bat lortzen leku batean edo bestean. Guk landu dugun aukera Eroski egondako lokal hori okupatzearena izan da, jabea putre-funts

bat izanik zilegi deritzoguna". Herriko eragile bakoitzak duela espazio bat diote -Basotxo, UDA, Loramendi, Kuartela...-, eta galdetzen dute: "Gazteok ere ez ote dugu merezi espaziorik?"

Lokalean sartu ondorengo egunak "ilusio handiz" bizi izan zituzten: "Asanblada bat egin genuen, orain artekoaren balorazioa egin, behin espazioa eza gutzen genuela barruan egin daitezkeen proiektuei buruzko ideiak bota eta hurrengo hila-beteetako kronograma bat egiteko. Oso ideia politik atera ziren: *txapuzak* egiteko tailer bat jartzea, umeentzako txoko bat egitea, eszenatoki bat, irratiaio bat...". Zorion eta animo mezu asko jaso zituztela gaineratu dute: "Eta aurrerantzean ere gurekin beharko ditugu herritarrak".

Ilusio hori, baina, laster galarazi zieten: "Espazioa erositako duela Stocksanden SL putrefuntsak guk uste baino azkarrago eta gogorrago erreakzionatu du, sarraila guztiak aldatuz eta lokalak dituen hiru ateetako bi zementuz eta adreiluz hormatuz. Azpimarratzen dugu jokabide horrek erakusten duela espazioa hutsik izatea dela putrefuntsaren helburua, etorkizunean saldu edo alokairuan jarri ahal izateko".

**Abenduaren 26an mobilizazioa**

Dena den, ez dute gelditu egoteko asmorik eta mobilizazioa iragarri dute abenduaren 26rako: "Herriar guztiei eta babesaren eman nahi dugun orori dei egiten diegu. Lehenago edo geroago lortuko dugu gaztetxe bat".

## Iker Aizkorberen argazkiak ikusgai daude Arkupen

Euskal Herriko paisaia eta natura argazkiekin osatutako erakusketa du ikusgai Arkupen Iker Aizkorbe aretxabaletarrak. Lehenengoz jarri ditu jendarean, eta oso pozik agertu da: "Norberaren herrian horrelako errekonozimendu bat jasotzea eta jendearen interesa ikustea pozgarria da; harro sentitzen naiz horretaz".



Iker Aizkorbe, Arkupen. ANABEL DOMINGUEZ

## Ekintza-sorta zabala nerabeendako gaztelekuan

Neguko oporraldiei begira, eskaintza-sorta zabala antolatu du Atxagazte gaztelekuak nerabeentzat. Abenduaren 27an hasiko dira, krema tailerrarekin, eta hurrengo egunean Bedoña auzora joango dira goiz-pasa. Abenduaren 29an, sukaldari-lanetan jardungo dute, Gazte Txef lehia-ketaren baitan, eta 30ean, Iruñera joango dira ohe elastikoetan

*salting*-ean jardutera. Urtarri-leko bi ekintzak gaztelekuan bertan egingo dituzte: 3an, bingomusikatua; eta 4an, zinema.

Ekintzotan parte hartzeko aurretik izena ematea gomendatu dute arduradunek; Iruñera joateko, esaterako, ezinbestekoa, da gurasoen baimena behar delako eta 25 euro ordaindu. Horretarako azken eguna abenduaren 23a da, eta, gaztelekura bertara joanda, Instagram bidez *@atxagazte* edo telefonoz deituta *-688 84 38 15-* eman daiteke.

## 'Capoiera familian' saioa egingo du Jaikik gaur kuartelean

Dantza, arte martzialak, akrobaziak eta gorputz espresioa batzen dituen eta brasildar jatorria duen capoeira ezagutzeko aukera izango dute hainbat familiak gaur, egubakoitza. Jaiki elkarteak antolatuta, umeek, gaztetxoek zein helduek jardungo dute lanean Igor Ezpeleta irakasle eskoriatzarraren aginduetara kuartelean (17:30-19:00).

## Gabonetako karate txapelketa jokatu da etzi kiroldegian

Gipuzkoako eskola kirolaren baitako Gabonetako karate txapelketa jokatu da Ibarra kiroldegian domekan (10:00). Benjamin, alebin eta infantil mailako kirolariek hartuko dute parte; guztira, 150 bat gaztetxok. Horien artean, UDako zortzi karatekak jardungo dute nor baino nor gehiago; hainbatentzat lehen txapelketa izango da.



**Durana**  
Hortz Klinika

**ORTODONTZIA IKUSEZINA**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

# Zero kilometroko azokan, bertako artisauen lanak

Eskoriatzako zortzi artisauren izango dira zapatu honetan Ibarraundi museoa, haiek ekoiztutako produktuak eskaintzen, zero kilometroko azokan. Bigarren urtez jarraian egiten den azoka da; iaz izan zuen arrakastaren harira, berriro egitea erabaki dute

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** Astelehena ezkerro, Garaguneko kideek egindako artelanaren erakusketa dago ikusgai Ibarraundi museoa. Guztira, 55 artelan batzen ditu erakusketak, eta tartean dira Bittor Arrieta Leibar eskoriatzarraren lanak. Artelan horiek hainbat teknika eta material erabiliz egindakoak dira, eta herri batzuetan egon dira ikusgai. Ibarraundin egon diren tartean, ikastetxeetako taldeentzako bisita gidatuak antolatu dituzte eta zuzenean ezagutu ahal izan dituzte zein izan den emaitzetara heltzeko prozesua, artista bakoitzaren estiloa eta abar. Bihar izango da erakusketa ikusteko azken eguna.



Iaz egindako zero kilometroko azoka Ibarraundi museoa. GOIENA

## Bertakoari balioa ematea

Horrekin batera, Garaguneko erakusketaz batera, zero kilometroko artisauren azoka izango da Ibarraundi museoa. Aurten, bigarren urtez egingo da, eta herriko artisauek produktu bereziak eta eskuz egindakoak jarriko dituzte salgai eta erakusgai. "Zortzi postu izango dira Ibarraundi museoa izango den zero kilometroko azokan. Iaz egin genuen lehenengo aldiz, eta, arrakasta izan zuenez, egitasmoa berriro antolatzea erabaki dugu. Ea zer-nolako harre-

## ZORTZI ERAKUSTOKI JARRIKO DITUZTE ZAPATU HONETAN IBARRAUNDI MUSEOAN

ra izaten duen", adierazi du Arantxa Unzueta, Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak.

### Iazko artisauren berak

Ana Jara, Lourdes Martinez, Oscar Garcia, Jose Angel Petra-

landa, Patricia Ruiz, Maitane Axpe, Kaosa taldeko Kristina, Jasone eta Ana eta Buztinate buztintza eta zeramika taldeko kideen izenean Alvaro Garcia izango dira museora produktuak eramango dituzten artisauren berak. Besteak beste, honako produktu hauek izango dira bertan: zurezko erlojuak, bas-toiak, poltsak eta koleteroak, larruzko gauzak, xaboiak, xanpuak, ukenduak, artilezko lanak, kuartozko olioak, kortseak, zeramika, bisuteria eta askoz gehiago.

## 2023ko aurrekontuaren atarian, EH Bilduren emendakinak

Abenduaren 20ko ohiko osoko bilkuran berba izango duten aurrekontuari ekarpenak egin dizkiote

### I.B. ESKORIATZA

2023ra begira Udala Gobernuaren aurrekontuaren proposamena jasota, zenbait ekarpen egin nahi dizkio Eskoriatzako EH Bilduk; besteak beste, trantsizio energetiko sozial eta inklusiboaren datuak dituenak.

### Proposatutako aldaketak

Oposizioaren kideen esanetan, energiaren kostua, gutxienez, hirukoiztu egingo dela ikusita, epe motzean familiei laguntza emateko eskaera egiten dute: "Gasaren fakturak jaisteko, etxeetan energia aurrezteko moduak identifikatu nahi ditugu. Bestetik, identifikatutakoak oinarri, hobekuntzak exekutatzeko laguntzak eskaini nahiko genituzke: 30.000 euro. Epe ertainera, energia autokontsumo taldeak edota energia komunitateak sustatzeko programa

indartzea ere proposatzen dugu: 15.000 euro".

Oinez eta patinete edo bizikleta bidezko mugikortasun jasangarrian Europako beste herriekin alderatuz 20-30 urte atzeratuta gabiltzala dio EH Bilduk. Hori horrela, "autoari eman zaion lehenetsunari buelta eman behar zaio, eta bidegorri-sare seguruagoak garatu: 30.000 euro. Eta, mugikortasunarekin jarraituz, Udaleko politikariak inguruko herri eta hirietara autoz joaten badira, ez ordaintzea proposatzen dugu. Eredu izan behar dugu eta garraio publikoaren erabilera sustatu".

Azkenik, herritarren parte hartze aktiboa sustatu nahi lukete: "Prozesu parte-hartzaile baten bidez herrirako proiektuak proposatzeko eta aukeratzeko 15.000 euroko partida esleitzea proposatzen dugu".

## OHARRAK

### Antzerkia: 'Tomaxen abenturak'

Domekan, 17:00etan, Zaldibar antzokian izango da *Tomaxen abenturak*: *Adi, grabatzen ekin* haurrentzako antzerkia.

### Erretiratuentzako txistor-jana

Urteroko ekintzari eutsiz, abenduaren 22an 18:00etan izango da Olazar Erretiratuaren Elkartearen kideentzat txistor-jana, kultura etxean.

### Kontzertua: Anje Duhalde

Abenduaren 23an izango da Anje Duhalde musikariaren kontzertua, Zaldibar antzokian. Sarrerak, alde aurretik, bost eurotan kiroldegian eta *bibe.me* webgunean.



**JOSE ANGEL PETRALANDA**  
ZUREZKO ORDULARIAK

"Tamaina askotariko zurezko 15-20 erloju eramango ditut Ibarraundira; eta guztiak ere egur birziklatuarekin egindakoak dira".



**KRISTINA CARDENAL**  
ARTILEA

"Kaosa talde bezala goaz, eta xaboiak, xanpuak... eramango ditugu. Gainera, artilearekin zer egiten dugun erakusteko tartea ere hartuko dugu".



**LOURDES MARTINEZ**  
KORTSEAK

"Kortseak, makrameko pieza dekoratiboak, *beerfoot* zapatak eta negurako unisex txapelak eramango ditut; azken horiek, produktu izar gisa".







Eskoriatzako Udal Gobernuako kideak talde argazkian. ESKORIATZAKO UDALA

## Etorkizunerako apustua, asmo handiko proiektuekin

'Eskoriatzak merezi du, Etorkizuneko Eskoriatza pentsatzen' lelopean komunikazio kanpaina abiatu du Udal Gobernuak, herrian egin nahi dituen proiektu nagusien berri emateko. Horretarako, etxez etxe banatu dute informazioa aste honetan

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Bi agintaldi jarraian daramatza EAJk Eskoriatzako Udala kudeatzen, eta geldiduna egin gura izan dute, etorkizunera begira herriaren gainean hausnartzeko. Hori horrela, zenbait proiektu proposamenen berri eman dute.

"Proiektuetako batzuk gauzatzeko ari dira, baina, oro har, inbertsio handiak behar dituzte. Beraz, agintaldi bat baino gehiago beharko dira proiektuak gauzatzeko, beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan aritzeaz gain, hala nola Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Eskoriatzako Elizateen Elkartarekin, besteak beste". Zenbait proiektu garapen-erlotan dute eragina; besteak beste, energia berriztagarriko trantsizioan eta Udalak herri-

arren zerbitzura jartzen dituen instalazio askoren berritzean.

### Proposatutako proiektuak

Kiroldegian, Luis Ezeizan eta beste eraikin publiko batzuetan geotermia sistema eta berokuntza sare berria instalatzeko proiektua ezarri nahi dute, hiru helburuarekin: "Lehenik eta behin, jasangarriak ez diren energia-iturrietatik mendekotasuna murriztea; bigarrenik, gure energia-faktura murriztea. Horri esker, beste proiektu batzuetara bideratu ahal izango ditugu baliabideak; eta, azkenik, eraikin horietan zerbitzuaren erosotasuna eta kalitatea handitzea". Gainera, Luis Ezeiza ingurua berrurbanizatu egin nahi dute: "Erabilera askotariko eremu baten balioa nabarmentzea dakar

eskoriatzar askorentzat. Ibaiaren pasealekua konpondu egingo da, eta irisgarritasuna hobetu, oro har". Udal pilotalekua erabat berritu nahi dute, erabilera askotariko espazio publiko bihurtzeko asmoz: "Kirol-zentro gisa erabiltzeko prestazioak hobetuz eta erosotasun-maila handiago herriko beharretarako jarduerak ahalbideratuz". Musika eskola berria egin nahiko luke, instalazio duinekin eta espazio egokiarekin, baita Manuel Muñoz kiroldegiko kanpoko igerileku berria egin ere; ur-jokoaren instalazio batekin batera ahal izango litzatekeena.

Herritarrek hala eskatutako proposamenen berri ere eman dute; horiek dira skate park berria egitea eta muskulazio-gimnasio berria egitea.

## Hitzarmena sinatu dute

Eskoriatza Kirol Elkarteak eta Barymont Taldea akordio batera iritsi dira klubaren, herriaren eta Debagoienaren mesedetan. "Finantza-hezkuntza interesdun guztiei hurbiltzeko konpromisoa dugu, eta, akordio honi esker, bailarako biztanleek gure bizitzetan hain garrantzitsua den kontzeptu hori ezagutuko dute", azaldu du Iosu Urzelai, Barymonteko kideak.



IOSU URZELAI

## LEINTZ GATZAGA | 17



Dani Sanchez abeslaria, Inkernu tabernan, mikroa publikoari zuzentzen. GOIENA

## "Taldea aktiboki utzi arren, ez da agur bat, gero arte baizik"

Aretxabaletako eta Gatzagako musikariek osatutako Criminal Remains taldeak musika jarduna utziko du

**Imanol Beloki Unamuno** GATZAGA Aretxabaletako eta Gatzagako kideek osatutako punk-rock taldea da Criminal Remains. 2013an sortu zuten, Xabi Zugasti, Dani Sanchez, Ibai Iregi, Jose Ayudarte eta Beñat Agirreurreta musikariek osatutako taldea da. Azken bi hauek, gatzagarrak. Urte dezentean aritu ziren elkarrekin eta azken urteetan Agirreurretaren ordez Xabi Nuñez aritu da.

### Azkena, urtarrilaren 14ean

Talde gisa ez dute jarraituko, baina ez dute baztertzen emandak diren bat edo beste egitea.

Hori horrela, azkena urtarrilaren egingo dute, Arrasaten. "Duela hilabete batzuk hartu genuen taldea uzteko erabakia. Motibazio falta izan da, agian; dena den, grabatu ditugu kanta berriak eta horiek Youtube sare sozialera igo ditugu. Guztira, hamalau kantu ditugu; zortzi zaharrak dira, *Walking on the same old road* diskokoak. Lan horretan, gainera, Neallta Fola taldearen bertsio bat dugu. Eta, gero, grabatu berri ditugun sei kanta berriak. Hauek Asel Errasti aretxabaletarrarekin grabatu ditugu".



JUAN CARLOS BELOKI

## Gatzagarrak Santa Lutzia ferian

Martitzenean egin zuten Zumarraga eta Urretxuko Santa Lutzia feria, eta, bertan izan ziren ganadu, elikagai, produktu eta bestelakoren artean, gatzagarren presentzia ere sumatu zen. Izan ere, metal-lanak egiten dituen Iker Gabilondo gatzagarra han izan zen burdina, kobrea, brontzea, latona, zilarra eta abar lantzen.



Herritarrak elikagaien atzean dagoenaz hausnartzen. MAIDER ARREGI

## Kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko zubiak

Agroekologiaren eta elikaduraren sentsibilizazio jardunaldiei amaiera eman diete antzuolarrek. Oларanen merienda-solasaldia egin dute, kontsumitzen dituzten elikagaien atzean zer dagoen hausnartzeko eta alternatibak badaudela ikusarazteko

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Tokiko elikadura sarean zikloak ahalik eta gertuen ixteko saiakeran, etxalde txiki eta askotarikoan aldeko apustua egin dute Antzuolako Udalak, EH Kolektiboak eta Landartek. Hala, agroekologiaren eta elikaduraren sentsibilizazio jardunaldiei amaiera borobila emateko, norberaren elikadura kontsumo

ohituren inguruko hausnarketa praktikoa egin dute Oларanen. "Herritarrekin gure eguneroko elikadura ohituren inguruan hausnarketa praktikoa egin dugu. Hau da, zer bazkaltzen dugun, zer gosaltzen dugun, zer dagoen egunero jaten dugun elikagai horren atzean, nondik datorren eta erosketak egiteko orduan zein irizpide kontuan

hartzen ditugun aztertu ditugu jolas-merienda baten bitartez", azaldu du Aintzira Oñederrak, EH Kolektiboko eragileak.

Era berean, ekologikotik haratagoko hausnarketa ere egin dute, eta etxaldea gertukoa izatea eta inguruko herrietan produktuak saltzearen nahiz ekoizle-kontsumitzaile sarea osatzearen garrantzia jardun

## Desfibriladore berri bi

Bi desfibriladore berri jarri dituzte herriko bi lekutan: bat Antiguako autobus markesina zaharrean eta bestea udal gimnasioaren kanpoaldean. Hori horrela, formakuntza-saioa jaso dute jada hainbat elkartetan: Aiaitui Elkartek, Arrolak, Eguneko Zentroak, Herri Eskolak, Landatxopek, Oinarinek eta Olalde. Gainerako taldeek beste saio bat izango dute.




ANTZUOLAKO UDALA

## Zein da solasaldiaren asmoa?



**AINTZIRA OÑEDERRA** EH KOLEKTIBOKO ERAGILEA

"Merienda-jolasaren bitartez bakoitzaren ohiturak zeintzuk diren hausnartu nahi izan dugu. Ondoren, ikustea ingurumenarekiko, ekonomiarekiko eta gizartearekiko zein eragin duten elikagaiak, eta alternatibak hausnartzea ere bada asmoa".



**INTZA BARANDIARAN** EH KOLEKTIBOKO DINAMIZATZAILEA

"Presaka bizi gara eta toki bakar batera joaten gara erosketak egitera. Baina kontziente izan behar dugu geroz eta aukera gehiago ditugula: azokako produktuak eta kontsumo elkarteak, adibidez. Xedea da ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko zubiari balioa ematea".

dute: "Tokiko baliabideak erabiltzea garrantzitsua da. Esaterako, gure abeltzain eta nekazariak Ameriketatik datorren soja eta antzeko produktuak ekiditen dituzte. Ekologikoa denaren etiketa hutsetik haragoko hausnarketa egin behar dugu eta bestelako etiketak dituztenak bilatu; proiektu bizigarrien alde egin behar dugu".

### Elikadura burujabetza

Horiek horrela, autonomia irabaztea ezinbestekoa dutela ekoizleek adierazi dute. Horretarako, baina, ekologikoa eta gertukoa izatea ezinbestekoa dela azpimarratu dute EH Kolektiboko kideek: "Ekoizpen handietatik ihes egitea eta nekazale industriatik aldentzea nahitaezkoa da; proiektuaren erdigunean nekazarien lana eta bizimodua jarri behar da.

Etxalde batzuek ahalegina egin dute eta horri balioa ematen saiatzen gara EH Kolektibotik. Ahalegin hori nabarmentzeko ziguilua daude, adibidez".

Bestetik, kontsumitzaile bezala norbanakook dugun ahalmena ere izan dute berbagai: "Kontsumitzaileok daukagu zeresana, eta ekoizleekin zubiak eraikitzeak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Kontsumitzaileen hautuari balioa ematea, alegia".

Aipatutako gai horiek sasoiko eta gertuko etxaldearen produktuak lagun zituztela jardun zuten.

**EKOLOGIKOTIK HARATAGO, NEKAZARIEN LANA ETA BIZIMODUA JARRI NAHI DA ERDIGUNEAN**

## OHARRAK

### San Esteban krosa

Abenduaren 26an egingo da lasterketa. Txikienak 17:00etan abiatuko dira, plazatik. Helduak, berriz, 18:00etan hasiko dira. Izena egunean bertan eman daiteke.

### Jakoba Errekondo

*Zu non, han DA!* ekimenaren baitan, Itzar liburu dendan *Ilargia eta Landareak. 2023 urteko lanen agenda* liburuaren aurkezpena eta solasaldia egingo du.

### Gabonetako kontzertua

Musika eskolaren Gabonetako kontzertua abenduaren 19an izango da, astelehena, 18:30ean, Torresoroan.



Olarango erakusketa aretoan jarritako erakusketa. IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ

# Mendizaletasunaren ibilbidea ikusgai dago

'Mendian gora' erakusketa zabalik dago gaurtik domekara bitartean; datorren asteburuan ere izango da bisitatzeko aukera Olaranen. Euskal mendizaletasunaren etorkizuna eta iragana ditu oinarri hogeitaz panelak osatutako erakusketak

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Arrolaren 50. urteurreneko ospakizunei amaiera emateko, etorkizuna eta iragana izango dira protagonista *Mendian gora* erakusketaren bitartez. Emmoak (Euskal Mendizaletasunaren Museoa) euskal mendizaletasunaren historia jasotzen duten panelen erakusketa ibiltaria dauka, eta hori bera izango da, besteak beste, ikusgai Olarango aretoan. "Euskal mendizaletasuna noiz sortu zen eta zein bilakaera izan duen kronologikoki jasotzen duten panelak izango dira ikusgai. XIX. mendetik XX. mendera bitarteko mugarrak eta ekintza nagusiak aipatzen dira bertan, alegia. Euskal mendizaletasuna sustatzeko aitzindariak izan diren erakundeak eta pertsonak ere azaltzen dira bertan", kontatu du Arrolako kide Iñigo Ramirez de Okarizek.

Hain zuzen, euskaldunen Everesteko lehen igoera historikoa ere azaltzen da erakusketan.

"Tximist-ekoa izan bazen ere lehen Everesteko euskal espedizioa, Martin Zabaletak egin zuen lehen igoera, eta hori ere aipatzen da erakusketan. Bestalde, eskia, eskalada eta modan dagoen mendi-lasterketak ere protagonista dira".

Erakusketak, baina, bigarren zatia ere badu, eta Arrolaren 50 urteak jasotzen dira. "Bideo-muntaia bidez, Arrolaren ibilbidea argazkiz zein irudiz laburtzen duen hamabost minutuko ikus-entzunezkoa izango da ikusgai. Horrekin batera, elkarteren oroigarriak ere jarriko ditugu erakusgai".

Erakusketa ikusgai izango da gaurtik domekara, baita datorren

**URTEKO AZKEN MENDI IRTEERA AITZURIRA EGINGO DU ARROLAK, BIHAR; AUTOBUSA JARRI DUTE**

asteburuan ere, 18:00etatik 20:00etara bitartean, Olaranen.

## Etorkizunari begira

"Geroa" dute erronka orain, eta "zer gertatuko den" dute galdera-ikur nagusi elkarteek. Iñigo Ramirez de Okarizek aitortu du badutela elkarteek, oro har, transmisioarekiko kezka. "Hartu-emanen jarrita eta berba eginda, elkarteok elkarrekin, ditugun kezkei erantzuten saiatu gara". Horixe izan zuten atzoko solasaldiaren muina Gipuzkoako Federazioak eta bailarako elkarteek.

## Urteko azkena

"Urte potentea izan da, eta ekintza sinboliko asko egin ditugu bidelagun apartekin", nabarmendu du Ramirez de Okarizek. Hala, 50. urteurreneko azken irteera Aitzurira egingo dute, bihar, eta autobusa jarriko du Arrolak. Joan nahi dutenek [arrolamt@gmail.com](mailto:arrolamt@gmail.com) helbidera mezua idatzi dezakete.



IMANOL SORIANO

## Askotariko motorrak ikusgai

Antzuolako Irain Moto Kirol Klubeko kideek lehenengoz atera dituzte euren motorrak Herriko Plazara, herritarrek bertatik bertara ikusi ditzaten. Mota askotako motorrak izan dira bertan ikusgai; gustu ororendako modukoak, alegia: motor berri-berriak, klasikoak, errepidean aritzekoak eta mendikoak, besteak beste.



LANDATXOPE

## Gasteizen egun-pasa

Abenduaren 1ean, Landatxopeko erretiratu talde batek Gasteizko Santa Maria katedral zaharra bisitatu zuen. "43 lagun joan ginen eta oso interesgarria izan zen bisita gidatua; bazkalostean, Floridako parke inguruan paseotxo bat egin genuen eta egun borobila igaro genuen", kontatu dio GOIENARI Joxe Anjel Arbuluk, elkarteeko presidentek.

**LARREA**  
**TABERNA**  
Kalebarren 17  
ANTZUOLA

MUJKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

# Auzolanean eraikitzen da herriaren memoria

Zapatuan irekiko da Udal Artxiboan txukunketa, datazio eta katalogazio lanetan ari diren hiru boluntarioek prestatutako erakusketa. Duela sei hilabete, 1940ko 72 argazki aurkitu zituzten kutxa zahar batean. Herriari erakustea erabaki dute

## Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Argazkiz bete dute zeramika gela, eta bihar zabalduko dituzte ateak erakusketarako. Gerra aurreko eta osteko 331 argazki dira; gehien-gehienak, zuri-bel-tzean. Udal Artxibo digitalekoak dira gehienak; Indalecio Ojanguren, Toribio Jauregi eta, batez ere, Joaquin Gastesirenak. "Berezienak orain gutxi kutxa batean agertutakoak dira", azaldu du Fernando Larrañagak. Txartel-tamainako 72 erretratu dira Larrañagak konpondu eta handitu dituenak. Argitzeko dago zertarako atera ote zituzten. "Hasieran, pentsatu genuen nortasun agiriarendako aterako zituztela, baina 1940koak dira eta garai hartan argazkirik gabekoa zen agiri hori. Gainera, gizonetako bakarrik daude. Gero, esan ziguten arma-baimenerako aterako zituztela, baina tartean badaude pertsona batzuk zalantza sortzen dutenak; izan ere, ez dut uste sekula eskopetarik eduki zutenik. Buelta asko eman eta gero, buruan darabilguna da gerra ostean ibiltzeko baimenak (salbokonduktuak) egiteko argazkiak direla. Bat izan ezik, denak daude identifikatuta. Atzean dituzte lapitzaz jasota izen-abizenak, urtea eta baserriaren izena".



Manolo Cainzos, Txema Barrutia eta Fernando Larrañaga erakusketan. L.Z.L.

Antonio Markiegiren argazkia berezia da. *Mandanci* irakur daitezkeen zigilu-marka dauka. *Comandancia* hitza izan daiteke. Hortik salbo-konduktoen teoria.

## Eskaera elgetarrei

Herriaren memoria eta historia berreskuratzeko ariketa moduan aurkeztu dute erakusketa. Udal Artxiboan argazki asko daude, eta, poliki-poliki, argazki horietan agertzen direnei izena jarri nahi diete. "Joaquin Gastesiren argazki asko daude, baina luze jo du jendea identifikatzeak.

Guztiak ez, baina izen asko jarri ditugu eta baliteke okerrak ere egin izana. Elgetarrei eskatzen diegu identifikazio lan horretan laguntzeko", esan du Larrañagak.

Lan horretan jarraitzeko asmoa dute. Martitzenetan eta eguenean elkartzen dira Udal Artxiboan eta aurrerantzean Larrañaga ere Barrutiarekin eta Cainzosekin batera arituko da. "Badira lau urte elkartzen hasi ginela", dio Barrutiak.

Dei berezia egin diete herriarrei. "Etxean gordetako argazki zaharrak ekartzeko eskatzen

## Mila bat izen erakusketan



Udal Artxiboko kutxa batean agertutako argazki sortako hainbat. L.Z.L.

**72 gizonetako** 1940ko argazkiak dira; atzeko aldean lapitzaz jasota dator urtea, erretratuaren izen-abizenak eta baserria. Antonio Markiegirenak *mandanci* dioen zigilu-marka dakar.



Herriarrek erakusketari lehen begiratu ematen. L.Z.L.

**331 argazki** Berriki topatutako argazkiekin batera jarri dituzte ikusgai Udal Artxibo digitalean dauden beste hainbat. Indalecio Ojanguren, Toribio Jauregi eta Joaquin Gastesirenak dira.

dugu; izan ere, jarraitu nahi dugu bilduma osatzen eta erakusketak egiten. Eskaneatu eta berehala bueltatuko ditugu argazkiak". Aldi berean, inork argazki kopiarik nahiko balu, eskatu daitezke.

**ERAKUSKETA HILAREN 24RA ARTE EGONGO DA ZABALIK; ORDUTEGIA ATEAN DAGO IKUSGAI**

## Parrokiako artelanak

Hainbat altxor gordetzen ditu Elgetako parrokiak eta zapatuan bisita gidatu berezia egin zuten haiek ezagutzera joan zirenean. Nerea Villa gidariaren ondoan ibili zen Juan Kruz Juaristi parrokoa ere, eta, eliza ez ezik, sakristia eta eliza barruko biltegia ere ikusi zituzten Iruñetik, Barakaldotik, Bilbotik eta Elgetatik bertatik joandako bisitariek.



IMANOL SORIANO

## OHARRAK

### Ipuinen Ordua gaur

Kontalari boluntarioen eskutik hiru saio, liburutegian, 17:30ean hasita.

### Liburu bat opari

Astelehena da ekimenean parte hartzeko azken eguna.

### Udal aurrekontua

Udalbatza martitzenetan 19:00etan elkartuko da 2023ko udal aurrekontua onartzeko.

**PATXI CASTRO**

Era guztietako aukien konponketa

- Tapizatu lanak
- Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
- Besuulki, mahai, saskiak e.a

**943 78 71 65**  
**639 01 69 69**

# SANTAMASAK 2022



## FERIA ETA JAIA, NORMALTASUN OSOZ

'Txerrinsky' eta ganadu feria; hegazti feriarik ez

Herri bazkaria Musakolan

Artisau azoka Jokin Zaitegin

Krosa, pentatloia eta pilota partiduak

Dantzak, santamasetako ezinbesteko osagaiak

IMANOL SORIANO



**OPEL**

OPEL ZERBITZU OFIZIALA



San Andres Auzoa 10-D  
Tel.: 943 77 30 10

*Ondo pasau  
santamasetan!*



**0 KM eta  
KM gutxiko aukerak**



3 urte ditu eta 180 kilo pisatzen du aurtengo santamasetako *Txerrinsky* txerriak. IDOIA ARANBARRI

# Baserritarrek, saltzaileak eta ganadua, gertu santamasetarako

Hamahiru postuk hartuko dute parte fruta, barazki eta herriko saltokien lehiaketan; eta ganadu ferian, berriz, Debagoieneko hamar baserritarren 150 animalia inguru izango dira ikusgai; beste urte batez, txerria Aretxabaletako Zaloña Aurrekoa baserrikoa da

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARRASATE Normaltasunez ospatuko dituzte arrasatearrek santamasak aurtan, eta festen egun handian, abenduaren 22an, ez dira falta-ko ohiko fruta, barazki nahiz herriko saltokien erakusketa eta lehiaketa, ganadu azoka eta herri bazkaria. Biteri plazan kokatuko dira Euskal Herriko txoko askotariko saltzaileak euren produktu gastronomikoak saltzeko. Egun osoan musikak eta dantzak girotuko ditu Arrasateko kaleak; besteak beste, herriko dantzari, trikitalari, txistulari, gaitero, albokari eta txalapartariak ibiliko dira egun-ean zehar, baita txaranga eta Iturengo joaldunak ere.

Eta, nola ez: dagoeneko aukeratu du eguneko protagonista santamasetako komisioak: Zaloña Aurrekoa baserriko *Txerrinsky* txerria.

**Azoka eta lehiaketa** Goizeko hamarretatik aurrera egongo da fruta, barazki eta herriko saltokien erakusketa eta salmenta Seber Altube plazan. Aurtan hamahiru postu egongo dira, eta, gehienak Arrasatekoak izango badira ere, Aretxabaletako, Aramaioko eta Segurako saltzaileak ere bertaratuko dira. Lehiaketan parte hartuko duten saltzaileak 09:30erako jarri beharko dituzte saltokiak. Kultura Saileko bi teknikariek, batzordeburuak eta idazkariak osatuko dute lehiaketako epaimahaia.

**BASERRITARREK EZ DUTE HEGAZTIRIK ERAMANGO GANADU FERIARA, HEGAZTI GRIPEA DELA ETA**

Sari banaketa eguerdiko hamabietan egongo dute, Seber Altube plazan bertan. Udaletik adierazi dutenez, produktuen kopurua, kalitatea eta aurkezteko modua hartuko dituzte kontuan.

Herriko saltokien kategorian hiru sari emango dituzte eta fruta nahiz barazkienean, bina. Herriko saltokietan, lehenengoak 250 euro eta garaikurra eskuratuko ditu; bigarrenak eta hirugarrenak, 200 eta 150 euro, hurrenez hurren. Barazki nahiz frutetan bi sari emango dituzte, eta kasu horretan ere 250 euro eta garaikurra jasoko ditu irabazleak eta bigarren postuan geratzen denak, 200 euro. Halaber, aurreratuko dute sarietako batzuk hutsik utzi ahal izango dituela epaimahaiak eta parte-hartzaileek ezin izango dutela saririk metatu.

**Ganadua bai, hegaztirik ez** Goizeko hamarretatik aurrera izango da ganadua ikusgai Jose Maria Arizmendiarrrieta plazan, baina baserritarrek ez dute hegaztirik eramango azokara; hortaz, ganadu feria izango da soilik. Hori horrela izatearen arrazoia hegazti gripea dela adierazi dute antolatzaileek.

Hamar baserritarren animaliak egongo dira plazan; gehienak arrasatearrak, baina guztiak ibarrekoak. 150 buru inguru egongo dira. Urtero legez, behiak, pottokak, moxalak, behorak, idiak, astoak eta ardiak gertutik ikusteko aukera egongo da, besteak beste.

Berrikuntza batekin dator ganadu azoka: hain justu ere, Mikel Velasco artzain arrasatearrak artilde mozketak erakustaldia egongo du. Bi txandatan burutuko du jarduera: lehendabizikoa goizeko hamaiketan izango da eta bigarrena, eguerdiko ordu batean.

## 'Txerrinsky', protagonista

2016a ezker, Aretxabaletako Zaloña Aurrekoa baserriko ekartzen dute santamasetako txerria. Aurtengoa emea da eta ama euskal txerria da; aita, berriz, Galiziatik ekarritako txerri mestizoa. *Txerrinsky* izena jarri dio santamasetako komisioak.

Ibai Alberdi da jabea, eta, adierazi duenez, txerriak 3 urte ditu eta 180 kilo inguru pisatzen du: "Duela gutxi, umeak egin ditu

eta argal dago". Hala ere, Alberdi ez da harritu aukeraketaz: "Ez naiz harritu txerri hori aukeratu dutelako; komisiokoak etortzen direnean daukaguna erakusten diegu eta hortik aukeratzeko dute. Guk ez dugu aukeraketan parte hartzen".

"Besteen antzera zaindu dugu. Jaten eman eta apur bat zaindu dugu. Umealdietan garbi mantendu dugu kumeak aurrera ateratzeko, baina ez dugu ezer berezirik egin", dio aretxabaletarrak, txerria nola zaindu duten galdetuta.

*Txerrinsky* "mantsoa" dela dio Alberdik. Hilaren 21ean 19:00etan egongo dute aurkezpena, Herriko Plazan, eta 22an, aldiz, 10:00etan Portaloian. Zelaiko lasaitasunetik festa girora lekualdatuta ere animalia "lasai" egongo dela aitortu du aretxabaletarrak: "Gure txerriak lasai egoten dira. Hemen ere beti jendartean ibiltzen dira, ez gara gu bakarrik etortzen. Jende asko ibiltzen da bueltaka; jaten ematera, adibidez. Txerrikumeak egiteko daudenean ere jendeak laguntzen digu eta jendartean ibiltzen ohituta daude".

Halaber, santamasetako komisiotik aurreratuko dute txerri zozketa eta errifa salmenta "ezinbestekoak" direla santamasak antolatzeko: "500 euroko saria irabazteko aukeraz gain, jai herriar hauei bultzada emateko modu zuzena dira". Zozketa arratsaldeko zortzietan egongo

## Festaren balioak karteletan jasota

Hamahirugarren aldiz egin du santamasetako kartela Iban Galan *Desegin*, ilustratzaile arrasatearrak. Aurtan, gainera, hiru kartel egin ditu festa iragartzeko, jaien balioak islatu nahi izan baititu: berdintasuna, aniztasuna eta integrazioa. Berdintasuna islatzeko, kartel batean zapia jarri du; haren hitzetan, "gizonek nahiz emakumeek erabiltzen dute elementu hori baserritar jantzieta". Bestean, txapela, aniztasuna erakusteko:

"Santamas egunean ikusten baita balio hori; kultura taldeekin, esaterako". Eta, azkenik, integrazioa, abarketan, gomazkoak edo larruzkoak izan daitezkeelako eta zona askotako jendea baitago herrian. Azaldu duenez, Antton Olariagak egindako santamasetako kartelak erreferente izan dira berezitasunak zituztelako, eta artistaren *fan* gisa deskribatu du bere burua.



Iban Desegin, kartelarekin. I.A.A.

da, Herriko Plazan, txerri dantza herrikoia ostean.

### Herri bazkaria Musakolan

Musakolako kiroldegia hartuko du herri bazkaria eta txartelak dagoeneko salgai daude, 22 euroren truke, Kajoi tabernan. Antolatzaileek azaldu dute gastatu arte bertan erosi ahalko direla eta, agortzen ez badira, egunean bertan ere erosteko aukera egongo dela. Erosle bakoitzak bost txartel erosi ahal izango ditu, gehienez ere.

Halaber, komisiotik aurreratu dute bazkari-gunera sartzen den pertsona orok bazkarirako tike-ta izan beharko duela: "Bazkaldu edo ez, adina dena delakoa izanda ere, bazkarirako gunera sartzeko tike-ta izatea ezinbestekoa izango da".

Pateak, risottoak, onddo-saltsaz betetako orri-mamiek, haragizko piper beteek, saiheskiak, goxuak, kafeak eta kopak osatuko menua aukeratu dute. Dena den, menu horretaz aparte, begetarianoentzako, beganoentzako eta zeliakoentzako menuak ere egongo direla azpimarratu dute komisiotik.

AZ Gaubelak bikotearen dantzaldia ohitura bihurtu da bazkalostean, eta eurak arduratuko dira arratsalde parte-giroteaz euren musikarekin.

Halaber, bazkaria Musakolako kiroldegian izango denez, beste urte batez, autobus zerbitzua eskainiko dute, dohainik, erdigunetik joan-etorria egiteko. Bazkaltzera joateko, 14:00-14:45 bitartean joan-etorrian ibiliko da autobusa Maalako biribilgune-tik Musakolara. Arratsaldean, kiroldegitik erdigunera itzultzeko 17:30etik 19:00etara bitartean egongo da martxan doako autobus zerbitzu berezia.

## Santamasetako egitaraua

### ABENDUAK 16, EGUBAKOITZA

- **18:00** *Olentzero kuttun* ipuin kontaketa; Kulturetola.

### ABENDUAK 17, ZAPATUA

- **10:00-13:30** *Familian izan, jolastu, gozatu eta sortu* tailerra, Kurunkunen eskutik, Kulturetola Loramendi gelan. 5-12 urte bitarteko umei zuzendua –heldu batek lagunduta–. Parte hartzaile kopurua mugatua da.
- **11:00-13:30** Jostailu truke azoka, Txatxilipurdi elkartearen eskutik; Biteri Plazan.
- **11:00-14:00 eta 16:00-20:00** Gabonetako artisautza azoka Eskuarteran elkartearen eskutik; Seber Altube Plazan.
- **12:30** Txorbela Otxotearen kontzertua; San Frantzisko elizan.
- **13:00** Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz taldeen eskutik umeen dantza erakustaldia; Herriko Plazan.
- Ostean, Olentzeroren gutun banaketa Galtzagorriekin; euria bada, Kulturetola aterpean.
- **16:15** Haurren santamas krosa. 6-14 urte bitartekoentzat; herriko kaleetan.
- **17:30** Kuadrillen arteko santamas krosa; herriko kaleetan.

### ABENDUAK 18, DOMEKA

- **09:30** Tenis, padel eta squash santamas txapelketetako finalak; Musakolako kiroldegian.

### ABENDUAK 20, MARTITZENA

- **19:00** Kantu Gira, Portaloi elkartearen eskutik. Parte-hartze irekia; Portaloian hasita eta herriko kaleetan zehar.

### ABENDUAK 21, EGUAZTENA

- **18:00** Santamasetako dantzaldia Arrasateko Trikitixa Eskolaren, Arrasateko gaiteroen eta Udalaxpe txistulari taldearen eskutik.
- **18:30** Etxafuegoak.
- **18:30** Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren kalejira, Biteri Plazan hasita.
- **19:00** *Txerrinsky* txerriaren aurkezpena; Herriko Plazan.
- **20:00** Bertso saioa; Amaia antzokian. Bertsolariak: Alaia Martin, Oihane Perea, Amets Arzallus eta Andoni Egaña. Gai-jartzailea: Imanol Artola Felix. AEDk antolatuta.
- **22:00** Zezensuzkoa; Herriko Plazan.
- **22:00** Kontzertuak gaztetxean: Hankaz Gora eta Libertad Condicional.

### ABENDUAK 22, EGUENA

- **09:00** Etxafuegoak.
- **09:30** Udalaxpe txistulari taldearekin diana; herriko kaleetan.
- **10:00** *Txerrinsky* txerriaren aurkezpena; Portaloian.
- **10:00** Ganadu feria; Jose Maria Arizmendiarieta Plazan.
- **10:00** Fruta, barazki eta herriko saltokien erakusketa eta lehiaketa; Seber Altube Plazan.

- **10:00** Euskal Herriko produktu gastronomikoen salmenta; Biteri Plazan.

- **10:00** Taloak; Herriko Plazan.
- **10:30** Artisau azoka; Jokin Zaitegi Plazan eta Biteri etorbidean.
- **11:00 eta 13:00** Artile-mozketa erakustaldia; Jose Maria Arizmendiarieta Plazan.
- **11:00-14:00 eta 18:00-20:00** Jaiotzen erakustaldia; San Frantzisko elizan. Urtarrilaren 6a arte egongo da zabalik.
- **11:30** Kalejira: herriko kaleetan zehar: Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeak, Arrasateko trikitilariak, Udalaxpe txistulari taldea, Arrasateko gaiteroak, albokariak eta txalapartariak.
- **11:30** Iturengo joaldunak; herriko kaleetan zehar.
- **11:30** Incansables txaranga; herriko kaleetan zehar.
- **11:30** Lore Gazteak dantza taldearen saioa; herriko kaleetan zehar.
- **12:00** Herriko saltoki, fruta eta barazki lehiaketaren sari banaketa; Seber Altube Plazan.
- **12:10** Arrostaitz dantza taldearen saioa; Herriko Plazan.
- **12:30** Lore Gazteak beteteranoen dantza saioa; Zerkaostetan.
- **12:30** Herri kirolak; Zaldibarren: euskal pentatloi desafioa bi bikote mistoren artean. Parte-hartzaileak: Karnele Gisasola eta Aratz



Mugerza vs Julen Kañameres eta Uxue Ansorregi.

- **12:50** Arrasateko trikitilarien saioa; Herriko Plazan.
- **13:00** Lore Gazteak beteteranoen dantza saioa; Seber Altube Plazan.
- **13:30** Albokariak eta txalapartariak; Herriko Plazan.
- **13:45** Txerri Dantza herrikoia; Herriko Plazan.
- **14:45** Herri bazkaria; Musakolako kiroldegian. Bazkalostean, AZ Gaubelak- en eskutik dantzaldia. Doako autobus zerbitzua egongo da.
- **17:30** Profesional mailako pilota partidak; Uarkape udal pilotalekuan. Eskuz binakako txapelketa: Urrutikoetxea-Albisu vs Peio-Rezusta. Sarrerak aurrez –Monte eta Buenuena tabernetan–. 20 euro; leihatilan, 25 euro.
- **19:00** *Batzen* dantza herrikoia; Arbolapetatik Seber Altubera eta Herriko Plazara.
- **19:30** Txerri dantza herrikoia; Herriko Plazan.
- **19:30** Larrain dantza herrikoia, Arrasateko gaiteroen eta Garinbanden musikarekin; Herriko Plazan.
- **20:00** Txerri zozketa; Herriko Plazan.
- **20:00** Dantzaldia Muxutruk taldearekin; Herriko Plazan.
- **23:00** Dantzaldia; gaztetxean: Virgin Mary DJ Set eta Gorriortzu Ta Laztana.

Odontologiako profesionalen lantaldea zure zerbitzura.

Ortodontzia  
Hortz-protesiak  
Implanteak  
Periodontia  
Odontologia Estetikoak



RPS: 134/21

# Jokin Zaitegira normal itzultzea da nobedadea

laz Santamas Komisiñuak azoka antolatzeke ahalegina egin ondoren, azken orduko COVID-neurriengatik bertan behera utzi behar izan zuten hitzordua. Hilaren 22an, 48 artisau inguru normaltasunez bueltatuko dira dagokien tokira

## Xabier Urzelai ARRASATE

Bi urteren ondoren, santamas egunean artisauak Jokin Zaitegiko –eta Biteri etorbideko– arkupeetara bueltatuko dira euren postuekin. Eta hori da aurtengo nobedade nagusia; izan ere, iaz, Santamas Komisiñuak bertan behera utzi behar izan zuen azoka bera –COVID-19a tarteko egoten ziren araudi aldaketek eraginda– eta duela bi urte azoka egin zuten, baina Biteri plazako aterpean, eta edukiera-neurri zorrotzak errespetatuta.

Hala, herritarrek beste urte batzuetako ezintasun barik ikusi ahal izango dituzte, bertatik bertara, artisauok ofizio zaha-



Artisau bat eta erosle bat, 2019ko azokan. GOIENA

rretan lanean. Urtero moduan, 45-48 postu inguru izango dira, eta tartean egongo dira zeramikariak, eskupilota egileak, tailugileak, otarreak egiten dituztenak, makilekin lan egiten dutenak... Eta, berezitasun bezala, forja erakustaldia egingo dute bertan.

## Nabarmentzeko modukoak

Santamas Komisiñuak 1978. urteaz geroztik antolatzen du artisauen azoka, eta aurtengo ediziora begira bi gauza nabarmentu dituzte. Batetik, azokari dagokiona: "Artisauak nola lan egiten duten ikusteko aukera egongo da, baita euren lanak salerostekoa ere". Eta bestetik, artisautzarekin lotutako tailer bat antolatu dute abenduaren 17rako, Kulturaten: *Familian izan, jolastu, gozatu eta sortu!* leloa izango du tailerrak eta Kurunkunekoek eskainiko dute –10:00etatik 13:30era bitartean, 5-12 urte bitarteko umeentzat zuzendua, eta heldu batek lagunduta–.

Hala, Komisiñotik gomendatu dute margoekin zikintzeko moduko arropekin joateko bertara.

## Eskuartearen: azoka Seber Altuberen

Azoka egongo da zabalik hilaren 17an goizez (11:00-14:00), abenduaren 23an egun osoz (11:00-14:00 eta 16:30-20:30) eta abenduaren 24an goizez. "Gure herriko artisautza sustatzeko, sortzaile, artista eta ekoizleek bat egin dugu Arrasateko artisautzaren balioak harro plazaratzuz", azaldu dute Eskuartearen taldeko kideek.

Hala, askotariko materialez egindako produktuak jarriko dituzte salgai: zilarra, larrua, ilustrazioa, bitxigintza, zeramika eta kosmetika. "Gure ekoizpenak bertatik bertara ezagutzeko, artisauen lanaren balioa nabarmentzeko eta Gabonetako opari bereziak eskuratzeko aukera izango da", gaineratu dute.



URTARRILAREN 7AN  
DENOK BILBORA!



EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIEK GABE

*Unai, Arbe eta Peixoto Arrasaterak!*

IRATI • TAUPA • BASATI • ILUNTZ  
JAI ZALE • DAT • ETXOSTE • OSORIK





Maiatzean egin zuten lasterketaren irudi batean, talde-burua. GOIENA

# Biharko krosean ez dira horrenbeste berotuko

Maiatzeko santamas krosean –atzeratutako edizioa izan zen– tenperatura altuak izan zituzten korrikalariak, baina bihar, zapatua, ez da halakorik gertatuko. Gainera, goizean beharrea kuadrillek arratsaldean egingo dute korrika, 17:30ean

## Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Bihar, zapatua, bati baino gehiagori egingo zaio Garibaiko etorbidea normalean baino luzeagoa, baina oraingoan ez dute, joan den maiatzeko krosean moduan, halako berorik

pasako. Santamas krosaren 44. edizioa ohiko sasoirako bueltatuko da, abendura, baina ez da erabateko normaltasunik egongo: "Ohitura da krosa santamas egunaren aurreko domekarako antolatzea, eta, oraingoan, za-

patuan egingo dugu. Eta ez hori bakarrik: lasterketa eguerdian beharrea arratsaldean izango da", adierazi dio GOIENARI Arrasate Atletiko taldeko presidente Jon Ormaetxeak. Eta motiboa sinplea da: "Do-

mekan Arrateko krosa izango dugu, eta horrek gure hitzordua baldintzatu du". Izan ere, batzuek epaile lanetan jardun beharko dute Arraten, eta, horrekin batera, klubeko harrobiko gazte askok eskola arteko lasterketan hartuko dute esku: "Gure lasterketa ere domekan jartzen bagenuen, gazteen lasterketetan hutsune handia egongo zen. Horregatik erabaki dugu hitzordua arratsaldera pasatzea, eta ikusiko dugu zein den emaitza. Baina datorren urtean normaltasunera bueltatuko gara".

## 16:15ean hasita

Egunean bertan eman ahal izango da izena, eta parte hartzen lehenak 13-14 urte bitarteko gazteak izango dira, 16:15ean. 17:15ak arte kategoria txikietako lasterketak egingo dituzte, eta 17:30ean etorriko da kuadrillen txanda. "Aurten, gainera, *Zure irrifarra nire indarra* ekimeneko bi gaztetxo egongo dira lasterketan, aulki bereziki lagunduta". Hasiera eta helmuga Garibai etorbidean izango dute.

## Profesionalen pilota jaialdia

Abenduaren 22an, 17:30ean hasita, eskuz binakako txapelketako partida jokatu dute. Hala, partidu nagusian Urrutikoetxeak eta Albisuk Etxeberriaren eta Albisuren kontra neurtuko dituzte indarrak. Sarrerak 25 eurotan daude salgai.

## Pentatloi desafioa

Hilaren 22an (12:30), euskal pentatloi desafioa egingo dute bikote mistoen artean. Karmele Gisasola, Aratz Mugerza, Julen Kañameres eta Uxue Ansoerregi lehiatuko dira. Harri-jasotzean, aizkoran, txingetan, korrikan eta giza proban jardungo dute.



## CITROËN C4 BERRIA

**%100 ELEKTRIKOA,  
GASOLINA EDO DIESELA**

## CITROËN C5 X

**HIBRIDO ENTXUFAGARRIA  
EDO GASOLINA**

*Berria!*





## CHAPIME TAILERRAK

Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala

**Gora santamasak!**

SAN ANDRES AUZOA 5, ARRASATE

# Oinak, hankak eta gerria mugitzeko ordua da

Santamas egunean dantza izango da nagusi Arrasaten. Arrostitz eta Lore Gazteak dantza taldeetako dantzarien erakustaldiez gozatu ahal izango da, baina baita herri dantzez; eta gogoz esperotako txerri dantza eta larrain dantza ere izango dira

**Imanol Beloki Unamuno** ARRASATE  
Bada dantzarako zaletasuna Arrasaten, eta ondo baino hobeto demostratzen dute hori urtero santamasetan Arrasateko Lore Gazteak eta Arrostitz dantza taldeek eta egun horretan egiten diren bestelako dantza herrikoietara animatzen diren arrasatearrek.

Hori horrela, ez da dantzarik faltako aurtengo santamas egunean. Motorrak berotzen hasteko, zenbait hitzordu egongo dira abenduaren 22a aurretik. Batetik, abenduaren 17an, 13:00etan, Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostitz taldeen eskutik umeen dantza erakustaldia izango da, Herriko

Plazan. Bestetik, abenduaren 21ean, santamas bezperan, dantzaldia egingo da, 18:00etan Biteri plazan. "Santamasak jai oso herrikoiak izanda, adostu dugu santamas bezperan finkatzea dantzaldia -abenduaren 21ean urtero- eta herriko musikariek eta musika taldeek ematea -aurten, Arrasateko Trikitixa Eskolak, Arrasateko gaiteroek eta Udalaxpe txistulari taldeak-, adierazi du Herrixa Dantzan-eko Patxi Monterok. Honako hau gaineratu du: "Uste dugu aldaketa esanguratsua dela, herriko baliabideekin moldatze aldera, eta herriko musikari eta dantzariak elkarrekin jartzeko".

## Dantzak nonahi

Abenduaren 22an, santamas egunean, 11:30ean, kalejira izango da Arrasateko kaleetan zehar. Bertan izango dira Arrostitz eta Lore Gazteak dantza taldeak, Arrasateko trikitilariak, Udalaxpe txistulari taldeak, Arrasateko gaiteroak, albokariak eta txalapartariak. Ondoren, herriko bi dantza talde nagusien ohiko saioak izango dira Herriko Plazan. Eguneko hitzordu azpimarragarrienek ere ez dute hutsik egingo: txerri dantza eta larrain dantza egingo dituzte; arrasatearren artean ikusmin handiena sortzen dutenak eta jendetza erakartzen dutenak.



Arrostitz dantza taldearen ikurrin dantza. OIHAN VITORIA



Lore Gazteak dantza taldearen gorulari mistoa. LORE GAZTEAK DANTZA TALDEA

**ALDEDI**

Gora santamasak!

24 orduko sarrailagintza zerbitzua • 665 71 05 99

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

# Kutsu euskalduna duen jaiotza ere jarriko dute

Arrasateko Izartsua Belenzaleen Elkarteko kideek antolatuta, jaiotzen erakusketa jarriko dute San Frantzisko elizan: santamas egunaren biharamunean ireki eta urtarrilaren 6ra arte egongo da. Urtero jartzen dute, baina aurten, berezitasunekin



Arantxa Alonso, asteon, San Frantzisko elizako jaiotza prestatzen. IMANOL BELOKI

**Imanol Beloki Unamuno** ARRASATE

Arrasateko San Frantzisko elizan jaiotzen erakustaldia izango da ikusgai Santamas Egunaren biharamunetik urtarrilaren 6ra arte. Ordutegia 18:00etatik 20:30ak arte izango da egun guztietan; edozelan ere, abenduaren 24an, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da erakusketa.



Arrasateko herensugea. IZARTSU

**Inplikazio handiko lana**

Begoña Mugika, Joakin Etxebarria eta Arantza Alonso dira, besteak beste, erakusketa jartzearen arduradunak, eta asteon aritu dira erakusketarako prest dituzten elementu guztiak bilgitegitik atera eta San Frantzisko elizako hainbat txokotan jartzen. "Dekorazio elementu asko Izartsua elkarteko kideek egindakoak dira, baina elektrizitateko lanetarako, josteko eta beste hainbat eginkizunetarako hainbat pertsonaren laguntza izan dugu. Gure kasuan, baserri-etxeak, zubiak eta jaiotzak dituen beste zenbait elementu elkarteko kideok egin ditugu, oso-osorik", adierazi du Arantza Alonsok, Arrasateko Izartsua Belenzaleen Elkarteko kideak.

**Eliza inguratuz 21 diorama**

San Frantzisko elizako aterpean, kanpoaldean, kutsu euskalduna duen jaiotza jarriko dute. Horrekin batera, 21 diorama elizako barnealdea inguratzen eta erretaularen alboan jaiotza hebrearra jarriko dituzte. "Hamabost urtez jarri ditugu dioramak elizan Gabonetan. Aurten ere dioramak jarriko ditugu Nazaretoko Jesusen bizitzaren eszenekin, haurra zen garaia kronologikoki kontatuz. Horrekin batera, jaiotza hebrearra elizaren barruan eta euskal landa islatzen duen jaiotza elizaren atarian, nekazari bizitzaren eszenak eta gure inguruko xehe-tasunak dituen".

**Zotzekin egindako figurak**

Dekorazio irudiak hainbat artisauk egindakoak dira; horietako batzuk, gainera, zotzekin egindakoak. Kasu horretan, Izartsua elkarteko kideentzat bereziki egindakoak dira zenbait pieza: "Errege Magoek teleskopioarekin izarrak ikusten dituzten diorama bat egin digute, Mariak eta Josek elkarri ezkon-hitza ematen dieten unekoa eta abar". Euskal jaiotzean egindako figura gehienak zotzez egindakoak dira, eskuliboa. "Dantzari bikote bat dugu, txistularia, baserriar bat, baita errementaria herensugeari aurre egiten ere; gure herriari erreferentzia zuzena egiten dion figura berezia da honako hau".

**Omenaldia Gabon kantari**

Izartsua elkarteko kideek prestatuko duten jaiotzako dekorazio irudiak Iruñean, Toledon eta Murtzian erositakoak dira, eta berezitasun bat izango dutela adierazi dute: "Gitarra bat jarriko dugu jaiotzean, *Jainkoaren gaua, bake gaua* Gabon kantari erreferentzia egiteko. Gabon kanta hau gitarrarekin jo zen lehenengoz, Salzburgoko elizako organoa hondatu egin zelako. Gruber organista austriarrak konposatu zuen musika eta Mohr apaizak jarri zituen hitzak. Hori horrela, omenaldia egin nahi diogu Gabon kanta horri".

Abenduak  
**16**  
ostirala

Abenduak  
**17**  
larunbata

# GUZTIAREN BEZa

oparituko dizugu

Bitxigintza izan ezik.

\* EROSKI clubeko bazkidea bazara, EROSKI Supermerkatuetan egindako 40 €-tik gorako erosketetan, eta EROSKI Hipermerkatuetan egindako 90 €-tik gorako erosketetan, erosketaren BEZari dagokion zenbatekoa sartuko dizugu zure EROSKI club txartelean. EROSKI club txartelean sar daittekeen gehieneko zenbatekoa: 250 €. Kontsultatu gainerako baldintzak zure ohiko dendan. Baita supermerkadu.eroski.es/eu/webgunean ere.

**EROSKI**

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,  
 Tel.: 943 71 10 30



# ARRAGOA • ISLABAT ORHI • SINDY BERBENAS

Bergarako Seminarixoa | **Abenduaren 16an, egubakoitza** | 21:30

Chill out gunea, 20:00etatik aurrera,  
San Martin plazan (Errege Seminarioaren arkupeetan), DOAN  
**Artista gonbidatua: DJ LP Woman (Lara Peman)**

Sarrera arrunta **4€**

Goiena app-ean alta ematen dutenek **2€**

Goienakideek, Goiena txartela erakutsita **0€**

BABESLEAK

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Lanakidetz, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



Diputación Foral  
de Gipuzkoa  
Departamento de Cultura,  
Cooperación, Juventud y Deporte



Bergarako Udala

LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA

goiena™  
KOMUNAZO TALDEA





Asier Kidam magoa. J. DOMINGO



David Blanco. DRAMAGIA



Señor Perez. J. DOMINGO

# Magia trikimailu ugari domekan Elgetan

Asier Kidam, David Blanco eta Señor Perez mago gasteiztarrak izango dira Elgetako Udalak Dramagia Espectaculos taldearekin batera antolatutako Magia Egunean. Umeendako magia tailerrak, magia poteoa eta Magia Gala daude iragarrita

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA Harrigarria eta liluragarria da magia. Elgetan badute magia-erikiko zaletasuna, eta domekan hainbat diziplinarekin gozatze-ko aukera izango da.

Udalak antolatuta eta Dramagiaren eskutik, Asier Kidam, David Blanco eta Señor Perez magoak izango dira herrian. "Eskarmentu handiko magoak dira hirurak, eta, badakigunez Elgetakoa publiko oso exigentea dela, haiekin osatu dugu Magia Eguneko egitaraua", azaldu du Dramagiako arduradun Inma Blancok.

Adin guztietako ikusleendako proposamenekin helduko dira magoak. Lehena trikimailuak egiten Asier Kidam izango da. Aski ezaguna da herrian; izan ere, aurretik ere makina bat aldiz hartu izan du parte Elgetako Magia Mostran.

7-12 urte bitarteko umeendako magia tailerra egingo du, Espaloian, 11:30ean.

## Umeendako tailerra

70 minutuko tailerrean, magia trikimailu bat edo beste egiten erakutsiko diete magoak umei. "7 urtetik aurrerako umeenda-

ko izango da", azaldu du Kidam. "Adin horretatik beherako umei kosta egiten zaie magia kontzeptua ulertzea; trikimailu bat dagoela eta sekretua gorde behar dela, alegia". Hasiere batean, tailer bakarra dago aurreikusita, eta beharrezkoa da izena ematea, [danonartian@elgeta.eus](mailto:danonartian@elgeta.eus) helbidean. Doan da.

## Magia-poteoa

David Blancok hartuko du jarraian lekukoa, eta tabernaz taberna ibiliko da kartekin,

txanponekin eta bestelako objektuekin. Gertuko magia egingo du, guztien gozamenerako.

## Magia gala iluntzean

Eguneko ikuskizuna 18:30eko magia gala izango da. Kidam eta Blancorekin batera Señor Perez magoa arituko da. "Oso onak dira hirurak eta ikuskizun oso indartsuak dituzte", azaldu du Dramagiako arduradunak. "Asier Kidam oso berea duen estiloan arituko da. Ilusionismoa egingo du kristalezko bola batekin, sokekin, aroekin, suarekin... David Blancok, berriz, mentalismoa egingo du. Hainbat sari jasotakoa da, eta umorearekin uztartzen du haren diziplina. Azkenik, Señor Perez magoak hainbat sari jasotako *Xaboizko poesia* izeneko ikuskizuna egingo du. Edertasun handiko saioa da eta xaboi ponpekin egiten du".

**ASKOTARIKO MAGIA DIZIPLINAK ETA ZUR ETA LUR GELDITZeko MODUKO SAIOAK IZANGO DIRA**

## Magia egitaraua

- **11:30** magia tailerra, Espaloian, Asier Kidam magoarekin. Adina: 7-12 urte. Izen-ematea: [danonartian@elgeta.eus](mailto:danonartian@elgeta.eus).
- **13:00** Magia-poteoa tabernaz taberna David Blancorekin.
- **18:30** Magia gala, Espaloian. Sarrera doan.

## Energia komunitatea sortzeko prozesua, txanpa erabakigarrian

Izaera kooperatiboa izango du eta lehen proiektua frontoiko teilatuko instalazio fotovoltaikoa izango da

**L.Z. ELGETA**

Urriaren 7an ekin zieten energia komunitatea sortzeko lan-bilerei Elgetan. Orduetik, beste bost ere egin dituzte, eta aztertu dituzte egungo ereduaren alternatibak, merkatu elektrikoaren funtzionamendua, dauden diru-laguntzak, arlo juridikoa eta administratiboa, zein beste herri batzuetako esperientziak –Otxandio, Lea Artibai, Hernani, Bergara, Elorrio...–. Hiru lantalde osatu dituzte, eta ideia da kooperatiba izaerako energia komunitatea sortzea.

Kooperatibaren lehen proiektua frontoiko teilatuan instalazio fotovoltaikoa jartzea izango da. "Energiaren inguruan kontzientziazio-lanak eta bestelako proiektuak ere jorratuko dira. Elgetako Energia Komunitatea osatzeko bidean parte hartzeko nahia duten herritarrak animatu nahi ditugu gurekin harremanetan jartzera", azaldu dute. Urtarrilaren 11an elkartuko dira, 18:30ean, udaletxean. Kontaktua da [info@ebkelgeta.eus](mailto:info@ebkelgeta.eus) da. Orain arteko lanketa jasota dago [elgeta.eus](http://elgeta.eus) udal webgunean.

## Erretiratuen Kultura Astea

Xalbadorpe elkarteak antolatuta, martitzenean eman zieten hasiera erretiratuen Kultura Asteari. Aurreko egunotan, ONCERen Oroimenak Antzerki Taldearen antzezlanak eta Jokin Goenaga soinu-jolearen emanaldia izan dituzte. Bingo saioa ere izan zuten atzo Ozkarbi elkartearen. Gaurko txistor-janarekin emango diote amaiera Kultura Asteari.



J.A. OJANGUREN



MIREN ARREGI

## Harrera beroa Escamot Catalari

Urteetako ezagunak dira Elgetan, eta aurten 30 lagunekoa kuadrilla izan da herrian; batzuk jotzen eta beste batzuk dantzan. Dantzaldi jendetsua egin zuten barikuan, eta giro oso berezia sortu zuten, folk dantzak eta dantza tradizionalak oinarri. Eko taloak ere izan ziren, afari-pasada egiteko. Patxi Monteroren Herrixa Dantzan saioarekin izan zuen jarraipena jaialdiak.



Zubietako bi aldeetan bermatzen da zabalera espaloietan; irudian, espaloi tarte zabalena, zubitik gertu.



Eskola zaharren parerarraino berritu dute Zubieta; pintaketak amaitu ostean irekiko dute trafikora.



Masterrekako gune estuenean, espaloia zabaldua ere, trafikoa noranzko bakarrekoa izango da obra ostean.



Masterreka kalean egun dagoen semaforoa mantendu egingo dute obra ostean. ARGAZKIAK: JOKIN BEREZIARTUA

# Masterrekaren txanda da orain

Zubieta kaleari pintaketa-lanak eta azken ukituak falta zaizkio trafikora zabaltzeko. Ardatz osoa berriro urbanizatzeko hirugarren fasea izango den Masterreka kaleko lanak urtarrilaren 9an hasiko dituzte, eta obrek sei hilabete irautea dago aurreikusita

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Amaitzear dira Zubieta kalea berritzeko obrak. Eguraldiak ahalbidetzen duenean pintaketa-lanak eta bestelako azken ukitu batzuk egin ostean trafikora zabalduko da ia urtebetez itxita egon den kalea. Zubieta kaleko lehen bi faseekin pozik dago Udala. "Obra batek nahitaez eragiten ditu afekzioak, baina uste dut oso ondo joan dela. Udalaren, enpresa kontratatzailearen [Zubieder enpresa ari da lanean] eta herritarren arteko komunikazioa oso ona izan da; obra eremuan ia une oro ber-

matu dira irisgarritasuna eta atarrietarako sarbideak. Kale berrituaren emaitza laster ikusi ahalko da", adierazi du Gorka Artola alkateak.

## Masterreka, are estuagoa

Zubieta berrituta, orain Masterreka berritzeko unea heldu da. Eguazten iluntzean deitu zuen Udalak bilera irekia Masterrekako bizilagunekin, informazioa partekatu eta bizilagunen zalantzak argitzen saiatzeko. Urtarrilaren 9an hasiko dira lanak, eta Masterrekako obran Zubietan baino zailtasun handiagoak au-

rreikusten dituzte. "Zubieta kale estua da, baina Masterreka are estuagoa da. Horrek antolaketa konplikatzeko du; bi aldeetan daude etxeak eta kalea erabat itxtean zirkulazioan izango duen eragina nabarmena izango da; hurrengo asteetan jakinaraziko diegu herritarrei nolako eragina izango duen trafikoan, baina herri osoan izango du eragina, neurri baten", dio Artolak.

Trafikoan izango duen eragin zehatzaren berri aurrerago eman go zaie herritarrei, baina Udalaren asmoa da Bolutik behera datozen ibilgailuak Barrenkale-

tik sartu eta Irizar jauregitik bodegoi aldera eta Bideberretik behera egitea, ordurako Zubieta zabalik egongo delako. Bolura igotzeko, berriz, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea eta Arruriaga kaletik joan beharko da.

## Infernukuatik gora hasiko dira

Masterrekako lanen hasiera-eguna urtarrilaren 9rako dago aurreikusita, Infernukuako bidegurutzetik gora. Bi fasetan gauzatuko dira lanak: hasierako fasean, errepidearekin eta kale aldera ematen duen espaloi zatirekin hasiko dira; eta, ondorengo fasean, Egin-Mallea jauregiaren eta Masterreka kalearen arteko estugunea eta beste aldeko espaloia egingo dute.

Obrak sei hilabete irautea aurreikusten dute, eta eragin kaltegarria arintzen saiatzeko "hainbat neurri" aurreikusi ditu Udalak: beira-hondakinen eta

**MASTERREKA IXTEAK TRAFIKOAN IZANGO DUEN ERAGINAREN BERRI AURRERAGO EMANGO DU UDALAK**

herribusaren geltokia lekuz aldatuko dute; emergentziarako zerbitzuak abisatu dituzte sarbidea berritzeko; norbaitek ambulanzia zerbitzua beharko balu, Udalari jakinarazita sarbidea berrituko zaio; Bideberri kalean zamalanetarako erabileta emateko bi plaza egokituko dira; garaje moduan erabiltzen diren lokalen ibi iraunkorra ez dute kobratuko; fatxadaren altxaera egitea nahi du Udalak, obren eragina neurtua izan dadin; lanak aste barruan eta ordutegi zehatzetan egitea aurreikustean da, eta, astebururen baten edo gauez emergentziaren bategatik lan egin beharko balitz, bizilagunei jakinaraziko litzaieke; zarata legezko mugetan egon dadin jarraipena egingo da; eta Udalak maiztasunez emango die herritarrei obraren inguruko informazioa.

Eguazteneko bileran azpimarratu zuten, Zubieder enpresak bulegoa du Masterrekako 16. zenbakian; bertan erreklamazio-orriak egongo dira, ekarpenak egin eta zalantzak argitzeko. Era berean, udaletxeko bulego teknikora ere bideratu dituzte herritarrek: 943 77 91 38.

Euskararen historia soziala laburtzera datorren *Izotz ondoko eguzki* erakusketaren irekiera ekitaldia, Aroztegin. MIREN ARREGI

## Izotza urtu zutenei esker, emaria du euskarak egun

Abenduaren 9an ireki zuten Bergarako euskararen historia sozialaren gaineko 'Izotz ondoko eguzki' erakusketa eta abenduaren 25era arte egongo da Aroztegin; 1940tik 1980ra euskarak bizi izan zuen bilakaeraren gaineko hainbat datu jasotzen dira

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Abenduaren 9an ireki zuten *Izotz ondoko eguzki* erakusketa, Bergarako euskararen historia sozialaren pasarte bat laburbiltzera datorrena, eta abenduaren 25era arte egongo da bisitatzeko aukera Aroztegin, ohiko ordutegian. Batzorde "oso berezi bat" sortu dute ekimenaren bueltan, Anaje Narbaizak Goiena tele-

bistan asteen adierazi duenez: Narbaiza bera, Jaione Isazelaia, Gerardo Elortza, Juan Martin Elexpuru, Eneko Oregi eta Udaleko teknikariak diren Estepan Plazaola eta Arantzazu Oregi.

**Protagonisten bilketa zabala** Espainiako gerra ondorenetik trantsiziora arte euskarak Bergaran izan duen bilakaera az-

tertzen da erakusketan. Hala, 1940 eta 1980 urte tartean euskara gorde eta zabaldu dutenen lana identifikatu, aitortu eta ezagutzera eman nahi dute. Hainbat dokumentu idatzi eta argazki baliatu dituzte erakusketarako; tartean, Bergarako Udal Artxiboko funtsak eta herritarrek egindako ekarpenak ere, hala nola aldizkariak, libu-

ruak, kaseteak, eskulturak eta abar. Protagonisten ahotsen bilketa zabala ere egin da, gerraostetik 80ko hamarkadara bitarte euskalgintzan jardundakoen testigantzen bidez euskararen historia soziala osatzeko helburuarekin. Guztira, 26 el-karrizketa egin dituzte eta horiekin osatutako ikus-entzunezkoa ikusgai jarri dute Aroztegin. Gainera, abenduaren 9ko irekiera ekitaldian, errekonozimendu xumea egin zieten euskararen berpizkunderako lan mardula egin zuten guztiei.

### Izotza urtzen hasi zenekoa

Euskararen ezagutzak eta kale erabilerak beherakada eta galera izugarria izan zuten gerraosteko urteetan. Errealitate horri aurre egin eta egoera zail hori iraultzeko asmoz herri mugimendu indartsua eta bizia sor-

tu zen, nagusiki 1960ko eta 1970eko hamarkadetan. Ezagutza areagotzeko bi ildo jorratu ziren: euskarazko irakaskuntza ezarri zen eskoletan, haur eskolatik hasi eta, urtez urte, adin guztietara zabaldu arte. Aranzadi ikastolak ireki zuten bidea eta gero beste eskola guztietara hedatu zen. Heldu nahiz umeak euskalduntzeko eta alfabetatzeko eskolak bideratu ziren: Kili-Kili, gau eskolak, euskara tituluak... Horrez gain, frankismoan gotorleku izan zen etxetik irteten zen euskara kalera; izan ere, euskalgintza eta kulturgingintza indartsu bat eratu zen, era guztietako jarduerak antolatu eta kale bizitza euskaraz izan zedin lan egin zuena.


Egitasmo zabalago baten hasiera izan gura du atal honek; antolatzaileek pozik hartuko dituzte herritarren ekarpenak.

## Euskararen memoriaren izenean



**ANAJE NARBAIZA** EKIMENAREN LANTALDEKO KIDEETAKO BAT

"Gerraostean hizkuntza ere lapurtu ziguten euskaldunoi. Lapurreta hori bizi izan zutenen bila joan gara, asko oraindik ere bizi direlako; beste bizipen batzuk bigarren eskutik jaso ditugu. Ikerketarako oso garrantzitsua da testigantza horiek guztiak jasotzea. Egitasmo zabalago baten hasiera da".



**EKAITZ ARANBERRI** EUSKARA ARLOKO ZINEGOTZIA UDALEAN

"Erakusketaz harago, modu bat da garai hartan euskararen alde lan egin zutenei aitortza egiteko. Memoria lantzen ari gara Udaletik beste arlo batzuetan eta beharrezko ikusten genuen euskararen arloan ere halako lanketa bat egitea, euskarak bizi izan zuen jazarpen gordina ez dadin ahaztu".

**MIGUEL ALTUNA**  
Lanbide Heziketa

Fp

**2023**  
Urte berri on!

*Edozein urtek izaten ditu bere pozak, bere penak baina bizia ematen digu beti ere datorrenak. Hogeitabia zimeldu zaigu emanik bere onenak; nola loretan arantzadunak ez diren izaten denak ea zer lore ekartzen digun hogeitahirugarrenak.*

www.maltuna.eus · info@maltuna.eus · 943 89 92 70 · 943 89 92 73

# Osasungarriago jatearen garrantzian sakontzera

San Martin eskolak, Biolurrek, Agorrosin guraso elkarteak eta Ereindajenek 'Ekoizpen duina, kontsumo herrikoia' kanpaina eta material didaktikoa aurkeztuko dute gaur eskolako patioan: "Elikadura heziketan sakontzeko ekimen bateratua izango da"

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA San Martin eskolak, Biolurrek, Agorrosin guraso elkarteak eta Ereindajenek *Ekoizpen duina, kontsumo herrikoia* kanpaina eta material didaktikoa aurkeztuko dute gaur, hilak 16, San Martin eskolako patioan (16:30); aurkezpenean, errezeta-liburua jasota dituzten kalabaza-pizzak dastatzeko aukera egongo da. Beste bi jarduera ere egingo dituzte: gaur goizean, LH-2ko ikasgeletan materialak landuko dituzte eta ikasiko dute barazkiekin errezeta koloretsu, dibertigarri eta eskuragarriak egiten, eta erosketa kostu eta ekoizpen kostuekiko hurbilpen bat ere egingo diete. Gero, Duina proiektuan parte hartu duen etxaldeetako bat den Bergara Ziarreta baserria bisitatuko dute.

**Elikadura osasuntsua, etxeraino** Hain zuzen, haur eta familientzako material didaktikoa San Martin eskolan aurkeztuko da gaur, estreinakoz, eskolako komunitateak, Biolur elkarteak eta Ereindajenek elkarlanean antolatutako jarduera-sorta baten baitan. "Eskolako jangelako proiekturako aberasgarri izatea ez ezik, elikadura heziketan sakontzeko eta bere osotasunean lantzeko ekimen ba-



Duina proiektuaren aurkezpena, urrian; irudian, Biolurrekoak eta ekoizleak. DUINA

## ERREZETA-LIBURUKO PARTE DIREN KALABAZA-PIZZAK DASTATU AHALKO DIRA AURKEZPENEA

teratua izango da", adierazi dute antolatzaileek.

Unitate didaktiko horiek Irri-marra ilustratzailearekin eta Sabrina Pato sukaldariarekin landu dituzte eta honako helburu hauek ditu: elikadura osa-

suntsuaren garrantzian sakontzea, barazkiak etxean koinatu eta eguneroko ekonomian zein ingurumenean duen garrantziaz ohartzea. Hezkuntza praktikoa bitartez hamabi elikagairekin plater konbinazioak eginez kopuru eta prezioak landuko dira. Bestetik, familientzako materiala eskuragarri jarriko da, etxeko sukaldeetan ilustrazioek lekua hartu dezaten, elikadura osasuntsuaren prestaketan lagundu eta motibatzen. Aurkezpenean emango dituzte xehetasun guztiak.

## Duina proiektua: bi urte su txikian

Biolurrek barrezaintza ekologikoaren ekoizpen kostuen azterketa "integrala eta objektiboa" landu du azken bi urteetan. Duina proiektua deitu diote eta Gipuzkoako eta Bizkaiko hamaika baratze-proiektu aztertu dituzte; tartean, Debagoieneko hainbat ekoizle ere izan dira. Laboreen ekoizpen kostuak, soldatak, lanorduak, prezio duinak eta,

oro har, nekazaritza proiektuen duintasun ekonomiko eta sozialerako datuetan sakondu dute.

**Ziarreta baserrira bisita** Duina proiektua Biolur elkarteak EHUrekin batera bideratu du eta laguntzaile izan ditu Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua, Gipuzkoako Foru Aldundia eta

Eusko Jaurlaritza. Bergarako Ziarreta baserria izan da proiektuan parte hartu duenetako bat, eta ikasleak bisitan joango dira: "Elkarrekintza honen ondorioz, taldeak elikagaien zikloari dagozkion kontuak ikasiko ditu praktikatik: baserriaren funtzionamendua eta ekonomia, agroekologia zer den, baratzeko labore eta lanak, konpostak eta ongarrizak zikloan duen garrantzia eta abar".

## Bertako zuhaitzak landatzera deitu du Kukubasok biharko

Bertako basoa berreskuratzea helburu duen Kukubaso elkarteak zuhaitz landaketa deitu du biharko, hilak 17. Miguel Altunaren egoitza berrian elkartuko dira, 10:00etan, eta asmoa da 600 arte landatzea Agirretxebarrin; izena emateko eskatu dute, [kukubasoelkatea@gmail.com](mailto:kukubasoelkatea@gmail.com) helbidera idatzita. Tresneria antolatzaileek jarriko dute, baina eskertuko lukete nor bere aitzurra eroatea.

Kukubasok 2022ko urtarrilean iragarri zuen ia bi hektareako lur eremua jaso zuela lagapenean Agirretxeberri baserriaren ondoan, eta, orduetik, 330 bat astigar eta haritz landatu dituzte, eta ezkur bilketa ere egin dute, txikienek mintegi bat egin dezaten.

## EAJk lau proposamen aurkeztu ditu udal aurrekontuetarako

Abenduaren 19ko bilkuran onartzekoak diren 2023ko udal aurrekontuen bueltan EAJk lau proposamen egin dizkio Udal Gobernuari: Martokoa kalea berriro urbanizatzea -900.000 euro partida nahi dute-, Simon Arrieta plaza berritzea -900.000 euro partida-, Agorrosin zelaiko bigarren fasearen pleguak idaztea -50.000 euroko partida- eta subiranotasun energetikoa -1.300.000 euroko partida-. Gainera, jeltzaleak kritikatu dira EH Bilduren partetik jaso duten aurrekontu proposamenarekin: "Ez dute inongo proiektu berritzaileak aurkeztu, ezta inolako planifikaziorik proiektuak aurrera ateratzeko".

## Artola izango da EH Bilduren alkategaia udal hauteskundeetan

EH Bilduren Mahai Politikoaren proposamena oinarriek berretsi ostean, 2019ko ekaina ezker Bergarako alkatea den Gorka Artola izango da alkategaia 2023ko udal hauteskundeetarako. EH Bilduren oinarrien babesa jaso izana eskertu du Artolak: "Asko egin dugun arren, lan handia dugu oraindik". Hautagai bakarra izan da Artola.



Gorka Artola, artxiboko irudi baten. J.B.

## OHARRAK

### Gabonetako erakusleho lehiaketako bozketa

Herritarrek hamar erakuslehoaren artean aukeratu beharko dute, domekara arte: [www.bergara.eu/erakusleho-lehiaketa-2022](http://www.bergara.eu/erakusleho-lehiaketa-2022). Udalak bonuekin trukatzeko 900 euro banatuko ditu, lau saritan, abenduaren 20an; epaimahaia Udalaren Herritarren batzordeak, Bedelkar merkatarri elkarteak, Beart arte elkarteak eta Gipuzkoako Bazkundeak osatzen dute.

### Katxalin elkartearen azoka solidarioa

Domekan egingo dute azoka, Iralan (11:00). Dirua onkologikoan edo pediatrian ingesatuta dauden umeentzat literatura erosteko bideratuko da. Katxalinetik gogoratu dute bularreko minbizia duten emakumeei bihotz formako burkoak egiten dizkietela.

### 'Ikusezinak, erbesteratuen haurrak' liburua

Miren Azkarateren liburuaren aurkezpenaren ostean, Azkaratek berak eta Joseba Sarrionandiak solasean egingo dute. Abenduaren 19an izango da, Olaso dorrean (19:00).

### Patxi Larrañagaren erroten gaineko liburua

Larrañagak *Bergarako errota*. *Molinos de Bergara* liburua aurkeztuko du abenduaren 20an Seminarixoa (19:00).



# Gabonetako kontzertuak izango dira asteburuan

Bihar, abenduak 17, egingo dute 42. Bergarako Gabonetako kontzertua, Udal Pilotalekuan, 20:30ean; halaber, gaur, Bergarako Musika Eskolako ikasleak arituko dira frontoian, eta etzi, Bergarako Txistulari Banda udaletxeko osoko bilkuren aretoan

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA Gabonetako kontzertuaren 42. aldia da aurtengoa eta Bergarako Musika Banda, Aritzeta Abesbatza, Bergarako Orkestra Sinfonikoa eta Bergarako Orfeoia eta Orfeoi Gaztea arduratuko dira bihar Udal Pilotalekua girtzeaz, 20:30ean hasita.

Talde bakoitzak hainbat pieza taularatuko ditu: Bandak *Fate of the Gods* eta *Olentzero oportetan* interpretatuko ditu; Aritzeta, berriz, *Yo vengo ofrecer mi corazón*, *Casiopea*, *Axuri Beltza* eta *The Work of Christmas*; eta Orkestra Sinfonikoa, *Romeo* eta *Julietta* eta *Of the father's love begotten*. Orfeoia eta Orfeoi Gaztea batera arituko dira *Bizirik gaudelako* eta *Happy Xmas* jotzeko, eta, ondoren, *A Little Jazz Mass*, *Kyrie*, *Gloria* eta *Swingin' with the Saints* abestuko ditu Orfeoia.

Azkenik, emanaldia amaitzeko, Enrike Txurrukak moldatutako Karl Jenkinsen *Tintinna-*

*bulum* musikatuko dute parte-hartzaile guztiak Txurrukaren zuzendaritzapean.

Sarrerak [www.seminarixoa.eus](http://www.seminarixoa.eus) webgunean eros daitezke, zortzi eurotan.

## Ikasleen eta txistularien txanda

Gaur, 18:30ean, Bergarako Musika Eskolako ikasleen Gabonetako kontzertua hartuko du Udal Pilotalekuak. Talde hauek hartuko dute parte: Suzuki taldeak; Musika eta Mugimendu Taillerreko ikasleak; Hasiberrien Abesbatzak; trikiti, pandero, perkusio eta dantza taldeak; Haurren Abesbatzak; eta Orkestra Sinfonikoa eta Gazte Bandak.

Talde bakoitzak interpretatuko dituen piezez gain, talde guztiak elkartuko dira Huntzaren *Olatu bat* jotzeko.

Bestalde, Bergarako Txistulari Bandaren Gabonetako kontzertua etzi, domekan, izango da, 13:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

## Solasaldi ilustratua Asisko Urmenetarekin gaur arratsaldean

*Amaiur! Libera State* da Asisko Urmenetaren azken lana, eta solasaldi ilustratua egingo du gaur, arratsaldeko zazpitan hasita, kartzela zaharrean. Komikigile iruindarrak gustuko du euskal historiari buruzko sorkuntza-lanak egitea, eta urte berezi batean kaleratu du azken liburu grafikoa; hain zuzen ere, Gaztelako 7.000 gizonez osatutako armadak Nafarroako Erresumaren gotorleku zen Amaiurko gaztelua inbaditu zuenetik bost mende igaro direla. Lan horretan aztertu ditu konkista-gerra haren kronologia eta okupazioaren makineria, 1512tik 1522ra bitartean, baita inbasioaren aurkako erresistentzia ere.

## Elkartasun hostoak eta gaztainak, Ametza Ikastolaren alde

Aranzadi Ikastolak gaztaina errearek eta elkartasun hostoak salduko ditu Lapurdiko Ametza Ikastolaren alde gaur, arratsaldeko bostetatik zortzietara, frontoian eta Irala kalean. Gaurko salmentarekin, duela aste batzuk Arizmendi Ikastolak martxan jarritako egitasmoari jarraipena eman nahi dio Aranzadik, eta badute erronka: arratsaldean bildutako diruarekin Iparraldeko ikastolako berogailuren tenperatura bi gradu igotzea. Izan ere, ekintza berarekin Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan guztira 5.333 euro bildu zituzten eta jasotako dirua Ametza Ikastolako berogailua jartzeko bideratu zuten.



COVID-19ak baldintzatuta egin zuten Gabonetako kontzertua iaz. IMANOL SORIANO



## LANERAKO FORMAZIOA

### %100 DIRULAGUNTZAREKIN

LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE			
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
IKASTARoen IZENAK		ORDUAK	DATAK
UF0876	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUJETAKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK. <b>PLANGEN IRAKURKETA</b>	60	2023/01/23 2023/02/27
UF0878	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEK. ERAGIKETATAN MAKINAK, TRESNERIA ETA ERREMINTAK PRESTATZEA. <b>KONBENTZIONALA</b>	80	2023/03/13 2023/05/09
UF0879	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO <b>CNC</b> PROGRAMAK PRESTATZEA	80	2023/02/06 2023/03/23
UF0453	FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUETARAKO IRUDIKAPEN GRAFIKOA <b>SOLID WORKS. MODELATZEA ETA PLANOAK</b>	40	2023/01/23 2023/02/15
FMEH0035H	SOLID WORKS II. <b>MULTZOAK</b>	30	2023/02/21 2023/03/08
FMEE0035OH	3D CAM NX-CAM PROGRAMAZIOA D <b>NX-CAM</b>	40	2023/03/13 2023/04/04
FMEH0075OH	EGIAZTAPEN TRIDIMENSIONALA. <b>M-COSMOS</b>	30	2023/03/06 2023/03/21
	EGIAZTAPEN TRIDIMENSIONALA. <b>PC-OMIS</b>	30	2023/04/24 2023/05/10
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
FMEM009PO	ROBOTIKAREN DINARRIAK	50	2023/01/16 2023/02/13
OC21200149	AUTOMATAK PROGRAMAGARRIAK	60	2023/02/27 2023/03/30
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA			
ADGD0097OV	EXCEL AURFERATUA	30	2023/01/16 2023/02/14
LEHENTASUNA: LANGABETUAK / GAITASUN ZIURTAGIRIAK / PRAKTIKAK ENPRESETAN			
FMEE0108	FABRIKAZIO MEKANIKOKO ERAGIKETA OSAGARRIAK	400	2023/02/06 2023/06/15










Agirrebidea,2 - 20570 Bergara (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 89 92 72 - 688 81 50 70 - ikastaroak@maltuna.eus

AGINTALDI AMAIERAKO ELKARRIZKETAK

# "Gobernatzeko eredutik, behar bezala erantzun diegu erronkei"

IZARO ELORZA ARREGI OÑATIKO ALKATEA

Pandemiak baldintzatutako agintaldian "pertsonak erdigunean" jarrita egin dutela lan dio Elorzak, eta, "beti bezala", herritarrek izan dutela lehentasuna

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Lehen agintaldia izan da Izaro Elorza Arregi (Oñati, 1983) Oñatiko alkatearendako eta iragarri du hurrengo hauteskundeetan berriz aurkeztuko dela. Pandemiak baldintzatutako agintaldia izan arren, erronkei behar bezala erantzuten jakin dutela uste du, "EH Bilbuk propio duen gobernatzeko eredutik", eta ari direla hasierako asmoak betetzen. **Nola baloratzen duzu agintaldia?** Gorabeherek ezaugarritu dute azken urteotako testuingurua. Unean uneko erabakiak hartu beharra izan da, herriaren eta herritarren egunerokoan zuzenki eragingo zituzketenak. Hala-koetan, garrantzitsua izan ohi da Udal Gobernuak gobernatzeko duen eredua. Elkartasunetik gobernatzen dugu guk, partaidetzatik, elkar zaintzatik, gertutasunetik, berdinetik berdinerako harremanetatik. Hori funtsezkoa da krisiei aurre egiterakoan. Eta lortu dugula esango nuke. Ez dira urte errazak izan, baina EH Bilduk propio duen gobernatzeko eredutik, heldutasunetik, erronkei behar moduko erantzuna eman diegula esango nuke.

**Zenbat baldintzatu du pandemiak?**

Sekulako eragina izan du azken urteotako agintaldian. Egunerokoaren iraultzea ekarri zuen. Lan egiteko modua ere aldatu

zuen, eta ordura arte ezezagun genituen erronka berriak agertu ziren. Ez zegoen ezer asmatura, eta, kasu askotan, ez zegoen aurrekaririk. Momentukoa aztertzen, balizko irtenbideak topatzen eta egoerari aurre egiteko egitasmoak abiarazten jardun genuen. Gainera, bestelako erakunde batzuetako erabakiek ere bazuten eragina udal mailan –Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzan–, eta hor ere oreka bilatu behar izan dugu. Oñatik, herri guztiek bezala, bere berezitasunak ditu. Garrantzitsua da bakoitzaren ezaugarrietara egokituriko erabakiak hartzea. Hor, beti bezala, oñatiarrak izan genituen lehentasun. **Nolakoa izan da egindako lana? Ze jarri duzue erdigunean?**

Pertsonak. EH Bilduren Udal Gobernuan oso barnean daroagu hori. Oñatiarren ongizatearen eta berdintasunaren alde dihardugu. Hartutako erabaki bakoitzean, alor batekoan zein beste-koan, horixe bera da erdigunean jarrita duguna. Esango nuke erronka konplexuak izan baditugu ere egoki egin diogula aurre urte hauetan etorri denari. Hori Udal Gobernuaren inplikazio mailari esker izan da.

**Bete dira hasierako helburuak?**

Oro har, esango nuke bagabiltzala helburuak betetzen. Alor ezberdinetako herritarrek

batera osaturiko Herri Programarekin hasi genuen agintaldia, eta altua da betetze maila. Egia da kasu batzuetan uste baino luzeagoa dela bidea, eta baliteke geure gain ez dauden hainbat baldintzak eraginda ezinezko izatea abiarazi gura ziren zenbait egitasmo aurrera ateratzea. Baina, oro har, bide onean goaz. Gobernatzeko era aldatu zen Oñatin duela hamaika urte pasa, eta bide horretan jarraitzen dugu. **Zelako harremana izan duzue oposizioarekin? Egon da elkarlanik?** Harremana egon da, bai. Dena den, zorritzarekin, alde handia egon da euren hitzetatik euren ekintzetara. Alegia, herriaren mesedetan oposizio eraikitzailea egin gura zutela esan izan dute sarri, proposamen serioak egingo zituztela, Udal Gobernuarekin elkarlaneko bideak jorratu... Baina, kasu gehienetan, ez da horrela izan. Proposamen gutxi jaso ditugu eta potoloena hedabideen bidez heldu zaigu: Bere-

**"BIDE ONEAN DOAN HERRIA DA OÑATI, EZ DAGO GELDI"**

**"LANKETA HANDIKO HAINBAT PROIEKTU IZAN DITUGU ABIAN"**



Izaro Elorza, herriko plazan. O.E.G.

zaoko kirolgunea. Gainera, oinarri teknikorik gabekoak ziren, emaitzara –irudia, planoan– mugatzen zirenak. Beste adibide bat da Musika Eskolarena; emaitza izan zitekeena hor zegoen, baina aurreko azterketa eta lanketa guztia falta zen. Esan barik doa euren proposamenak argitaratu zirenean Oñatiko Udalak martxan zituela zegozkien azterketa prozesuak. Eta bazezkiten hori.

**Kontuan izan dituzue haren proposamenak?**

Esan moduan, egin dituzten proposamen nagusiak –hedabideetatik soilik jaso bat– aurre-lanketa bakoak ziren, oinarri gabekoak. Tamaina horretako inbertsioak –Azkoagain futbol zelaiarena eta musika eskolarena, kasu– eskatzen dituzten proiektuen inguruko proposamenek lanketa handiagoa behar luketela uste dugu. Ezin daiteke irudi bat aurkeztu, horrek dakarrenaz, bideragarritasunaz, egiteko aukerez edo beharren asetze mailaz berba egin gabe. Dena den, gaitzespenaren tranpan erori gabe, EAJk

Azkoagain loturik Berezaorako egin zuen proposamena ordurako martxan zen azterketa teknikoan sartu zen. Eta futbol zelai berria Betiken egitearen alde egin zuen azterketa teknikoak –Aloña Mendik ere aukera hori hobetsi zuen–. Gainera, alde nabarmena dago bi aukerek exijituko luketen inbertsio mailan: 8,3 milioi euro Betikekoak eta 14,5 milioi euro Berezaokoak.

Gainerakoan, legealdia hasi zenetik ez dute aparteko proposamenen egin eta aintzat hartu denean ez dute prozesua errespetatu; futbol zelaiaren azterketa horren adibide.

**Zein egitasmo nagusi egin dira?**

Lanketa handia eskatu duten hainbat proiektu izan ditugu martxan: Zubikoa kiroldegia eta Natur Eskola eraberritzea, parte-hartzea, lankidetzaren publiko-soziala eta irekiera instituzionalerako araudia onartzea, Esperientziaren Gela, haerriko jolas guneen diagnostia, Onaro zerbitzua, Energia Plana... Eta pozik gaude emaitzekin. Aurrera begira ere era bereko lanketa eskatuko duten proiektuak ditugu.

Tartean, hasita dagoen Emakumion Etxia sortzeko prozesua, etorkizuneko musika eskolarako balizko aukeren azterketarekin gabiltza, landua dago Urrutxurako kirol eta aisi-gune proposamena, partaidetzazko aurrekontuetan hobetsi diren egitasmoak, Unibertsitatea herrira zabaltzeko lanean ari gara eta abian da Kale Zaharreko, Aita Madinako eta Otadui zuhaitziko irisgarritasun plana.

#### HAPO eguneratzeko lanketa zein puntutan dago?

Sarri aipatu den bezala, HAPO bat landu eta onartzeko prozesua oso luzea izaten da. Gainera, fase ezberdinak daude, batzuk publikoak direnak, herritarren parte-hartzea eskatzen dutenak, beste batzuk udal mailako azterketak mugatzen dira eta azkenik, barne mailako lanak direnak, idazketa taldearen esku daudenak, zeinak hartutako erabaki horiek guztiak planean txertatu eta proposamen zehatzak egin behar dituen.

Une honetan azken horretan ari gara, idazketa taldea dokumentuarekin ari da lanean. Jaso bezain laster hasiko gara aztertzen. Oniritzia dagoenean, Hasierako Onarpena izango genuke eta Eusko Jaurilaritzara bidaliko genuke. Denbora eroaten du baina gauzak ondo egin gura direnean, beharrezkoa da hori.

#### Noiz hasiko da betetzen Energia Plana? Zerekin hasiko zarete?

Dagoeneko hasiak ditugu Oñatiko Energia Planeko zenbait esku-hartze. Gehienak aurre-lanketan dira dagoeneko: informazio gardenerako informazio bulegoa, energia prezio justu-gorako plana, argindar sorkuntzarako gune berriak, autokontsumoa eta energia kontsumoaren murriztea eraikin publikoetan, kaleko argiteriako teknologia iraunkorrak, auto elektrikoendako karga puntuak. Lotuta daude asko. Epe motzean hasiko gara emaitzak ikusten.

### "ENERGIA PLANEAN, LASTER IKUSIKO DITUGU EMAITZAK"

### "OPOSIZIOTIK, ALDEA EGON DA HITZETATIK EKINTZETARA"

#### Zer proposamen dituzte oñatiarren ongizatea zaindu eta hobetzeko?

Pertsonak, herritarrak, erdigunean dituen eredu bat. Kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzeko egiten dugu lan; horren adierazle da datorren urteko aurrekontuetan partidek gora egiten dutela. Ez dugu inor bazterrean utzi gura. 2023an, %10eko igoera izango dute, orokorrean, dirulaguntzek, norbanakoan zein elkarrean. Argi dugu Oñatiko Udalak herritarrekin besterik ezin dezakeela aurrera egin. Eta beharrezkoa da horretarako bitartekoak izatea. Eta zerbitzu publikoei dagokionez, mantendu egingo dira batzuk, indartu, beste batzuk eta berriak ere sortuko ditugu.

#### Nola ikusten duzu Oñati? Zer behar du? Zer oñatiarrek?

Esango nuke, oro har, bide onean doan herria dela Oñati. Ez dago geldid, inondik inora. Dabilen herria da egunerokoan, jende asko, talde asko, dabilelako lan egiten gauzak hobetzeko konpromisoz, bakoitza bere alorrean. Herritarrak eredu berri batean daude murgildurik: berdinetik berdinerako harremana, gertutasuna, partaidetza. Horretan sakontzen segitzea da asmoa. Hortik, herriaren beharren arabera egitasmoak sortzen eta eraikitzen dira, unean uneko erroñkei aurre egiteko.

#### Aurrekontuetako proposamenen artean jaso duzue Urrutxu zigilatzea, adibidez. Atletismo pista egiteko?

**Bestalde, herritarrek proposatutako proiektuak ere jasoko dira, ezta?** Ez da zigilatuko atletismo pista egiteko, zigilatuko beharra dagoelako, horrela ezin daitekeelako mantendu ingurumen aldetik. Esku-hartzea eginda, kirol eta aisi-gune bat proposatzen da. Partaidetzazko aurrekontuen inguruan, herritarrek egindako bederatzi proiektu sartu dira 2023an, eta 2024an egingo dira gainerakoak.

#### EH Bilduko alkategaia izango zara bigarren. Zer duzu eskaintzeko?

Lanerako gogoia, gertutasunetik, elkarlanetik, berdinetik berdinerako harremanetik. EH Bildun herri proiektu sendoa dugu landua Oñatirendako. Eta horretan sakontzen segitzea da daukagun asmoa. Gogoia, indarra eta esperientzia dugu. Dabilen herria izaten jarraitu gura dugu, eta prest gaude horretarako.



Gabonetako apaingarriak erakusleihen batean. IMANOL SORIANO

## Haurrek ere bota dezakete erakusleihen gustukoaren alde

Zazpi sari emango dituzte aurtengo Gabonetako erakusleihen lehiaketan; 25 komertziok hartu dute parte

#### O.E.G. OÑATI

Aurtengo Gabonetako erakusleihen lehiaketan saria egongo da 5 eta 12 urte bitarteko gazte-txoen boto gehien lortzen dituen erakusleihen artean. Horrez gain, herritarren saria ere egongo da eta beste hiru epaimahaiak emango ditu. Guztira, 2.000 euro banatuko dituzte, 1.800 euro sarrietan eta herritarren zein haurren sarirako parte hartzen dutenen artean zozkatuko diren 100 euroko bono bana. Udal webgunean sartuta edo abenduko *Kontzejupetik* aldizkariak ekarritako boto-orria beteta har daiteke parte lehiaketan. Erakusleihen artean 31 arte egon beharko dute apainduta, gutxienez, eta denda edo zerbitzuaren ohiko produktuak bistan izan beharko ditu. Epaimahaiak konposizioa, argiztapena, koloreak eta originaltasuna izango ditu kontuan.

#### Argia, mugatuta

Argiztapenari dagokionez, 22:00etatik aurrera ez da derri-gorrezkoa izango erakusleihen artean argia egotea. Kanean jarritako Gabonetako argiak, bestalde, urtarrilaren 6ra arte piztuko dituzte: 22:00ak arte lanegunetan eta gauerdia arte egubakoitzetan eta asteburuetan.

#### Prezio zehatza

Txandak, gainera, beste lehiaketa bat jarri du martxan Gabonei begira: elkarteko denda guztietako produktuekin osatutako erakusleihen artean prezio zehatza asmatu beharko dute herritarrek. Gehien hurbiltzen denari 500 euro emango dizkiote, bigarrenari 300 eta hirugarrenari 200. Beste parte-hartzaileen artean 100 euroko eroketa-txartelak zozkatuko dituzte: 3.700 euro, guztira.

## Elorza, berriz zerrendaburu

Izaro Elorza izango da datozen udal hauteskundeetarako EH Bilduk aurkeztuko duen zerrendaburu eta astean egin du kultura etxean aurkezpen ofiziala, bilkideen babespean. Hautatzeko barne prozesua amaituta, hautagaitza babes zabalarekin berretsi dutela aitortu dute bilkideek, eta orain arteko bidea jarraitzeko pertsona egokiena dela azpimarratu.



IÑIGO BARRENA

## NIRE USTEZ

AMAIA EROSTARBE  
LETAMENDI

### Aurrekontu parte-hartzaileak

Aurrekontua da erakundearen dokumentu ekonomiko nagusia, eta, besteak beste, tokiko politika publikoaren lehentasunak zehazten ditu, urtebeterako. Gipuzkoan, Foru Aldundiak gobernantza irekiaren eredu sustatu du azken bi legealdietan, herritarren parte-hartzea jomugan. Hala, aurrekontu irekiak bultzatu ditu gipuzkoarren proposamenak txertatzeko aurrekontu orokorrean. Aldundiaren ildotik, beste hainbat herritan ere eratu dira partaidetzazko aurrekontuak: Arrasate, Getaria, Irun, Lasarte-Oria, Zarautz... Oñatiko Udalak ere bi aldiz eman die aukera herritarrei Udaleko proiektuetan zuzenean eragiteko, udalbatzako bi alderdi politikoen adostasunarekin eta lanketarekin (EH Bildu, EAJ) eta 500.00 euroko diru-lerroarekin: 2018an (19/20 urteetarako) eta 2022an (23/24 urteetarako).

Azaroan bozkatu dira teknikoki bideragarri irizitako 21 proposamenak; bederatzi aukeratu dira. Horien artean, Udalak aldiro egin beharko lituzkeen mantentze-lanak daude, baina ez dituenak egin: plazako kioskoaren eta frontoiaren arteko zoladura berriztu, Berezaoko mahaiak eta bankuak konpondu eta Iturrigorriko zelaia garbitu.



Oñatiko plazan gabonetako argiak piztuta. GOIENA

# Gabonak ate joka daude, egitarau zabalarekin

Musika eta familian disfrutatzeko ekintzak dira urtarrilaren 8ra bitartean antolatu dituzten Gabonetako ekitaldi gehienak. Hasteko, Izan Inurri elkarteak antolatutako bertso saio musikatua gaur eta Hator Hator kontzertua domekan Zubikoako pilotalekuan

## Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Musikak protagonismo handia izango du aurtengo Gabonetan Oñatin. Hasteko, gaur arratsalderako bertso saio musikatua antolatu du Izan Inurri minbizidun emakumeen elkarteak Santa Anan. Domekan, berriz (12:30), Zubikoako pilotalekuan ohiko Hator Hator kontzertua izango da; Oñatiko Abesbatzak eta musika bandek parte hartuko dute. 670 lagunendako izango da, gehienez, edukiera, eta sarrerak Txokolateixan har daitezke.

Musika emanaldi gehiago ere izango dira Gabonetan; tartean, Ruper Ordorikaren kontzertua 23an, Ispiritu gospel taldearena hilaren 30ean Santa Anan, Errege Egunean Musika Bandak egingo duena, Entzunaldia denboraldiko bigarren kontzertua –Euskaraldia izenekoa– eta Hots Abesbatzak eta Aequus Ensemble Orkestra Sinfonikoak parte hartuko duten *Illuminations* kontzertua urtarrilaren 8an.

## Familian gozatzekoak

Hainbat izango dira familian gozatzeko aukerak Gabonetan. Bihar bertan, Go!azen taldea dator Santa Anara kontzertua eskaintzera, eta Arrikruzten ginkana eta espeleotxiki abenturak izango dituzte. Abenduaren 28an, Potx eta Lotx pailazoan *Aireportuan* lan berria ikusi ahalgo da Santa Ana antzokian; bi ikuskizun egingo dituzte eta sarrerak Txokolateixan daude salgai. Urte berriarekin batera, urtarrilaren 3an eta 4an etxeko txikienentzat ohe elastikoak eta puzgarriak jarriko dituzte kiroldegian. Urtarrilaren 7an, berriz, Ganbara kantu eskolak prestatu duen *Ikustezinak* izeneko lana izango da Santa Anan.

**MUSIKA ETA FAMILIAN GOZATZEKO EKINTZAK IZANGO DIRA URTARRILAREN 8RA ARTE HERRIAN**

## Hitzordu klasikoak

Betiko hitzorduak ere ez dira faltako egitarauan. Herritarren artisau azoka, esaterako, domeka honetan egingo dute. Olenzteroren eta Mari Domingiren bisita prestatzeko, bihar postontzia jarriko dute Santa Ana antzokiko sarreran gutunak jasotzeko, eta abenduaren 24an joango dira plazara, 12:30ean. Urteko azken egunean, arratsaldez betiko moduan, ez da falta San Silvestre lasterketa.

Gabonak ondo amaitzeko, berriz, Ekialde Hurbileko hiru erregeek parrokan hartuko dute atsedean urtarrilaren 5ean, eguerdian, ibilaldiarekin jarraitzeko. Gauean, aldiz, urtero bezala, bertso saioa izango da kiroldegian, Bertsolari Txapelketako Nagusiko finalera iritsi diren Aitor Mendiluze, Sustrai Colina, Alaia Martin, Beñat Gaztelumendi, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariekin. Sarrerak datorren astean jarriko dituzte salgai.

## 'Kirol boluntariotza kolokan' mahai-ingurua Santa Anan

Udaleko Kirol Sailak antolatuta, *Kirol boluntariotza kolokan* mahai-ingurua izango da hilaren 21ean (19:00) Santa Ana antzokian. Aratz Losadak gidatuta, boluntariotzaren egoera zailaren aurrean arituko dira Oñatiko hainbat kirol eragiletako gonbidatuekin: Ainara Diaz de Gereñu (Abixaran), Iñaki Mugarza (txirrindularitza saila), Ainhoa

Zumalde (tenis saila) eta Aitor Biain (eskubalo saila). Publiko guztiarentzat zabalduetako hitzaldia izango da eta parte hartzaile zein ikusleen artean arazoari konponbidea ematen saiatuko dira.

Amaieran, Maria Cruicshankek gaiari buruzko hamar minutuko parodia egingo du. Gainera, solasaldiaren ostean, jatekoa eta edatekoa egongo da; gaiaren inguruan landu denari buruz luze eta zabal aritzeko aukera paregabea, beraz.

## Domekan egingo du mendi sailak urteko azken irteera


Plentzia, Gorliz, Legorri lurmuturra, Ermua eta Armintza ezagutuko dituzte urteko azken irteeran. Guztira, hamabi kilometroko ibilbidea egingo dute, erraza, lau ordu inguruan egingo da. Goizeko zortzietan abiatuko dira, posta geltokitik, eta, behin ibilbidea Armintzan amaituta, bazkaria egingo dute urteari amaiera emateko.

## Zubikoa kiroldegiko igerilekua, itxita bihar arratsaldean

Igeriketako Neguko Liga Probintzialeko laugarren jardunaldia jokatu da bihar arratsaldean Zubikoako kiroldegiko igerilekuan, eta bertan parte hartuko dute Aloña Mendiko igeriketa saileko igerilariak ere. Horren ondorioz, kiroldegiko erabiltzaileentzat itxita egongo da igerileku zerbitzua bihar arratsalde osoan.

## Akuarela erakusketa

Jose Angel Iturbe margolariaren *Elorriaren hotsa* erakusketa dago ikusgai astelehena ezker kultur etxeko erakusketa gelan. Abenduaren 23ra bitartean akuarelarekin margotutako hainbat artelanekin gozatzeko aukera egongo da. Erakusketa arratsaldez egongo da zabalik publikoarentzat eta ordutegia sei etatik zortzietara izango da.



GOIENA



# Realaren eta Osasunaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



**Hartu parte zozketan!**

## GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Osasuna partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Abenduaren 31n, zapatua, 16:15ean.

Parte hartzeko azken eguna: abenduak 26



Eserlekuak Premium gunean



Catering zerbitzua



Aldageletako tunelean jokalariek ikusteko aukera



Ikus-entzunezko erabilerak



Atentzio eta zerbitzu pertsonalizatua



353 metro karratuko gunea

**Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!**



**1.** Aplikazioa deskargatu.

**2.** Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

**Gertu.** Zorte on!

**goiena<sup>™</sup>  
kide**

**Okm:** batzen gaituen distantzia



[www.goiena.eus/kideak](http://www.goiena.eus/kideak)

# "Gustatzen zait tantoa gantxoaz amaitzea"

**ANDER MURUA** PILOTARIA

**PILOTA** Arrasatekoak Lezoko eta Logroñoko Joaquin Plaza torneoak irabazi ditu eta urtea amaitu aurretik beste bi txapel izango ditu jokoan, Villabonan eta Zaldibarren

**Xabier Urzelai Atxa** ARRASATE

Duela bi aste Juan Martinez de Irujok jantzi zion, Adarraga pilotalekuan, Joaquin Plaza torneoko txapela. *Streaming* bidez eman zituzten partiduak, eta Iberoko pilotari ohia izan zen esatari lanetan. Beasaingo Garmendia atzelariak lagunduta finalean ondo gailendu ziren (22-10). Hala, 2021 ikusgarri baten ondoren, 2022a ere pozik amaituko duela dio arrasatearrak.

**Amateur mailako torneoek geroago eta ikusgarritasun handiagoa dute?**

Izan daiteke, teknologiak ere bideratzen du hori. Partidu batzuk Facebook bidez ematen dituzte, edo *streaming* bidez, edo ETB4 katean... Sare sozialetan ere izaten dute oihartzuna. Ez da maila profesionala, baina torneo batzuek jarraitzaile kopuru polita izaten dute.

**Finalean ederto ibili zinen, baina zure atzelari Garmendia beasaindarrak partidutzarra egin zuen.**

Bai; profesionaletan egondakoa da eta oso maila onean dabil, koska bat gorago dago. Torneo horretan hiru partidu gainditu genituen eta finala ere oso maila onean jokatu genuen.

**Lehenengo hamar tantoetatik hiru gantxoaz egin zenituen. Hori da zure indarguneetako bat?**

Bai, izan daiteke. Saiatzen naiz tantoak gantxoaz amaitzen, entrenatu ere egiten ditut eta eraginkorrek dira, baldin eta egun ona baldin badaukazu.

**Profesionalak aipatu dituzu; baztertuta dago amets hori?**

Pilotari batek beti izaten du ilusio hori, profesionaletara iristearena, nahiz eta jakin oso zaila dela. Nik 22 urte ditut jada, eta gazteagoen aldeko apustua egiten dabilta. Aspekoekin entrenatzen naiz, tarteka, eta ahalgintzen gara neurria ematen, itxura ona ematen. Baina bai, oso zaila da. Amateur mailan ere badago, dena dela, pilotaz



Ander Murua, aste barruan Goiena telebistan. X.U.

## "PILOTARI PROFESIONAL IZATEKO AMETSA EZ DA INOIZ GALTZEN, NAHIZ ETA OSO ZAILA DEN"

goatzeko aukera eta esango nuke maila polita dagoela kategoria honetan.

**2021ean munduko txapelkun izan zinen. Halako urte on baten ondoren langa oso goian egoten da.**

Bai, baina gustura geratu naiz aurten egin dudanarekin. Burgosko klubarekin Espainiako txapelketan hartu nuen parte, lehenengoz maila absolutuan, eta gustura ibili nintzen. Gero, hilabete eta erdiz geldu egon nintzen, eskuko arazo batzuk tarteko, baina egoera gaintu eta Lezoko torneoak irabazi izana, esaterako, garrantzitsua izan zen [hor ere Garmendiarekin osatu zuen bikotea]. Gainera, Lezoko torneoan lehenengoz jokatu nuen, eta irabazi egin genuen; afizionatu mailan torneo oso ona da.

**Ze torneo geratzen zaizkizu urtea amaitzeko?**

Bada, Villabonako Antton Pebet memorialean finalerdietako partidua jokatuko dut egubakoitzean [gaur] eta Zaldibarko Olazar torneoan ere hartuko dut esku urtea amaitu aurretik.

**Profesionalen gainean galdetuko dizut. Oraindik pilotazaleen gogoan dago Ezkurdiak eta Altunak lau eta erdian jokatu berri duten finala.**

Sekulakoa izan zen. Orain momentuan oso pilotari gutxi dute abiadura horretan jokatze gaitasuna. Izan ere, telebistan ez da ondo bereizten, baina bertan bazaude...

**Hasi berri dute eskuz binakakoa. Pronostikorik egiterik?**

Goiz da oraindik, eskuz binakakoa txapelketa luzea da eta ikusteko dago martxo amaierara ze bikote iristen den sasoi onean. Baina Zabaleta hor egongo da, Altuna inoiz ezin da baztertu... Hala ere, nik esperantza handia daukat jarrita Beñat Rezustarengan.

**Bada, Rezustak abenduaren 22an Arrasaten jokatuko du, santamasetako jaialdi barruan...**

Bai, eta pena da... Zoritxarrez, nik ere partidua izango dut egun horretan eta ezingo naiz Uarkapen egon.



Joan den zapatuan, Zumaia koren kontra. GOIENA

## Mondrak lehenengo pausoa eman du zulotik irteten hasteko

**FUTBOLA** Talde arrasatearrak entrenatzaile berria aurkeztu du aste barruan, David Muñoz lasartearra

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Gaitasunik ezagatik baino gehiago, Mondraren bolada txarrak zamatik izan du asko. Liga txarto hasi eta bizkar gainean pila-tzen joaten den zama. Egon dira gaitetik pasa diren taldeak – Hernaniren kontrako 5-0ekoa, esaterako –, baina beste partidu asko tarte txikiagatik galdu dituzte, eta gehiago merezi izan dute. Hala, Tolosaren kontra ligako lehen garaipena eskuratu ostean (1-0), aste barruan talde zuri-moreak entrenatzaile berria aurkeztu du. Jorge Santiago kirol zuzendariak hilabetez jardun du prestatzaile moduan; hortaz, haren testigua jasoko du David Muñozek.

Vasconiari irabazita (4-2) arnasa hartu duen beste talde bat da Aretxabaleta. Haien bolada txarrak gutxiago irautu du, lau jardunaldi, baina nahikoa izan dira atzealdeko postuetara ger-

turatzeko. Tolosaren zelaian jokatuko dute bihar.

**Bergara ere zuloan**

Agorrosin berrian jokatutako lehen partiduan 1-3 galduta, mahoneroek beste aukera bat izango dute zelai berriari neurria hartzen joateko. Sailkapenaren erdialdean dagoen Amaiak Baten bisita izango dute.

Bada, Aloña Mendik ere ez du nahi urtea azken asteotako zapore gaziarekin amaitu. Oñatiarrek galdu egin dituzte azken hiru partiduak, eta domekan etxean izango dute, Añorgaren kontra, 2022a ondo agurtzeko aukera.

Emakumezkoetan, Leintz Arizmendik eta Bergarak etxean jokatuko dute; biek izango dituzte erdialdean dauden taldeak aurrean: Bergarak Lagun Onak hartuko du eta Leintz Arizmendik, Antiguoko.

## FUTBOLA Josu Zubia, Entrenatzaileen Batzordeko zuzendari

Josu Zubia aretxabaletarra izango da Gipuzkoako Futbol Federazioko Entrenatzaileen Batzordeko lehendakari berria. Zubia Debagoieneko hainbat futbol taldeko entrenatzaile izan da –Mondra, UDA, Bergara eta Aloña Mendi–, eta iaiztik Gipuzkoako Federazioko Kirol zuzendaria eta Entrenatzaileen Eskolako zuzendaria ere bada.



Josu Zubia. GFF

# Azpiazu: "Zale horiek gera daitezela etxean"

**FUTBOLA** Joan den asteburuan, Aloña Mendiko ohorezko gazte mailako partiduan, zale gazte batzuek epailea iraintzearen zigorra jaso du klubak; ez denez lehenengo aldia, talde horrek Azkoagaintek kanpo jokatu beharko du urtarrilaren 8ko jardunaldian

**Xabier Urzelai Atxa OÑATI**

Aloña Mendiko ohorezko gazte mailako taldeak zigortuta hasiko du 2023a. Urtarrilaren 8an etxean jokatu beharreko partidua etxetik kanpora jokatu beharko dute eta 300 euroko zigorra ordaindu beharko du klubak –lehenago ere beste 200 euro ordaindu behar izan dituzte–. Joan den asteburuan Ilintxaren kontra jokaturako partiduan (1-2) zale talde gazte bat epailea iraintzen ibili eta gero etorri da zigorra, eta klubeko presidente Javi Azpiazuk aitortu du ez duela ezustean harrapatu, talde horrek lehenago ere jaso izan duelako bai abisua, eta baita isuna ere. "Nekatu gara dagoeneko, jarra horiek ez ditugu nahi Azkoagaintek", adierazi du.

**"Nekatu gara, leporaino gaude"**

Azpiazuk nabarmendu du gertaera horietaz gogaitu direla klubean: "Kontua da gu ere babesgabe gaudela; aztertu beharko dugu guk ere salaketa jarri edo bestelako neurriak hartu behar ditugun. Jarrera horiekin futbol-zelaira datozenak gera daitezela etxean, ez diotelako inongo mesederik egiten ez klubari, eta ezta ustez animatzerak datozen taldeari ere. Orain, ikusi egin beharko dugu urtarrila-



Ohorezko gazte mailako taldeak ezingo du urtarrilaren 8an etxean jokatu. M.B

ren 8ko partidu hori non jokatzeko dugun, ea antzularrekin berba egin eta euren futbol zelaietan joka dezakegun".

Azpiazuk berak azaldu du futbol-zelaiaren zegoela gertaerak izan zirenean: "Delegatua etorri zitzaidan abisatzera zale talde bat epailea iraintzen zebilela, sekulakoak esaten, eta bertaratu ginenenean guk ere ezin izan genuen askorik egin".

**Federazioak, arduratuta**

Oñatikoa beste futbol zelai askotan gertatzen dabilenaren isla

da. Asteburuan bertan, Trintxerperen zelaietan, kategoriatxiki-tako jokalariren baten guraso batek marrazainari eraso egin dio. Halakoak gaitzesteko Euskadiko Futbol Federazioak prentsa oharra helarazi du aste barruan: "Gure futbol zelaietan ugaritzen ari diren istilu larrien harira, Euskadiko futbol federazioek erabat gaitzesten eta zigortzen dituzte horrelako gertaerak, eta, gure kirolean gizalagearen aurkako edozein jokabideren aurrean tolerantziarik ez izateko politika berresten dute".

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

GIZ. OHOR. ERREG.

**Bergara-Amaikak Bat**

Zap. 16:30. Agorrosin.

**Tolosa-Aretxabaleta**

Zap. 16:30. Berazubi.

**Elgoibar-Mondra**

Zap. 18:00. Mintxeta.

**Aloña Mendi-Añorga**

Dom. 16:30. Azkoagaintek.

EMAK. OHOR. ERREG.

**Leintz Arizmendi-Antiguoko**

Zap. 11:30. Azkoagaintek.

**Bergara-Lagun Onak**

Zap. 13:00. Ipintza.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

**Aretxabaleta-Lakua**

Zap. 18:00. Ibarra.

**Betoño-Bergara**

Dom. 11:15. Betoño.

GORENGOEN MAILA

**Tolosa-Mondra**

Zap. 15:30. Usabal.

**Antzuola-Anaitasuna**

Zap. 16:30. Eztala.

**Getariako-Aretxabaleta**

Dom. 11:30. Orio.

**Ikasberri-Bergara**

Dom. 15:30. Garmendi.

### ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

**Jarrilerros-Eskoriatza**

Zap. 18:30. Portugalete.

**Mondrate-Labastida**

Zap. 17:30. Musakola.

GIPUZKOAKO TXAP.

**Gaintxu-Mondrate**

Zap. 20:00. Lezo.

### SASKIBALOA

EBA

**MU-Tabirako**

Dom. 18:30. Iturripe.

EMAK. LEHEN MAILA

**MU-San Inazio**

Dom. 16:15. Iturripe.

GIZ. LEHEN MAILA.

**MU-La Salle**

Zap. 16:00. Iturripe.



Martin Buesa. GOIENA

GIPUZK. LEHEN MAILA.

**Take-Soraluce BKE**

Zap. 16:00. Tolosa.

### ESKUBALOA

GIZON. EUSKA. TXAP.

**Fagor Profes.-Urduliz**

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

EMAK. EUSKAD. TXAP.

**Kukullaga-Cons.Aloña**

Zap. 17:30. Etxebarri.

GIZ. GIPUZK. TXAP.

**Hondarribia-Soraluce BKE**

Zap. 13:15. Hondartza.

**Mugarri Ingou-Urola**

Zap. 20:00. Iturripe.

### ERRUGBIA

GIZON. EUSKAD. TXAP.

**Kanpanzar ART-**

**Menditarak**

Zapatua. 16:30. Mojategi.

EMAK. EUSKAD. TXAP.

**AGT/Eibar-Uni Bilbo**

Zapatua. 13:00. Mojategi.

### ATLETISMOA

SANTAMAS KROSA

**Zapatua. 17:30. XLIV.**

Koadrilen lasterketa,

Arrasaten. Oharra:

16:15ean hasita

gaztetxoan lasterketak.

## PILOTA Emakumezkoen teknifikazio saioak Antzuolan

Abian da emakumezkoen teknifikazio proiektua. Gomazko piletan, esku pilotan zein trinkean egingo dituzte lan-saio horiek eta eskuz pilotakoak Antzuolan entrenatuko dira, Patri Espinarren eskutik. Madi Barrocal, Leire eta Naroa Galeano eta Olatz Isausti daude talde horretan. Guztira, 30 emakumezko ibiliko dira.



Antzuolan entrenatzen dabilta. GOIENA

## SANTAMASAK 2022

GOIENA TELEBISTA

'HEMEN DEBAGOIENA' BEREZIA,

ARRASATEKO SANTAMAS FERIAREN GAINEKOA

ABENDUAREN 22AN, EGUENEAN: 18:00, 20:00 ETA 22:00



DESKARGATU  
GOIENA  
APP BERRIA!

goiena  
Zu hemen zaude.



## DANBAKA ))))



Bergarako bi familiak osatzen duten Arragoa taldea. ARRAGOA



Bergarako eta Elgoibarko musikariek osatzen duten Islabat taldea. ISLABAT



Bergarako eta Azpeitiko musikariek osatutako Orhi seikote berria. ORHI



Arrasateko musikari eskarmentudunak batzen dituen boskotea. SINDY BERBENAS

# Azken lau balak jaurtitzeko gertu

Begarako Arragoa, Islabat eta Orhi taldeek Arrasateko Sindy Berbenas boskotearekin batera osatuko dute gaurko lehiakideen zerrenda; Seminarixoko agertokian izango dira, 21:30ean hasita; chill out gunean, DJ LP Woman –Lara Peman– izango da

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA Azken txanpara heldu da Goiena Komunikazio taldeak Bergarako Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzaz, Gazteria eta Kirol Departamentuaren eta Sein taldearen babesletza eta laguntzarekin antolatutako bosgarren Danbaka musika lehiaketa.

Aurreko lau kanporaketetan moduan, leihatilan eskuratutako behar dira sarrerak; lau euro, sarrera arrunta; *Goiena app*-a dutenentzako, bi euro; eta, Goienakideentzako, doan.

## Folketik punk-oi! doinetara

Aspaldiko lagunak diren Bergarako bi familiak osatzen duten Arragoa taldea izango da gaur, 21:30ean, Seminarixoko agertokira igotzen lehenengoa. "2015ean eman genuen lehen kontzertua eta harrezkero askotariko for-

matuetan jo izan dugu; betiere, folka oinarri hartuta. Guk sortu ditugun kantuek eta Irlandatik, AEBetatik eta Suediatik datozenak uztartuko ditugu errepertorioan".

Begarako eta Elgoibarko musikariek osatutako Islabat taldea izango da segidan. Rocka du taldeak oinarri, baina ez da ohiko rock talde bat. "Lokatzetan ondutako uzta izanik, Islabat soinu ilunen gourmetentzako dastatze-menua da, rocketik eta iluntasunetik edaten duen proposamena, estilo zehatz baten sailkatzeko zaila, intentsitatea-

**FOLK ETA ÑABARDURA ASKOTARIKO ROCK DOINUAK, BOSGARREN KANPORAKETAN ENTZUNGA!**

rekin jolastuz eta ñabardura askorekin betea".

Erritmo lasaiak eta azkarra-koak uztartzeko asmoz igoko da Bergarako eta Azpeitiko musikariak batzen dituen Orhi talde gero. Proiektuarekin hasi berri

badira ere, inor axolagabe ez uzteko moduko eskarmentua sumatzen zaio askotariko doinuak lantzen dituen seikoteari.

Arrasateko punk-oi! mugimenduen barruan 1996an sortutako Sindy Berbenas taldeak borbilduko du gaurko lehiakideen zerrenda. Urte luzez lozorroan egon dira, baina gogotsu daude, eta disko berria lantzen ari dira da horren erakusle. Ohi bezain *ganberro* jarrerarekin igoko dira taularen gainera.

## Chill out gunean, DJ LP Woman

Astigarragako Lara Peman (DJ LP Woman) gonbidatu dute Seminarixoko kanpoan dagoen chill out gunea girotzeko. 20:00etan zabalduko den gunean, bi saio eskainiko ditu, 21:00etatik 21:15era eta 22:45etik 23:00etara, *La Furia*-ren ikuskizunetan parte hartzen duen musikariak.

## Danbaka-Ekinez, sari berria

Aurreko aldietan moduan, epaimahaikideek erabakiko dute zein taldek edo bakarlariek eskuratuko duen diskoa grabatzeko saria, eta publikoaren boto gehien jasotzen duen formazioak izango du bideoklipa grabatzeko aukera. Bada, sari horiez harago, hirugarren sari bat ere izango da aurten: Danbaka-Ekinez izenekoa.

Danbaka musika lehiaketaren eta Bergarako Ekinez jaialdiaren elkarlanaren bidez, Debagoieneko musika talde hasiberri bati "zuzeneko oso berezi bat egiteko aukera ederra ematea" da sariaren helburua; hau da, 2023ko ekainaren 9an eta 10ean Bergaran egingo den bigarren Ekinez musika jaialdian jotzeko aukera izango du sariaren irabazleak. Urtarrilaren 13an jokatuko den finalean banatuko dira sari guztiak.

## Publikoaren Sariaren sailkapena

- 1 **AIERT**  
Oñati  
Botoen %19,40
- 2 **SUKENA**  
Oñati  
Botoen %16,60
- 3 **KIIMAK**  
Antzuola  
Botoen %12,43
- 4 **ILUMINATIZZ**  
Aretxabaleta-Otxandio  
Botoen %9,38
- 5 **KTARSIA**  
Bergara  
Botoen %7,94
- 6 **THE CLAYTON**  
Aramaio  
Botoen %6,18
- 7 **BROKEN LEGACY**  
Oñati  
Botoen %5,92
- 8 **112**  
Arrasate  
Botoen %5,53
- 9 **ERROMINTXELAK**  
Arrasate-Bergara  
Botoen %3,32
- 10 **JASAN**  
Aretxabaleta-Eskoriatza  
Botoen %2,34
- 11 **INGUMA**  
Oñati-Bergara  
Botoen %2,15
- 12 **ETXEPE**  
Arrasate  
Botoen %2,15
- 13 **LEMAK**  
Bergara-Antzuola  
Botoen %1,82
- 14 **ARRAGOA**  
Bergara  
Botoen %1,76
- 15 **LETAGIN**  
Oñati  
Botoen %1,24
- 16 **BALARRASA**  
Aramaio-Eskoriatza  
Botoen %0,65
- 17 **ORHI**  
Bergara  
Botoen %0,46
- 18 **EYHARTS**  
Bergara  
Botoen %0,33
- 19 **ISLABAT**  
Bergara-Elgoibar  
Botoen %0,20
- 20 **SINDY BERBENAS**  
Arrasate  
Botoen %0,20

## BOTOA EMATEKO

*Danbaka.eus* webgunean edo *Goiena.eus* webgunearen *Danbaka* izeneko kanalean eman daiteke botoa, **2023ko urtarrilaren 10era bitartean.**



# Kolektiboan dantza egiteko aldarria gizarteari

'Oasia' diskoa argitaratu du Arrasateko Assata taldeak, aurreko lanaren bidetik – *Dantzatu madarikatuok* (2020)–, egungo gizarteari zorrotz begiratuta; zortzi kantu garratz doinu dantzagarriekin eta alaiekin jantzi dituzte, Shot! estudioan grabatuta

**A. Aranburuzabala** ARRASATE

Durangoko Azokara eraman zuten, labetik atera berri, eta gustura dira jasotzen hasi diren feedbackarekin. "Ahotseneko kontzertuaren ostean feedback oso ona jaso genuen, eta gu ere gustura egon ginen. Aurreko diskoarekin, pandemiaren eraginez, gura beste kontzertu egiteko aukerarik ez genuen izan, eta jendeak transmititu diguna da pozik dagoela ekarri dugun proposamen berriarekin", dio taldeko abeslari Arkaitz Blaiinek.

**'Pluralean dantzatu', lehena**

Diskoa argitaratu aurretik bi-deoklip formatuan erakutsi zuten kantu hori sarean, ondoren etorriko diren zazpi kantuei bidea zabaltzen diena bilduma berrian. "Musikalki, dantza eginarazteko proposamen batekin gatoz. Borroka kolektiborako dei egiten du hitzekin, norbanakook bizi ditugun muga eta gabezia horiek soluzio kolektiboa dutela aldarrikatuta; izan ere, iruditzen zaigu azkeneko urteetan sistematik jasotzen dugun mezua beste bat dela, despistatu eta sufriarazten gaituena. Orokorrean, hori da bildumako letren ideia".

*Oasia* izena jarri diote. "Bizi dugun hori desertua den edo



Arrasateko Assata boskotea. DO SIS

oasia den islatzen edo galdetzen dugu abestietan; hau da, babes-ten gaituen gune edo kolektibo bat den edo sistemak lehortzen gaituen desertua".

**Lagunen kolaborazioak**

Iraitz Agirre (Ain\_1), Andoni Iñurritegi *Pottoko* (Never Surrender) eta Katya Martin gonbidatu dituzte eurekin kantatzera, eta, haiez gain, haize-instrumentu hirukote bat ere bai: "Marina Garmendia, Jurgi Iraola eta Peru Atxa izugarri-zko musikariak dira, eta pare

bat kanturi bilatzen genuen ukitu hori ematen diote, soulera gerturatuta. Oso pozik gaude emaitzarekin".

Shot! estudioan grabatu dute, "etxean". "Laguna izateaz gainera, musika arloan gure konfiantzakoa da Iñaki Bengoa; zuzenekoetan ere gurekin izaten da, gehienetan.

**Agenda, zehazteke**

Gogotsu daude kontzertuak egiteko, baina, oraingoz, ez dituzte lotuta. Diskoa Irati tabernan dago eskuragarri.

## Karmele Igartua lehiaketaren irabazleak eta liburu berria

Bihar, zapatua, 12:30ean, Arkupe kultura etxean egingo duten ekitaldian banatu dituzte aurtengo sariak

**A. A. ARETXABALET**

Idazle berriak bultzatzeko lehiaketa da Aretxabaletako Udalak eta Bergarako Idazle Eskolak elkarlanean antolatzen duten Karmele Igartua sariketa. Poesiari eskainia izan da aurtengoa,

eta hemeretzi lan jaso dituzte, guztira. "Oso maila onekoak dira denak. Lehenengo galbahea hamar lanek pasatu dute eta amaierarako lau lan geratu dira", azaldu dute sariketako bultzatzaileek.

**Obra bakarrean bilduta**

Gidoiak eta ikastetxeetan lantzeko haurrentzako antzerki lanak idatzi zituen Igartuak, baina poeta moduan egin zen, bereziki, ezagun; horren erakusle, Espainiako Poesia Sari Nazionalako finalista euskalduna izan zela haren azken liburua. Hiru liburu argitaratu zituen Igartuak; bada, bihar aurkeztuko duten *Poesia bizitzeko eta sentitzeko modua* izeneko argitalpenean obra bakarrean bildu dituzte Pamielaren eskutik.

Goienakideen txokoa

**ABENDUKO SARIAK**

**TD Telebista (32')**

'InnJoo Superb' tableta

Parte hartzeko sariaren izena: telebista

**EROSKI**  
ARRASATE



**Sarrerak**

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arankruz

**Otarrea**

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

**ARRIKRUTZ**  
ONAIKOBAK

[www.harremanetxako.org](http://www.harremanetxako.org)  
Bidezko Merkataritza produktuak

**PARTE HARTZEKO:**

Posta elektronikoz: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bakidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrez dagoen LFPD 15/1999 legearen arabera, jakingarria dugu hori datu pertsonal Gaiena Komunikazio Zerbitzuaren bitartez automatikoki bideratuko dela. Datu bilaketaren helburu bakarra da indarrez dagoen zozketaren garapena. Ekididazu zure datuak ez erabiltzeko, klikatu hemen: [www.goiena.eus/privacy](http://www.goiena.eus/privacy)

Realaren eta Osasunaren arteko partidarako sarrerak futbol zelako tokirik onenean

**GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA**

Real-Osasuna partida beste modu batera

ikuszeko aukera bilakatu duzue eskura zuek

eta zuek aukeraturako beste lagun batek.

Real Arena futbol zelako tokirik onenetik.

Abenduaren 31n, zapatua, 16:15ean.

Parte hartzeko azken eguna: abenduak 26



**Irabazi bi lagunendako sarrerak**

**Arrasateko Udalarri esker**

"Kantu bot gara" musikaldireko sarrerak ditugu

Arrasate | Amalia Antzokia | Abenduak 23 | 19:30

**Txatxilipuri elkarteari esker**

Igerilekurako eta jolasperkerako sarrerak ditugu (Txikilandia)

Arrasate | Urtarrilak 2

**Txatxilipuri elkarteari esker**

Sormen guneko ekintzen laborategirako sarrerak ditugu

(9 urtetik gorako) Arrasate | Urtarrilak 2

**PARTE HARTZEKO:**

E-postaz: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) WhatsApp: GOIENAKIDE "Kantu",

"Txikilandia" edo "Sormen" [bakidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrez dagoen LFPD 15/1999 legearen arabera, jakingarria dugu hori datu pertsonal Gaiena Komunikazio Zerbitzuaren bitartez automatikoki bideratuko dela. Datu bilaketaren helburu bakarra da indarrez dagoen zozketaren garapena. Ekididazu zure datuak ez erabiltzeko, klikatu hemen: [www.goiena.eus/privacy](http://www.goiena.eus/privacy)

**Irabazi bi lagunendako otordua**

**BERGARAKO BATZOKIA JATETXEARI ESKER**

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: abenduak 20

943 25 05 05

[goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)

"Goiena app"-a / zozketa atalean.

**GOIENAKIDE** Jatetxea

[bakidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

2023rako Goienakide eginez gero,

hemendik aurrera jaso Puntua DOAN

Deitu: 943 25 05 05 • [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

**goiena**  
**kide**

Okm: batzen gaituen distantzia.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

**Oñati edo Zubillaga.** Bi edo hiru logelako etxebizitza erosiko nuke Oñatin edo Zubillagan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 673 35 95 98

## 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** 92 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan, erdigunean, Iparragirre kalean. Bigarren solairua, igogailuarekin. Orientazio ona. Alzariarekin edo gabe aloka daiteke. Bi garaje itxi izateko aukera ere bai, zuzeneko sarbidearekin. 657 26 78 51 (Maria)

## 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** 30 urteko bikote bat gara eta epe luze-rako etxebizitza behar dugu errentan. Deitu mesedez zerbaki honetara: 647 11 02 66

**Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan. Familia langilea gara. 631 46 56 98

## 4. LANA

402. ESKAERA

**Arrasate.** Arrasateko neska arduratsu eta atseginarekin etxebizitza zaintzeko gertu, baita pertsona nagusiei laguntza eman eta kalera laguntzeko ere. Ondo moldatzen naiz haurrekin zein helduekin. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 695 73 87 95

**Arrasate.** Egunean zehar, baita orduka ere, garbiketara eta zaintza lanak egingo nituzke. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 632 83 32 44.

**Arrasate.** Egunean zehar, orduka, nagusiak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko gertu nago. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 655 46 54 32.

**Arrasate.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 612 54 69 93

**Arrasate.** Mutila gertu nagusiek egon eta kalera laguntzeko. Baita gauean edo asteburuetan ere. Etxean bertan bizi barik. Deitu 722 52 53 75 telefono zerbaki honetara.

**Arrasate.** Nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia dut eta ordutegi aldetik malgutasuna. Gauean ere lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 661 15 11 29

